

Euskal Autonomia Erkidegoko III. Gazte Justizia Plana 2008-2012

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2008

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

Argitaraldia:

Ale-kopurua: 800 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila

Internet www.euskadi.net

Argiraratzaila: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
c/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Maketazioa: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimatzea: .

ISBN:

L.G. BI -

AURKIBIDEA

	Aurkezpena	9
	<i>Joseba Azkarraga Rodero</i> <i>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailburua</i>	
1	Hitzaurrea	11
2	Egoeraren ebaluazioa eta diagnosis	13
	2.1. 2004-2007 aldiko bilakaera	13
	2.1.1. 2004-2007 aldiko legegintza-bilakaera	13
	2.1.2. Jarduera judizialaren eta neurri irmoen eta kautelazkoen bilakaera	13
	2.1.3. Arau-haustek (hutsegiteak eta delituak)	22
	2.1.4. Neurri-aniztasuna pertsona bakoitzeko	24
	2.2. 2004-2007 Planaren ebaluazioa	25
	2.2.1. Planaren Helburuen ebaluazioa	25
	2.2.1.1. I. helburua: Bitartekotza-programak sendotzea	25
	2.2.1.2. II. helburua. Ingurune irekiko eredu integrala	26
	2.2.1.3. III. helburua: Hezkuntza-zentroen sarea garatzea	31
	2.2.1.4. IV. helburua: Inoren kargura ez dauden atzeritar adingabeak..	34
	2.2.1.5. V. helburua: Beste erakundeekiko koordinazioa	36
	2.2.1.6. VI. helburua: Gazte Justiziaren Zerbitzua	37
	2.2.1.7. VII. helburua: Arauaren garapena	39
	2.2.1.8. Neurrien adierazleei buruzko Eranskina ebaluatzea eta berrikustea	40
	2.2.2. Kuantifikazio ekonomikoaren ebaluazioa	41
	2.2.2.1. Ingurune irekia	41
	2.2.2.2. Ibaiondo Hezkuntza Zentroa	42
	2.2.2.3. Hezkuntza Zentro Kontratatuak/Itunduak	43
	2.2.2.4. Gazte Justiziako Hezkuntza Zentroetako segurtasun-langileak	44
	2.2.2.5. Gazte Justiziako Hezkuntza Zentroetako obrak	45
	2.2.3. Ebaluazioaren ondorioak	45
3	Jaurlaritzaren plangintza orokorra, Jaurlaritzaren programa eta legegintzaldi honetarako aurreikusitako gainerako arau proiektuak, planak eta jardunak txertatzea	49
4	EAEko Gazte Justiziaren printzipioak	53
	4.1. Erantzukizun penaleko ereduak: zehazpen- eta hezkuntza-izaera	57
	4.2. Sistema garantista: eskubide guztien errespetu zorrotza	59

4.3.	Gutxienerako esku-hartzea	60
4.4.	Elkarrekotasuna eta berehalakotasuna	62
4.5.	Egokitzapen indibiduala fase guztietan.	63
4.6.	Erantzukizun publikoa neurrien betearazpenean.	63
4.7.	Arreta integrala	64
4.7.1.	Erantzukizuna hartzea	64
4.7.2.	Izaera hezitzailea eta hezkuntza-loturak ezartzea	65
4.7.3.	Gizartearekiko ikuspegia eta eraldatzailea	65
4.7.4.	Normalizazioa	66
5	2008-2012 Gazte Justizia Planaren ildo estrategikoak	67
5.1.	Sailartekotasuna eta erakunde arteko lankidetzatza	67
5.2.	Kalitatea eta baliabideen optimizazioa	68
5.3.	Jakintza, ikerketa eta nazioarteko lankidetzatza	69
5.4.	Homogeneizazioa eta sistematizazioa	70
5.5.	Paradigma berrezartzailea	71
5.6.	Gazte-neurrien betearazpenaren kudeaketa-eredu mistoaren potenzialtasunen maximizazioa	72
5.7.	Prebentzioa	73
6	Helburu orokorrak	75
7	Ildo estrategikoen helburu espezifikoak.	77
7.1.	Sailartekotasuna eta erakunde arteko lankidetzatza	77
7.2.	Kalitatea eta baliabideen optimizazioa	77
7.3.	Jakintza, ikerketa eta nazioarteko lankidetzatza	78
7.4.	Homogeneizazioa eta sistematizazioa	78
7.5.	Paradigma berrezartzailea	79
7.6.	Gazte-neurrien betearazpenaren kudeaketa-eredu mistoaren potenzialtasunen maximizazioa	79
7.7.	Prebentzioa	79
8	Sail bakoitzaren helburu espezifikoak: ekintzak, tenporalizazioa eta adierazleak	81
8.1.	Herrizaingo Saila	81
8.2.	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.	82
8.3.	Osasun Saila	83
8.4.	Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila	84
8.5.	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila	86
8.5.1.	Zerbitzu Zuzendaritza.	88

	8.5.2. Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza	88
	8.5.3. Gizarteratze Zuzendaritza	89
	8.5.4. Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritza	90
	8.5.5. Giza Baliabideen Zuzendaritza	92
	8.5.6. Giza Eskubideen Zuzendaritza	92
	8.5.7. Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza	92
9	Planaren kudeaketa eredia	97
	9.1. Zuzendaritza koordinatzailea: Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza . .	97
	9.2. Metodologia eta Ebaluazio Egutegia	98
10	Aurreikuspen ekonomiko orokorrak 2008-2012.	103
11	Giza baliabideak 2008-2012 aldiko zentroak eta zerbitzuak	109
12	Eranskina: 2004-2007 aldiaren ebaluazioa	111
	1. 2004-2007 aldiaren eboluzioa	111
	1.1. 2004-2007 aldiko legegintza-bilakaera	111
	1.2. EAEko Adingabeen Fiskaltzen eta Adingabeen Epaitegien jardueraren bilakaera.	113
	1.3. Neurrien bilakaera 2004-2007 aldian	119
	1.3.1. Neurri irmoen eta kautelazkoen bilakaera.	119
	1.3.2. Arau-haustea (hutsuneak eta delituak)	124
	1.3.2.1. Adingabeek eginiko arau-hausteen tipologia	124
	1.3.2.2. Seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeriari eginiko aipamen berezia	126
	1.3.3. Neurri-aniztasuna pertsona bakoitzeko	129
	2. 2004-2007 Gazte Justiziaren Planaren ebaluazioa	132
	2.1. Planaren Helburuen ebaluazioa	132
	2.1.1. I. helburua: Bitartekotza-programak sendotzea	132
	2.1.2. II. helburua: Ingurune irekiko eredu integrala	138
	2.1.2.1. Jardunen ebaluazioa	138
	2.1.2.2. Ingurune irekiko neurrien hezkuntza-eraginkortasuna eta berrerortzea	141
	2.1.3. III. helburua: Hezkuntza-zentroen sarea garatzea.	143
	2.1.3.1. Jardunen ebaluazioa	144
	2.1.3.2. Zentroko neurrien hezkuntza-eraginkortasuna eta berrerortzea	147
	2.1.3.3. Gazte Justiziaren Zentroen hezkuntza proiektuen ebaluazioa	150
	2.1.4. IV. helburua: Inoren kargura ez dauden atzeritar adingabeak.	151
	2.1.5. V. helburua: Beste erakundeekiko koordinazioa.	153
	2.1.6. VI. helburua: Gazte Justiziaren Zerbitzua	154

2.1.7. VII. helburua: Araudia garatzea	156
2.1.8. Neurrien adierazleei buruzko Eranskina ebaluatzea eta berrikustea . .	158
2.1.8.1. Neurrien adierazleei buruzko ebaluazioa.	158
2.1.8.2. Adierazleak berrikustea.	159
2.2. Kuantifikazio ekonomikoaren ebaluazioa.	167
2.3. Aurreikusitako giza baliabideei buruzko ebaluazioa.	174
2.4. Eusko Legebiltzarraren Erakunde eta Herrizaingo Batzordearen Ebazpenak. .	176
2.4.1. Balioetan oinarritutako hezkuntza	176
2.4.2. Betearazteko epeak eta ikuskatze-zerbitzua	178
2.4.3. Betearazpena EAEn.	179
2.4.4. Plantilla premietara egokitzea.	179
2.4.5. Adingabeek egindako ebaluazioa.	180
3. Ondorioak.	180
4. Iturriak.	184

Aurkezpena

Orain aurkeztuko dugun 2008-2012 aldirako Gazte Justiziaren Plana 2008ko azaroaren 18ko Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu zuen.

Plana Eusko Legebiltzarrari komunikatu zitzaion eta Legebiltzarrak izapidetzeko onartu zuen Erakunde eta Herrizaingo Batzordeak azter zezan (Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofiziala, 189. zk., 2009ko urtarrilaren 9koa)

2008-2012 aldirako Gazte Justiziaren Plan hau Gazte Justiziaren Hirugarren Plana da, Eusko Jaurlaritzak 1996. urtean adingabe arau-hausleak gizarteratzeko eskuduntza hartu zuenetik.

1998ko otsailaren 3an Jaurlaritzaren Kontseiluak onarturiko Plana eta 2004ko azaroaren 2an Jaurlaritzaren Kontseiluak onarturiko 2004-2007 aldirako Plana dira aurreko bi Planak.

Aurkeztuko dugun 2008-2012 aldirako Gazte Justiziaren Planaren funtsezko ezaugarriren batzuk bereiziz gero, honako hauek azpimarratu nahi nituzke:

- 2004-2007ko Planaren betearazpenak gazte-justiziako funtzionamendu-eredu bat ahalbidetu du, baita 5/2000 Lege Organikoaren aplikazioaren ondorioz gazte-neurriak betearazteko eskari handiari behar bezala erantzuteko zentroen, baliabide materialen eta horretarako gaituriko pertsonen sare bat ere, 2001etik aurrera.
- Hurrengo aldirako erronka, zentro eta baliabideen gehikuntza baino gehiago, hezkuntza-kalitatearen hazkundean dago, sailen eta erakundeen arteko koordinazio hobean eta neurrien betearazpenean esku-hartzeak izan behar duen osotasunean.
- Ildo horretan, Plan honek aurrerapausoa izan nahi du inplikaturiko arlo guztien artean, ez bakarrik Justiziari dagokionez, baita, batez ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketari, Osasunari, Lan eta Gizarteratzeari, Etxebizitza eta Gizarte Gaiei eta Herrizaingoari dagokienez ere, lehen aipatu dudan erantzun oso hori hobeto emateko.
- Sail guztien jardun-esparruetatik Planari prebentzio-orientazio bat ematen saiatu gara, betiere sail horien politikak oro har haurrengan, nerabeengan eta gazteengan eragina badute.

- Azkenik, laster argitaratuko diren egindako azterlanetan oinarrituta, esan dezakegu hezkuntza-lana eraginkorra izaten ari dela, adingabeen jokabidean aldaketa esanguratsuak egiaztatu baitira. Berrerortzeari gagozkiola, neurri judiziala amaitu ondorengo berrerortze globaleko tasa % 28,1 da. Horrenbestez, neurri bat amaitu zuten adingabeen % 71,9k ez zuen delitu-egitaterik egin ondorengo 3 urteetan.

Gaszte Justizian nerabeak ditugu aztergai, hots, bilakaera-prozesuetan dauden pertsonak, zer diren eta zer izango diren kontuan izanda arreta handiagoa merezi dutenak. Pitagorasek esan zigun: «Hazi haurrak eta ez da beharrezkoa izango gizonak zigortzea». Baina, ez dezagun hezi zigortzeko; hezi dezagun berezko helburu gisa eta ziur asko, bigarren mailako ondorio positibo gisa, gutxiago zigortu behar izango dugu.

Jokabide bihurri, arau-hausle edo urratzaileak gazteriarri loturiko fenomenoak badira ere, epaitegietatik igarotzen diren adingabeak gutxiengo bat dira, errealitateak erakusten duenez (batez ere zentro batean sartzen direnak). Familia-desegituraketa, eskolaratze baxua, trebetasun sozial eskasak, eta abar, dituzte ezaugarritzat pertsona horiek. Gauza negatiboak soilik erreparatu behar ez zaiela ahaztu ezin badugu ere, nerabeek badituzte beren baitan aztertu eta bultzatu beharreko ahalmen eta potentzialtasunak.

Horregatik, Plan honen funtsezko elementuetako bat haur, nerabe eta gazteengan eragina duten erakunde eta agente guztien arreta osoa eta koordinatua da. Baina baita familiengan, hezkuntzarengan eta gizarteratze eta laneratzearengan ere. Guztia betiere oro har adingabeekiko prebentzio-ikuspuntu batetik begiratuta, baita babesgabetasuneko edo arriskuko egoeran dauden adingabeekiko edo portaera arau-hauslea dela-eta jada zehazpen bat jaso duten adingabeekiko ere.

Adingabeen zigor-arloko jurisdikzioa «zehapen- eta hezkuntza-izaerakoa» dela esan ohi da, hau da Gaszte Justiziaren esparrutik esku hartzen dugu adingabe batek zigor-arloko legea hautsi duelako, baina hezteko, zentzu zabalean hartuta. Ez alderantziz. Kontrakoak sistema batera eraman gaitzake non haurtzarora eta nerabezarora babesteari eta hezteari uko egingo diogun, gazte-justizia etorriko baita atzetik heztera. Izan ere, Gaszte Justiziak ez du zertan izan haur eta nerabeak babestu eta haiei arreta eskaintzeko sistemaren balizko defiziten hartzailea eta zuzentzailea.

Joseba Azkarraga Rodero
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailburua
Eusko Jaurlaritza

1

Hitzaurrea

VIII Legegintzaldirako (2005-2009) Gobernuaren Koalizio Akordioak, «Justizia Administrazio eraginkor eta demokratiko baten» konpromisoan, honako hau aurreikusten du: «2008-2012 Gazte Justizia Plan berria egitea eta Adingabeen Zentroyen berritze- eta birgaitze-prozesuekin jarraitzea (Landa, Ortuella eta Aramaio)». Landako (Uribarri HZ) eta Ortuellako (CEMAR) berritze- eta birgaitze-prozesuak amaitu dira; Aramaioko (Mendixola HZ) prozesua 2009. urtean egiteke dago. Plan hau landuta, Koalizio Akordioan aurreikusitakoa bete da.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren jarduera-arloen artean, adingabeen gaietan egin beharreko esku-hartzea urriaren 18ko 315/2005 Dekretuko 15. artikuluko h, i, j, k eta l idatz-zatietan ezartzen da (dekretu horren bidez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren organoen eta egitekoen egitura finkatu zen). Izan ere, adierazitako dekretuak ezartzen duenez, sail hori eskuduna da adingabe arau-hausleekiko esku-hartzea taxutzeko eta planifikatzeko, gazte-justiziaren arloko planak eginez eta ebaluatuz.

III. Gazte Justizia Planaren (2008-2012) aurrekariak honako hauek dira: Adingabeen Epaitegien emandako neurri judizialak betearazteko Plana, 1998koa, 1996ko urtarrilaren 1ean eskumen hori bere gain hartu ondoren landutakoa, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Epaitegien emandako neurriak betearazteko Plana (2004-2007), 2004ko azaroaren 2an Jaurlaritzaren Kontseiluak onartutakoa.

Hala, Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzak 2004-2007 Planaren betearazpenaldia amaitzeari ekin dio, gazte-neurriak betearazterakoan gehien inplikaturiko agenteen —hau da, Adingabeen Epaitegien, Adingabeen Fiskaltzen, Talde Psikosozialen eta neurriak betearazten esku hartzen duten hezkuntza-elkarteen— parte-hartzearen bitartez.

III. Gazte Justizia Plana (2008-2012) aurreko planaren ebaluazioan, egungo egoeraren diagnosian, eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordeak 2008ko irailaren 11n onartutako Oinarrizko Ildo Estrategiko eta Ekonomikoetan oinarritzen da.

2008-2012 aldirako Oinarrizko Ildo Estrategiko eta Ekonomikoen arrazoia honako hauentzat egokiak izatea da: Jaurlaritzaren plangintza orokorra, Gobernatzeko Programa eta legegintzaldi honetarako aurreikusitako gainerako Araubide Proiektuak, eta Euskal Autonomia Erkidegoan Gazte Justizia —arauen aplikazioari eta ebazpen judizialen betearazpenari dagokienez— informatzen duten printzipioak.

Azkenik, dokumentu honen hitzaurre gisa, adierazi beharra dago planaren eratze-ezaugarrietako bat —planaren izenean adierazten da— Gazte Justizia Plan bat dela da —eta ez gazte-neurriak betearaztera mugatutako plan bat—, betiere Eusko Jaurlaritzaren Sailek arlo honetan garatzen dituzten eskumenen esparruaren barruan.

Horrela, ildo estrategikoetan adierazten denez, 2008-2012 aldiko Plan honek ikuspegi hori erantsi behar du eta neurriak betearazteko eremu zorrotza gainditu, Gazte Justiziarekin zerikusia duten Jaurlaritzaren Sailen eskura dauden alderdi guztiak hartzeko: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Herrizaingo Saila, eta Osasun Saila.

Hala ere, Gazte Justiziaren Sistema gehiena (legegintza, aplikazioa, betearazpena) beste eragile sozial, politiko eta instituzional batzuen ekintzaren bitartez egiten da, eta, beraz, Plan honek Sistemaren barruan duen intzidentzia-ahalmena mugatua da, baina esanguratsua aldi berean. Arrazoi horrengatik, erakunde arteko lankidetzak eta koordinazioa, eta partaidetza-mekanismoak, Planaren funtsezko zatiak dira.

2

Egoeraren ebaluazioa eta diagnosis

2.1. 2004-2007 aldiko bilakaera

2.1.1. 2004-2007 aldiko legegintza-bilakaera

Adingabeen erantzukizun penalari dagokionez, gaur egun aplikatu behar den legedia Adingabeen Erantzukizun Penalari arautzen duen otsailaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa da (2001eko otsailaren 13an jarri zen indarrean). Lege Organiko hori, indarrean jarri aurretik ere, nabarmen aldatu zuten honako Lege Organiko hauek: abenduaren 22ko 7 eta 9/2000 Lege Organikoak, abenduaren 10eko 9/2002 Lege Organikoak, azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoak eta abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak.

Legegintzari dagokionez, garrantzi handiko bi berrikuntza izan dira 2004-2007 aldian: 5/2000 Lege Organikoa Garatzeko Arautzea onartzen duen uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretua, eta 5/2000 Lege Organikoa aldatzen duen 8/2006 Lege Organikoa (2007ko otsailean jarri zen indarrean).

Azkenik, eta 8/2006 Lege Organiko horren haritik, aipatzekoa da Estatuko Fiskaltza Nagusiak 2007ko azaroaren 1/2007 Zirkular zabala onartu zuela, 2006ko adingabeen zigorgilegiaren erreformaren ondorengo interpretazio-irizpideei buruzkoa, eta hartan lege-gileak sartutako aldaketei buruzko interpretazio zehatzak bildu direla.

2.1.2. Jarduera judizialaren eta neurri irmoen eta kautelazkoen bilakaera

Atal honetan, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren urteko memorietatik ateratako zenbait datu aurkezten ditugu, Adingabeen Fiskaltzek eta Epaitegiek Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan egin duten jarduera hobeto ezagutzeko aukera emango digutelakoan. Era berean, Justizia sailburuordetzaren, EAEko

Auzitegi Nagusiaren eta Justizia Administrazioaren Euskal Behatokiaren memoriak kontsultatu dira.

Hasteko, Euskadiko Adingabeen Fiskaltzen datuak aurkezten dira. Estatuko Fiskaltza Nagusiko urteko Memoretatik jaso dira.

Atariko eginbideak

	Hasitakoak				Artxibatuak				Atzera egitea (18. artikulua)			
	2004	2005	2006	2007	2004	2005	2006	2007	2004	2005	2006	2007
Araba	409	449	328	347	89	132	100	74	40	76	79	64
Gipuzkoa	783	774	820	886	153	153	22	211	60	59	37	78
Bizkaia	1.512	1.369	1.477	1.390	692	362	533	313	83	43	79	83
Guztira	2.704	2.592	2.675	2.623	934	647	655	598	183	178	195	225

Iturria: Estatuko Fiskaltza Nagusiaren memoriak.

Irekitako eginbideei buruzko kopuru globalei dagokienez, aipatzekoa da aldiaren oreka itzela gertatu dela. 2004. urtetik 2007. urtera bitarte 81 eginbide gutxiago egin dira, hau da, % 3ko beheranzko aldaketa. Horrenbestez, erreferentzialdian beherakada txiki bat gertatu dela ondorioztatzen da.

Artxibatutako eginbideei dagokienez, datuek beheranzko joera erakusten dute. 2004an baino 336 espediente gutxiago artxibatu dira 2007an, hau da, % 36ko jaitsiera gertatu da. Aldaketa esanguratsua da, eta artxibaturiko eginbideek beheranzko joera hartu dutela dirudi, eta, ondorioz, esku-hartze judizialak gorakada izan duela, ikerturiko egitate kopurua antzekoa dela oinarritzat hartuta.

Ireki ondoren atzera egindako txostenen atalean, 2004tik 2007ra bitarte 42ko igoera nabari da (% 33), igoera nabarmena, beraz, baina esan beharra dago igoera hori batez ere Araban geratu dela, eta neurri txikiagoan Gipuzkoan.

Erreforma espedienteak

	Irekiak				Artxibatuak				Inhibizioa			
	2004	2005	2006	2007	2004	2005	2006	2007	2004	2005	2006	2007
Araba	200	241	180	183	48	58	78	42	5	8	—	15
Gipuzkoa	374	346	408	494	254	102	141	99	4	1	5	2
Bizkaia	770	682	673	661	82	43	108	66	5	2	—	1
Guztira	1.344	1.269	1.261	1.338	384	203	327	207	14	11	5	18

Iturria: Estatuko Fiskaltza Nagusiaren memoriak.

Euskal Autonomia Erkidego osoan guztira 6 erreforma-espediente gutxiago ireki ziren; hortaz, esan dezakegu egoera erabat orekatuta dagoela.

Fiskaltzen eta Erreforma Espedienteen esku-hartzeek, oro har, behera egin badute ere, betearazi beharreko neurri kopuruan ez da beheranzko joera hori nabari. Aitzitik, neurrietan hazkunde egonkorrak ageri dira, % 5 ingurukoak. Zehazki, 2004tik 2007ra, aldi berean, 93 neurri irmo gehiago ezarri dira, hau da, % 9,63 gehiago.

2007. urtean, 14 urtetik 18 urtera bitarteko 67.917 pertsona zeuden erroldatuta EAEn, eta hori alde aurreko eginbideei, irekitako espedientei eta epaiei buruzko datuen aldean jartzen badugu, esku-hartzeari buruzko ehuneko handi bat ondorioztatzen da. Nolanahi ere, esan beharra dago adingabe batek espediente bat baino gehiago eduki dezakeela, eta, espediente baten barnean, egotzitako pertsona bat baino gehiago har daitkeela.

Lurraldeaz lurraldeko azterketa bat egiten badugu, honako hau ikus dezakegu:

- 2004tik 2007ra bitarte, Araban % 8,5eko jaitsiera nabari da. Hala ere, 2005ean % 20ko igoera egon zen.
- Gipuzkoan, Araban gertaturikoaren aurkakoa gertatu da. 2004tik 2007ra bitarte, % 32,1eko hazkundera nabari da. 2004tik 2005era bitarte, aldiz, % 7,5eko jaitsiera nabari da.

- Bizkaiko datuek aditzera ematen dute 2004tik 2007ra bitarte % 14ko jaitsiera gertatu dela, eta joera hori 2004tik 2005era bitarte ere nabari zen.

Ondorio gisa, Araban eta bereziki Bizkaian jaitsiera orokorra gertatu dela esan dezakegu. Gipuzkoan, aldiz, beste bi lurraldeenaren aurkako joera nagusitu da.

Artxibatutako espedienteei dagokienez, oro har, beheranzko joera nabari da, 2007an 2004an baino % 46,1 gutxiago artxibatu baita. Urtez urte irekiak eta artxibatuak alderatzen baditugu, erlazioa honako hau da:

- 2004: % 28,6 artxibatu da.
- 2005: % 16 artxibatu da.
- 2006: % 25,9 artxibatu da.
- 2007: % 15,5 artxibatu da.

Horri dagokionez, lurraldearen arabera honako datu esanguratsu hau ikus daiteke: Gipuzkoan, Euskal Autonomia Erkidekoan urte bakoitzean artxibatutako espediente guztien % 66,1, % 50,2, % 43,1 eta % 47,8 artxibatu da. Araban, aldiz, 2004an artxibatutako espedienteen % 12,5 artxibatu zen, 2006an artxibaturikoen % 28,6 eta 2007koen % 23,8. Azkenik, Bizkaian espedienteen % 21,3, % 21,2, % 33 eta % 31,9 artxibatu zen, 2004an, 2005ean, 2006an eta 2007an, hurrenez hurren.

Epaiak 2004-2007: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

	Absoluzio epaiak					Kondena epaiak					Adostasun epaiak				
	2004	2005	2006	2007	Guztira	2004	2005	2006	2007	Guztira	2004	2005	2006	2007	Guztira
Araba	8	11	5	10	34	95	38	28	28	189	73	113	63	73	322
Gipuzkoa	49	21	15	25	110	166	214	67	98	545	98	149	163	202	612
Bizkaia	54	84	85	48	271	84	279	405	103	871	232	197	132	351	912
Guztira	111	116	105	83	415	345	531	500	229	1.605	403	459	358	626	1.846

Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.

2004-2007 Aldiko guztizko epaiak

Araba	545
Gipuzkoa	1.267
Bizkaia	2.054
<hr/>	
Guztira	3.866

Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.

2004., 2005. eta 2006. urteetako Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren memorietatik ateratako datuetatik, honako hauek nabari daitezke:

- Denboraldi horretan guztira 3.866 epai eman dira. Horien % 14,1 (545) Araban eman da, % 32,8 (1267) Gipuzkoan, eta gainerako % 53,1 (2.054) Bizkaian.
- Adostasunik gabeko kondena epaiak 1.605 dira, 2004-2007 aldiko epai guztien % 41,5.
- Adostasun-epaiak, berriz, 1.846 izan dira, % 47,7 alegia.
- Adostasun-epaiak kondena-epaiak direnez, kondena-epaiak guztien % 89,3 dira.

Errealitate hori hiru Lurralde Historikoetan aztertzen badugu, alde handiak daudela ohar-tzen gara:

- Araba: 545.
 - Absolutzio-epaiak: % 6,2.
 - Kondena-epaiak: % 34,7.
 - Adostasun-epaiak: % 59,1.
- Gipuzkoa: 1.267.
 - Absolutzio-epaiak: % 8,7.
 - Kondena-epaiak: % 43.
 - Adostasun-epaiak: % 48,3.

- Bizkaia: 2.054.
 - Absolutzio-epaiak: % 13,2.
 - Kondena-epaiak: % 42,4.
 - Adostasun-epaiak: % 44,4.

Argitaratutako datuetan ikus daitekeenez, aldeak nabariak dira. Absolutzio-epaien kopurua bi aldiz handiagoa da Bizkaian Araban baino. Adostasun-neurriak, aldiz, Bizkaian baino 15 puntu gutxiago dira.

Bizkaiko Epaitegiei datu horien berri eman zaie, eta okerrak direla eta haiek dituztenekin bat ez datozela esan digute. Ez dakit zergatik gertatu den estatistika-okerrak hori. Nolanahi ere, Bilboko Epaitegiek adierazi dute adostasun-epaien kopurua askoz ere handiagoa dela Botere Judizialaren Kontseilu nagusiaren estatistikan jasotakoa baino. Horrelaxe izan behar du, 2006. eta 2007. urteko kondena-epaiei buruzko datuetatik ondorioztatutakoaren arabera.

Adingabeen jurisdikzioaren jarduera judizialari dagokionez, Arartekoak Eusko Legebiltzarrari igorritako 2007ko Urteko Txostenean honako ondorio hauek nabari dira (1998. urteaz geroztik urtero-urtero, adingabe arau-hausleei buruzko atal espezifiko bat dakar txosten horrek):

- Denbora gehiegi igarotzen da delitua gauzatzen denetik neurria ezarri arte.
- Epaitegi batetik bestera alde handiak daude neurriak aplikatzerakoan.
- Aldez aurreko eginbideen ehuneko handi bat neurria ezarri gabe ebatzen da.

Azken batean, Arartekoak jada nabarmendutako elementu kezagarrietako batzuk ageri dira:

- Sistema judizialaren moteltasuna.
- Gazte-justizian, babes-arlotik eratorritako adingabeek behar baino ordezkari handiagoa dute.
- Neurrien iraupena handitu da, eta alde handiak daude epaitegien artean.

- Problematika berriak ageri dira (familia barneko erasoa, osasun mentala, toxikomaniak eta abar).

Horren guztiaren ondorioz, Araratekoak honako ondorio hau atera du (363. orrialdea): «adingabeen erantzukizun penala arautzen duen legea aplikatzerakoan oraindik ere ga-beziak daude, ez bakarrik erakunde publiko eskudunak baliabide mugatuak dituelako edo antolakuntzako arazoak dituelako —alderdi horretan hobekuntza nabarmenak izan dira—, baizik eta baita sistema judizialak mugak edo jardunbide jakinak dituelako ere».

Gazteen neurriei buruzko estatistika-datu guztiak Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzako Gazte Justiziaren Zerbitzua kudeatzeko datu-baseetatik lortzen dira.

Neurrien bilakaera 2004-2007 aldian

Neurria	2004	2005	2006	2007	Guztira
Gizartearentzat lan egitea	430	506	469	444	1.849
Kautelazko zaintzapeko askatasuna	12	21	18	29	80
Zaintzapeko askatasun irmoa	247	180	189	187	803
Tratamendu ambulatorioa	25	33	16	10	84
Gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginak	66	95	73	141	375
Kautelazko barneratzea	33	24	30	34	121
Barneratze irmoa	109	113	156	136	514
Asteburuko egonaldia	88	66	147	129	430
Honako hauekiko bizikidetzak:	2	4	3	6	15
Kautelazko bizikidetzak	3	0	0	4	7
Eguneko zentro batera joatea	2	12	6	27	47
Guztira	1.017	1.054	1.107	1.147	4.325
Behin betikoak	963	1.009	1.059	1.080	4.111
Kautelazkoak	48	45	48	67	208
Igoera	250	43	53	40	386
Igoera (%)	% 32,80	% 4,25	% 5,00	% 3,60	% 13,45

2000-2004 aldiaren kasuan ez bezala, 2004-2007 aldian **igoera orekatua** egon da, neurrien bilakaerari dagokionez. Lau urtean, 1.017 neurri izatetik 1.147 izatera igaro da; metatutako igoera % 13,45koa izan da, urte bakoitzean % 5etik beherako igoerak izanik.

Laburbilduz, neurri irmoak eta kautelazko neurriak barnean hartuta, honako hau esan dezakegu:

- Erreferentziako aldian, 4 neurritik 3 ingurune irekikoak izan dira (% 74,87; 4.325etik 3.238).
- % 14,68k (4.325etik 635) gazteen justiziako zentro espezifiko batean barneratzearekin izan du zerikusia.
- % 9,94 (4.325etik 430) asteburuko egonaldiak dira, ia guztiak gazteen justiziako zentro espezifiko batean.
- % 0,51 (4.325etik 22) pertsona, familia edo hezkuntza-talderen batek egindako Harrerak dira, ia guztiak Gazteen Justizia Zerbitzuaren mendeko egoitza-baliabide batean.

2004-2007 aldiko **ingurune irekiko neurriei** dagokienez, honako datu garrantzitsu hauek aipatu behar ditugu:

- Lau urte horietan «Gizartearentzat lan egitea» da gehien jarri den neurria, 1.849 al-diz jarri baita; kopuru hori ingurune irekiko neurrien % 58,54 da [eta guztizko neurri irmoen % 44,94]. Ehunekorik handiena 2006koa da (% 59,52), eta txikiena 2007koa (% 52,35). Hurrengo urteetan ikusiko dugu 2007ko jaitziera hori 2007ko otsailean indarrean jarri zen 8/2006 Lege Organikoak egindako legezko aldaketak eragin ote duen edo beste alderdi batzuek eragin ote duten.
- Zaintzapeko askatasun irmoak ingurune irekiko 4 neurri irtotik 1 dira (% 25,43; 3.158tik 803), nahiz eta 2004az gozotik kopuru hori jaitsi den.
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginak ingurune irekiko guztizko neurrien % 11,6 gaintitzen dute. Kopuru hori igotzen ari da, 2004-2007 aldian bikoiztu egin baita.
- Tratamendu anbulatorioak ia desagertu egin dira kasu askotan neurri independente gisa. Hala eta guztiz ere, zaintzapeko askatasunaren eta barneratzearen kasuan, nahitaezkoak edo zeregin espezifikoak dira.

- Eguneko Zentrora joateko neurriak gorabehera asko izan ditu 2007an sendotu arte. 2006. urtean hamabi kasutan baino gehiagotan ezarri zen zaintzapeko askatasunaren betebeharrak gisa; nolana ere, neurri hori nabarmen jaitsi da 2007an; izan ere, urte horretan eguneko zentrora joateko ia neurri guztiak neurri horren esanbidezko ezarpenean oinarritzen dira.

Barneratze-neurrien kopurua nabarmen hazi da. 2004-2007 aldian, % 19,72 igo zen (142tik 170era), 2005. eta 2006. urteetan, aldiz, askoz gehiago igo zen, % 35,77ra iritsi baitzen.

Erregimen erdirekiko barneratzea kasuen % 86,19k aukeratzen du neurri irmo gisa. Bigarrenik, barneratze terapeutikoa aukeratzen dute, % 6,61ek, hain zuzen ere.

Arartekoaren Eusko Legebiltzarrentzako 2007ko Txostenak, 2000tik 2007ra neurriek izan duten bilakaera aztertu ondoren, honako ohar hauek egin ditu:

- Guztizko neurriak igotzeko joera. 2000n 235 ziren; 2007an, aldiz, 1.147, % 388 igo dira, nahiz eta azken hiru urte hauetan kopurua egonkortu den, % 3tik % 5era bitarteko igoerak izan baitira.
- Kautelazko neurrien igoera kezagarria da.
- Neurrien iraupena hazi egin da.
- Beste adingabe batzuek egindako hutsegiteen edo delituen biktimak diren adingabeen ehunekoa handia da.
- Babes-sistematik etorritako adingabeen ehunekoa handia da (inoren kargura ez dauden atzerritar adingabeak barne). «Harrera-sistemak oinarritzko premiei behar bezala erantzuten ez dienean, arazo gehienek, azkenean, zigor-sisteman eragina izaten dute».
- Barneratuta dauden atzerritar adingabeen ehunekoa handia da.
- Adingabe bakan batzuek delituak behin eta berriz egiteko joera dute.
- Osasun-sistema publikoan hutsunea dago adingabeen osasun mentalaren eta toxikomanien arretari dagokionez.

2.1.3. Arau-haustek (hutsegiteak eta delituak)¹

Fiskaltzan bideratzen diren arau-hauste gehienak jabegoari buruzko eta indarkeriarik gabeko arau-haustek dira; kautelazko neurriak indarkeriaz edo larderiak egindako lapurreta-delituen eta familia barneko indarkeriaren kasuetan aplikatzen dira batez ere.

		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE
Delituak	Kalteak	29	102	380	511
	Ebasketak	39	78	349	466
	Indarkeriaz egindako lapurretak	11	56	140	207
	Erabilerarako lapurretak edo ebasketak	2	39	64	105
	Lapurreta, indarkeria edo larderia erabiliz	0	44	180	224
	Trafikoaren segurtasunaren aurkakoak	3	10	5	18
	Osasun publikoaren aurkakoak	1	11	2	14
	Sexu-askatasunaren aurkakoak	3	14	21	38
	Lesioak	26	122	446	594
	Bizitzaren eta osotasun fisikoaren aurkakoak	0	2	0	2
	Etxeko indarkeria eta genero-indarkeria	13	29	65	107
	Beste batzuk	2	52	8	62
Faltak	Jabetzaren aurkakoak	30	98	169	297
	Pertsonen aurkakoak	20	100	144	264
	Beste batzuk	4	129	3	136
Guztira		183	886	1.976	3.045

2004-2007 aldian fenomeno berri bat agertu da, alegia, adingabeek beren gurasoen aurka egindako arau-haustek. Estatuko Fiskaltza Nagusiaren Memoriaren arabera, 2007. urtean etxeko indarkeriagatiko eta genero-indarkeriagatiko 107 arau-hauste erregistratu dira (65 Bizkaian, 29 Gipuzkoan, eta 13 Araban). Ikertutako guztizko 3.045 arau-hausteen % 3,5 dira horiek.

¹ Kontuan hartu adierazten diren datuak gizarte-kontrol formaleko agenteek *erregistratutako kriminalitateari* buruzkoak dira bakarrik, eta, beraz, datu horien arabera ezin da «*kriminalitate errealarari*» buruzko ondorioak atera, kriminalitatearen «*zifra beltza*» izena hartu duen hori zehaztea ezinezkoa baita.

EAEn indarkeriagatiko 101 arau-hauste ikertu ziren 2006an —58 Bizkaian, 20 Gipuzkoan eta 23 Araban—. Kopuru hori Adingabeen Fiskaltzak ikertutako adingabeen arau-hauste posibleen guztizkoaren % 3,6 da.

2004tik 2007ra bitarte, seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeriazko delituengatik adingabeei ezarritako neurriak

	2004	2005	2006	2007
Adingabeak	31 (29 + 2)*	50 (43 + 7)	55 (48 + 7)	49 (38 + 11)
Epai bidezko neurriak	32	46	55	49
<i>Kautelazko neurriak</i>	11	15	9	17

* Mutilen kopurua + nesken kopurua adierazi da.

- 2004tik 2007ra bitarte, ezarritako neurrien kopuruak gora egin zuen: 36 neurri izatetik 49 neurri izatera igaro zen.
- Inplikaturiko adingabeen kopuruak ere gora egin zuen, 31tik 49ra.
- Erasotzaile gehienak mutilak dira, baina azkenaldian honako joera hau nabari da: zehapenak ezarri zaizkien mutilen kopuruak behera egin du, eta neskena, aldiz, nabarmen igo da: 2004an, bi neska zehatu zituzten; 2007an, aldiz, 11 neska.

Fenomeno berri horren aurrean, Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzak problematika horri buruzko azterlana eskatu zuen, eta 2007an argitaratu zuen².

Lan berria da, eta familia barneko indarkeriazko delituak direla-eta 1999tik 2006ra bitarte adingabeei irekitako espediente judizial guztiak aztertu dira.

Besteak beste, azterlanak honako ondorio argi hau utzi du: indarkeriazko portaerak gurasoenganako soilik ageri dituzten gazteek ez dute salatutako gainerako adingabeen profila.

² Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateko irakasle titular Izaskun Ibabe andreak gidaturiko taldeak egin zuen azterlana.

Ezaugarri nagusi hauek dituzte gazte horiek guztiek: mendetasun handia, autonomia personal urria, autoestimazio txikia, enpatiarik eza, agresibitate-maila handiagoak, familiaren gizarte- eta ekonomia-maila handiagoa, guraso bakarreko familien prebalentzia, eta familiaren barneko indarkeriazko bestelako esperientziak dituztenak, gurasoen artean eta gurasoen eta adingabeen artean. Azken horri dagokionez, nabarmentzekoa da azterlan honek berretsi egin duela familiaren barneko indarkeria (bikotekideen artean eta bikotearen eta seme-alaben artean —lehena bigarrenari nagusitzen zaio—) arrisku-faktore garrantzitsua dela seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeria garatzerakoan. Faktore hori askoz ere gehiago ageri da Familia Indarkeriaren taldean bestelako delituak egiten dituzten adingabeen taldean baino. Kasu guztietan ez bada ere, familia barneko indarkeria ikusi edo bizi izanak indarkeriazko portaerak ikastea dakar berekin.

Gainera, kasu gehienetan eraso jasandako gurasoak ahalegindu ziren adingabe horiek tratamendu psikologiko baten eraginpean jartzen, salaketaren aurretik.

Bestelako aldagaiei dagokienez, eskolara egokitzeari eta ikasteko zailtasunei dagokienez, esaterako, nerabe horiek gainerako nerabeenen antzeko profilak ageri dituzte.

2.1.4. Neurri-aniztasuna pertsona bakoitzeko

Datuek berretsi dutenez, hutsegite edo delitu bat egiten duten adingabe gehienek ez dute berriro egiten.

Gazte Justiziaren Zerbitzuan aurkeztutako 1.059 neurri irmoak 625 pertsonak bete zituzten, eta, beraz, horren arabera, pertsona bakoitzeko 1,7 neurri ezarri ziren.

Neska-mutilen % 66,72ri neurri irmo bakar bat ezarri zitzairen. Neurri bat edo bi bete zituztenak kontuan hartzen baditugu, pertsona guztien % 84,96 bilduko dugu (531).

Delituan EZ BERRERORTZEAREN gehiengoaren errealitate horren beste muturrean, 33 neska-mutilek osatutako talde bat dugu —gutzizkoaren % 5,28—; gazte horiek neurri irmoen % 22,28 (236) berenganatu dute. Talde horrek delitu-errepikapen maila oso altua dauka, urte berean 5 neurri baino gehiago ezarri baitzaizkie.

2007. urtean 642 adingaberi ezarritako 1.080 neurri irmo jaso ziren, hau da, pertsona bakoitzeko 1,68 neurri batez beste.

Pertsonen % 64,64k (415) neurri bakar bat dauka aldi horretan; % 83,48k neurri bat edo bi dauzka aldi horretan. Eta % 7k (45 adingabe) 5 neurri edo gehiago dauzka aldi horren barruan.

Gainera, etorkizun negatiboa dute, ez bakarrik delituan berrerortzeagatik, baizik eta, oro har, honako arrazoi hauengatik ere: eskola-porrot goiztiarra, delitu-aniztasuna, oso gaztetan — 14 urte bete baino lehen— delituak egiten hastea, familia-euskarririk eza edo familia-euskarri eskasa, eta abar.

2.2. 2004-2007 Planaren ebaluazioa

2.2.1. Planaren Helburuen ebaluazioa

2.2.1.1. I. helburua: *Bitartekotza-programak sendotzea*

Bitartekotza-programak sendotzea, erreforma-espeditente guztien % 35eko mailari eutsiz, Planean bilduriko zenbait jardunen bitartez.

Euskal Autonomia Erkidegoan, adiskidetzeko eta kaltea ordaintzeko bitartekotza-prozesuak Talde Psikosozialtako profesionalek gauzatzen dituzte, eta talde horien antolamendua Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren mende dago, eta, organikoki, Giza Baliabideen Zuzendaritzaren mende. Talde horiek dira 5/2000 Lege Organikoak Lantalde Teknikoei esleitzen dizkien eginkizunak betetzen dituztenak.

2004-2007 erreferentziazko aldian, 4.325 neurri ezarri ziren, eta 1.698 adingaberekin bitartekotzako edo kalte-ordainketako prozesuak jarri ziren abian. Zifra horien arabera, deskribaturiko prozesuak esku-hartzeen % 28,19 izan dira.

Aldi honetan jaitziera nabarmena nabari da 2000-2003 aldiaren aldean, hartan % 40 inguru izan zirela kontuan hartzen badugu. Joera-aldaketa 2003an nabarmentzen hasi zen, eta gaur egunera arte iraun du.

2007. urtean, 414 adingabe egon ziren bitartekotzako edo kalte-ordainketako prozesuetan, eta neurriak, berriz, 1.147 izan ziren. Biak batzen baditugu (1.561) zera ikusten dugu, bitartekotzak/kalte-ordainketak % 26,52 direla, oso urrun beraz Planean ezarritako

% 35eko helburutik. Bitartekotzara/kalte-ordainketara bideratzea Fiskaltzaren erabakia dela aintzat hartuta, bideratzeko irizpideen bilakaeran bilatu beharko da arrazoa.

Judizioz kanpoko kalte-ordainketak eta bitartekotzak sorrarazi dituzten arau-haustek honako hauek izan dira, prebalentzia-ordenaren arabera: eraso eta lesioak, kalteak, ebas-ketak, mehatxu eta irainak, eta lapurretak. Gauzen aurkako delituek indar handiagoa dute (% 54,02). «Harreman-arazo» deiturikoak (irainak, mehatxuak, erasoak eta abar) ia % 42 dira. Bitartekotza, zentzu zabalean, aukera egokia izan daiteke nerabeen arteko harreman-gatazka larriak konpontzeko esku hartzerakoan.

Talde Psikosozialek aurkezturiko datuen arabera, prozesuen % 84 baino gehiago ondo amaitu dira, eta gainerakoek adingabeen edozein zigor-prozeduraren bide estandarra hartu dute. Datuek argi eta garbi erakusten dute gero eta gutxiago direla gaizki amaitzen diren prozesuak, eta 2007an mailarik txikiena lortu dute: % 8,7. Informazioa jasotzeko irizpideak aldatu egin dira, eta horrek eragin handiagoa izan du fenomeno horretan joera-aldaketak baino. 2007. urtetik aurrera, Talde guztietan, behin hasi ondoren, markatutako helburuak lortu gabe amaitzen direnak bakarrik kalifikatzen dira «negatibo» gisa.

Aldez aurretik adierazitakoa oinarritzat hartuta, hurrengo aldian honako hauek bete beharko dira: Legeak Lantalde Teknikoei ematen dizkien aukerak bereiztea, prozesu horien sakoneko ebaluazioa egitea, prozesua Justizia Konponarazle edo Berrezartzailaren ikuspegitik aztertzea, jarduneko irizpide eta prozedura komunak ezartzea eta informazioa bilatzeko tresnak zehaztea.

2.2.1.2. II. helburua. Ingurune irekiko eredu integrala

Ingurune irekiko jardun integraleko eredia eraikitzea, esku hartzeko lehentasunezko aukera gisa, nerabeekin lan egiten duten gainerako sistema eta erakundeekiko inplikazio eta koordinazio argitik abiatuta.

- Ingurune irekiko neurriak gehi bitartekotzak esku-hartze guztien % 90 izateari eustea.

Barnertze-neurriak 635 dira, hau da, % 10,51, eta horrenbestez helburua ia-ia bete dela esan daiteke, gainerakoak % 89,49 direla aintzat hartuta.

- Ingurune irekiko neurriek honako ehuneko hauek izan dituzte, Plana indarrean egon den lau urteetan:

	2004		2005		2006		2007		2004-2007	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Gizarteari laguntzea	430	% 55,0	506	% 59,7	469	% 60,8	444	% 53,0	1.849	% 57,1
Kaut. zaintzapeko askatasuna	12	% 1,5	21	% 2,5	18	% 2,3	29	% 3,5	80	% 2,5
Zaintzapeko askatasun irmoa	248	% 31,6	180	% 21,3	189	% 24,5	187	% 22,3	803	% 24,8
Gizarte eta hezkuntza arloko zereginak	66	% 8,4	95	% 11,2	73	% 9,5	141	% 16,8	375	% 11,6
Tratamendu ambulatorioa	25	% 3,2	33	% 3,9	16	% 2,1	10	% 1,2	84	% 2,6
Eguneko zentrora joatea	2	% 0,3	12	% 1,4	6	% 0,8	27	% 3,2	47	% 1,4
Guztira	783	% 100,0	847	% 100,0	771	% 100,0	838	% 100,0	3.238	% 100,0

- Erakunde publiko eta pribatuekin lan egiteko aukera sustatzea, gizartearentzat lan egiteko, zaintzapeko askatasunak ezartzeko, eta hezkuntza- eta gizarte-arloko zereginak eta tratamendu ambulatorioak egiteko.

Ingurune irekian hainbat neurri hartu direnez, ezinbestekoa gertatu da hainbat erakunde publiko eta pribaturekin, prestakuntza-zentrotarekin, psikologia-kabineterekin harremanak ezartzea eta abar, betearazi beharreko neurriaren, neska edo mutilaren egoeraren, eskuragarri zeuden baliabideen arabera eta abar.

Laburpen gisa, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Gizartearen mesederako prestazioak egiteko, ehun erakunde baino gehiagoren laguntza lortu da, eta erakunde pribatuak nagusi izan dira horien artean.
- 2007. urtean jarraian zerrendatzen diren entitatearekin lankidetzaz hitzarmenak sinatu dira, gizartearentzat lan egiteko zein zeharkako kalte-ordainketak egiteko (azken horiek Talde Psikosozialen bitartez egiten dira):
 - EUDEL (Euskal Udalen Elkarte).
 - Emausko trapu-biltzaileak.

- Zuzenak Fundazioa.
- Bizkaiko Zakur eta Katuentzako Harrera eta Adopzio Zentroa (CAPEGABI).
- María Auxiliadora Gazte Zentroa.
- Metro Bilbao.
- Garbiker.

Laster beste hiru entitaterekiko konpromisoa itxiko da.

Neurri honek arrakasta izan dezan, zeregina ongi hautatu behar da, eta hainbat entitatearen laguntza eduki behar da eskura, profesional kualifikatuek gazteei lagun diezaieten prestazioak egiterakoan.

- Tratamendu ambulatorioak egiteko, sistema publikoak hutsune handiak dituela ikusirik, Fundazioetara, Elkarteetara edo profesional liberalenagana jo behar izan da tratamendu horiek egiteko.

Laguntzaileen zerrenda luzea da, erantzuna eman beharreko problematika, helbidea eta abar aintzat hartuta, baina honako hauek nabarmendu behar dira:

- Aialde (Donostia).
 - Osasun Ekintza (Zumarraga - Ibaiondo HZ).
 - Etorikintza (Bizkaia).
 - Biko Arloak (Bizkaia).
 - Familia Terapiako Euskal Herriko Elkarte (Bizkaia).
- Zaintzapeko askatasunek eta gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginek harremanak ekarri dituzte honako hauekin: hezkuntza formalaren inguruan jarduten duten erakundeak, zentro publikoak eta pribatuak, lanbide-hastapenerako zentroak, enplegurako eta prestakuntzarako erakundeak (Behargintzak, Sartu, Peñascal Fundazioa, eta abar), EIN, Langai, eta abar.
 - 2003-2004 aldian ingurune irekian hartutako neurrien betearazpenari buruzko ebaluazioa egitea.

Ebaluazio hori Kriminologiako Euskal Institutuak (IVAC-KREI) egin zuen.

Azterketarako honako iturri hauek erabili dira:

- AMIA azterketak (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarrak, Aukerak), zuzeneko bete-arazpeneko eta Gazte Justiziaren Zerbitzuko teknikariek.
- Elkarrizketa irekiak: epaileak, fiskalak, talde psikosozialak, betearazpen-teknikariak eta abar.
- Gazte Justiziaren Zerbitzuaren memoriak.
- AGIS-Project «Juvenile justice systems in Europe».

Maila bakoitzean honako jardun-ildo hauek planteatu dira.

- Zerbitzuen kalitatea bermatzea, prozeduretako hobekuntza-prozesuak eta profesionalen prestakuntza jarraitua tarteko.

5/2000 Lege Organikoa garatzeko Arautegian ezarritako prozedurei buruzko argibidea eman da.

Ebaluazio-jardueri dagokienez, ez da baterako jarduerarik garatu. Kanpoan antolatutako zenbait ekitalditara joan gara. Bestetik, hitzarmena sinatu duten entitateek prestakuntzako gutxieneko ordu kopuru bat bermatu behar diote urtean eremu horretan jarduten duen pertsona bakoitzari (30 ordu).

- 2004ko bigarren seihilekoan Eguneko Zentro bat sortzea Bizkaian.

2004ko urrian Zabalik Eguneko zentroa jarri zen abian Basaurin (Bizkaia), 15 plazarekin. 2007ko bigarren seihilekoan plaza kopurua handitu da (orain 20 plaza dauka). Profesionalen kopuruak ere gora egin du: lehen 5 ziren; orain, aldiz, 8.

2007ko urrian Uribarriko Eguneko Zentroa jarri zen martxan, 4 plazarekin.

Helburu hau aztertu ondoren laburpen bat aurkezten dizuegu, ingurune irekiko neurri bat amaitu zuten neska-mutilen profilaria buruz. Gainera, behin neurria amaitutakoan gazte horiek zer egoeratan geratu diren ere adierazi dugu laburpen horretan.

2003. urtean ingurune irekiko neurria amaitu duenak honako profil hau dauka:

- % 87,6: mutilak dira.

- % 78,4 Euskadin jaio dira.
- % 59,2 2 anai-arreba edo gehiago ditu.
- % 40,6 egoera sozioekonomiko eskasean daude.
- % 22,4 familia desegituratu batetik datoz.
- % 51,1 loturak hautsi ditu.
- % 18,8 senitarteko baten desagertze traumatikoa jasan du.
- % 15,8 abandonua jasan du.
- % 13,2 familiaren barneko tratu psikiko txarrak jasan ditu.
- % 5,7 familiaren barneko tratu fisiko txarrak jasan ditu.
- % 27,2 osasun fisikoko arazoak dituzten gurasoak/ zuzeneko senitartekoak ditu.
- % 19,7 osasun mentaleko arazoak dituzten gurasoak/ zuzeneko senitartekoak ditu.
- % 14,7 delituak egin dituzten zuzeneko senitartekoak ditu.
- % 15,7 toxiko-kontsumoak dituzten zuzeneko senitartekoak.

Betearazi ondoren neurriak eragin duen inpaktuari dagokionez, honako ondorio hauek atera ditzakegu:

- Autokontrola hobetzen du eta oldarkortasuna murrizten.
- Toxiko-kontsumoa murrizten du.
- Arrisku-harremanak murrizten ditu.
- Osasun mentala eta hiperaktibitatea hobetzen du.
- Eskola-egoera hobetzen du.
- Helduen kontrol-egoera hobetzen du.

Neurria amaitu denetik hiru urtetik lau urtera bitarte igaro direnean, errepikapen globaleko tasa % 21,7 da. 2003an neurri bat amaitu zuten adingabeen % 78,3k ez zuen delitu bat ere egin 2006ko abenduaren 31ra arte.

2.2.1.3. III. helburua: Hezkuntza-zentroen sarea garatzea

«Gazte Justiziaren sistema hezkuntza-zentroen sare batez hornitzea, barneratze-neurriak behar bezala betetzeko aukera bermatzeko moduan, hezkuntza- eta gizarteratze-ikuspegitik begiratuta».

- Justizia Ministerioarekin bidezkotzat hartzen diren kudeaketak egitea, 7/2000 Legeak aldatu duen 5/2000 Legea aplikatuz terrorismo-delituengatik epaituak diren eta Euskadin bizi diren adingabeei loturik Auzitegi Nazionalaren Adingabeen Epaitegi Zentralak emandako barneratze-neurriak Euskal Autonomia Erkidegoko zentroetan bete daitezen ahalbidetzeko.

Adingabeen Erantzukizun Penalari buruzko Legeak Justizia Ministerioari aukera ematen dio Autonomia Erkidegoekin akordioak egin ditzan neurri horiek betearazteko. 2006ko martxoaren 15ean, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, lan eta Gizarte Segurantza sailburuak Justizia ministro López Aguilar jaunari 8/2006 lege Organikoak aldaturiko 5/2000 Lege Organikoaren 10. artikuluaurrekaria aplikatzeko eskaintza egin zion (garai hartan indarrean zegoen 4. xedapen Gehigarria).

2008ko apirilaren 24an, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailean erantzuna jaso zen. Dagozkion negoziazioen ondoren akordio bat lortu da, eta Justizia Ministerioak, Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioak, eta Lan, Justizia eta Gizarte Segurantza Sailak Hitzarmena sinatu dute —2008ko irailaren 9an Gobernu Kontseiluak emandako Erabakiaren bitartez baimendua—. Hitzarmena indarrean egongo da abenduaren 31ra arte, eta alderdiek adosten badute luzatu ahal izango da; izan ere, horrela egin zen 2009 urterako.

- Gazte Justiziaren hezkuntza-zentroen sare espezifikoaren zehaztea honako parametro hauei jarraiki:

Gazte Justiziaren Zentroen sare bat zehaztu da, barneratzeko eta asteburuko egonaldiko neurriak betearazteko, eta hiru mailatan egituratu da. Gazte Justiziako zentroen sistema Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzak diseinatu du. Kualifikazio ekonomikoari buruzko idatz-zatien adierazten denez, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zentroen azpiegiturak egiteko, egokitze-lanak egiteko eta ekipatzeko erantzukizuna bere gain hartu du, urriaren 18ko 315/2005 Dekretuarekin bat etorritz.

Hezkuntza zentroak eta autonomia egoitzak		2004	2005	2006	2007
I. maila	Ibaiondo HZ	14	21	27	34
II. maila	Uribarri HZ	6	—	—	14
	Mendixola HZ	12	12	12	—
	CEMAR	7	7	7	7
	Andoiu	7	7	7	7
III. maila	Bilboko AE	4	4	4	6
	Donostiako AE 1	—	4	4	4
	Donostiako AE 2	—	—	—	6
	Gasteizko AE	4	4	4	4
Guztira		54 plaza	59 plaza	65 plaza	82 plaza

VIII Legegintzaldirako (2005-2009) Gobernuaren Koalizio Akordioak, «Justizia Administrazio eraginkor eta demokratiko baten» konpromisoan, honako hau aurreikusten du: «2008-2012 Gazte Justizia Plan berria egitea eta Adingabeen Zentrozen berritze- eta birgaitze-prozesuekin jarraitzea (Landa, Ortuella eta Aramaio)».

Gaur egun, Landako Adingabeen Zentroa Uribarri Hezkuntza Zentroa da eta Arabako Uribarri-Ganboa herrian aurkitzen da; Ortuellan (Bizkaia) kokatutako Zentroa Miguel Ángel Ramírez Hezkuntza Zentroa (CEMAR) da; eta Aramaion (Araba) kokatutako Adingabeen Zentroa Mendixola Hezkuntza Zentroa da. Landako (Uribarri HZ) eta Ortuellako (CEMAR) berritze- eta birgaitze-prozesuak amaitu dira; Aramaio (Mendixola HZ) prozesua 2009. urtean egiteko dago.

Azken lau urte hauetan zenbait aldaketa adierazgarri gertatu dira Gazte Justiziako ikastetxeen sarean:

I. mailan (Ibaiondo hezkuntza-zentroa), 2004an 7 plaza zeuden, eta 2007an, aldiz, 34 plaza.

- 2005eko ekainetik, zentro hori zuzeneko kudeaketa publikokoa da.
- 5 hezkuntza-talde ditu, honako plaza kopuru hauekin: 8-7-7-7 eta 5. Azken talde hori espezializatua dago barneratze terapeutikoak betearaztean.

II. mailan (Mendixola, Uribarri, Miguel Angel Remírez —CEMAR— eta Andoiu hezkuntza-zentroak) honako aldaketa hauek gertatu dira:

- Uribarri ikastetxeak 9 hilabetez jardun zuen 2004an, gehienez 6 neska-mutil bilduz. Urrian itxi egin zen, birmoldatze- eta egokitze-obrak hasteko. Obrak 2007ko irailean amaitu ziren, eta harrezkero Zentroak 14 plaza ditu barneratzeko, eta 4 eguneko zentrora bertaratzeko.
- Mendixola Ikastetxeak gehienez 12 neska-mutil hartu zituen aldi berean 2007ko irailera arte. Une horretan, itxi egin zen, birmoldatzeari ekiteko. Obrak hasi artean, zentroan asteburuko egonaldiak betetzen dira (6 plaza).
- Andoiu ikastetxea adingabeen arretarako zentro espezifikoa izan da aldi osoan, 7 plazarekin.
- CEMAR ikastetxea sakonetik birmoldatu zen, eta harrezkero 7 plaza ditu.

III. mailan (Autonomia Egoitzak), 2004ko urtarrilean 8 plaza zeuden; 2007ko abendutik, aldiz, 20 plaza daude.

- Bilboko Autonomia Egoitza: 2007ko azken seihilekoan, 4 plaza edukitzetik 6 plaza edukitzera igaro zen. Mistoa. III. maila. Tokiz aldatu da.
- Donostiako Autonomia Egoitza 1: 4 mutil har ditzake aldi berean, erregimen irekian edo erdirekian. III. maila. 2004. urtearen amaieran ireki zen.
- Donostiako Autonomia Egoitza 2: 6 neska-mutilentzako edukiera du. Mistoa. Erregimen irekian, erdirekian edo hezkuntza-talde batekiko bizikidetzan. Sem-alaben eta gurasoen arteko indarkerian espezializatua. 2007ko irailean ireki zen.

2004ko urtarrilean 47 plaza zeuden guztira; 2007ko abenduaren 31n, aldiz, 82 plaza, eta horrek esan nahi du plaza kopurua % 74,5 igo dela.

Ondorioz, Neurriak Betearazteko 2004-2007 Planean aurreikusitakoaren arabera, aurreikusitakoa neurri handi batean bete dela esan dezakegu. Bizkaiari ezinezkoa izan da beste ikastetxe bat irekitzea, ez delako toki egokirik aurkitu, Lurraldean azpiegitura egokirik ez dagoelako, higiezinen merkatuak mugak dituelako. 2004an beste ikastetxe bat ireki nahi zen, Diman, eta salerosketa-kontratua egin zen, eta

gainera Alkatetzak laguntzak eskaini zuen hasiera batean. Alabaina, auzokoak aurka azaldu ziren, eta udalak laguntza atzera bota zuen; ondorioz, proiektua ezin izan zen aurrera eraman.

Mendixola hezkuntza-zentroari dagokionez, 2006tik aurrera 10 plaza edukitzea aurreikusten zen. Alabaina, hezkuntza-zentro osoa birmoldatzeko obrak atzeratu zen, eta, ondorioz, ezinezkoa gertatu da aurreikuspena betetzea. Hezkuntza-zentro baten xedeak behar bezala betetzeko, hezkuntza-zentroak birgaitze integrala eta egokitzapen orokorreko obrak behar ditu, baina, obrak hasi aurretik, Aramaioko Udalak beharrezko lege-tramiteak egin behar ditu. Une honetan, Uribarri hezkuntza-zentroa ireki ondoren, asteburuko egonaldiatarako soilik erabiltzen ari da, birmoldatze-obrak hasi arte.

Bestetik, III. Mailako plaza kopurua handitu behar izan da, batetik, Donostian aurreikusi gabeko 2. Autonomia Egoitza sortuz, familiaren barneko indarkerian espezializatua, eta, bestetik, Bilboko Autonomia Egoitzaren kokapena aldatuz eta plaza kopurua gehituz (lehen 4 plaza zeuden; orain, berriz, 6).

2.2.1.4. IV. helburua: Inoren kargura ez dauden atzerritar adingabeak

Zigor-zehapena jaso duten eta inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrek babesgabezia-egoera berezian daude, hau da, kolektibo bereziki kaltebera osatzen dute. Hortaz, arreta berezia eskaini behar zaio kolektibo horri, zailtasun berezia agertzen duelako Gazte Justiziaren hezkuntza-eginkizunari eta bergizarteratzeari begira.

2004/2007 Planean aurreikusitako jardunak behar bezala bideratzeko ahalegin handiak egin badira ere, inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrei Gazte Justiziatik eskaintzen zaien laguntza baldintzatuta dago erabat kolektibo horrek beste instantzietatik jasotzen duen erantzunagatik.

Planetik eta Jaurilaritzaren ekintzatik kanpoko baldintzatzaileak honako hauek dira: batetik, atzerritarrei buruzko legeria, eta, bestetik, inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarren tutoratzearen ardura duten erakundeen jarduna.

Zailtasun nagusiak honako hauek izan dira:

- Prozesu horiek ez arautzeak edo atzeratzeak edozein esku-hartzeren porrota eragin dezake askotan.

- Nerabeek 17 urte eta 3 hilabete bete badituzte eta oraindik arautze-prozesuan sartu ez badira, nerabe horientzat ia ezinezkoa da egoitza- eta lan-baimena eskuratzea.

Alde handia dago Gazte Justiziaren baliabideen eta Foru Aldundien mendeko egoitza-baliabideen artean, azpiegiturei, langile-ratioei eta beste alderdi batzuei dagokienez. Hala ere, egungo araudiak eta adierazitako instituzioen ekintza-planek bilakaera nabarmena egongo dela aurreikusten dute.

Gazte-justizian, honako datu hauek jaso dira atzerritar adingabeen inguruan:

Neurria	Jaioterria	Euskadin jaiotakoaren %	Estatuan jaiotakoaren %	Atzerritarren %	
				Orokorra	Magreb
Gizartearen Mesederako Prestazioak		64,7	3,5	31,8	14,59
Zaintzapeko askatasuna		73,5	10,7	10,8	5,3
Barneratzea		59	10,9	30,1	23,1
Tratamendu ambulatorioa		100	0	0	0
Gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginak		68,5	6,85	24,65	12,32
Asteburuko egonaldia		56	10,2	43,8	28
Kautelazko zaintzapeko askatasuna		77,8	11,1	11,1	5,6
Kautelazko barneratzea		30	6,75	63,3	43,3
Guztira		66,19	8,51	26,94	16,53

Ikus daitekeenez, epai bidez edo kautelaz neurri bat ezarri zaien adingabe gehienak (% 66,19), hau da, hirutik bi, Euskadin jaio dira. Hala ere, esan beharra dago atzerritarrek gehiegizko ordezkaritza dutela (% 26,94) nerabe guztien ehunekoaren aldean jartzen baditugu.

Neurria zenbat eta murriztaileagoa eta larriagoa izan, nesken gehiegizko ordezkaritza hori orduan eta nabariagoa da Hala, kautelazko barneratzeari dagokionez, atzerritarrek % 63,3 dira; Asteburuko egonaldietan % 43,8; eta, Barneratze irmoan, % 30,1. Nolanahi ere, esan beharra dago Gizartearen mesederako prestazioen neurrian ere atzerritarren presentzia kontuan hartzekoa dela (% 31,8)

Atzerritar gehienak Magrebekoak dira, marokorrek bereziki .

Gaszte Justiziako esku-hartzean nabarmentzekoa da kolektibo horretan atzerritarrek batez bestekoa (% 26,94) baino presentzia handiagoa dutela honako neurri hauetan: kautelazko barneratzea, asteburuko egonaldia, gizartearen mesederako prestazioak, eta barneratzea.

Hori logikoa da, gaszte horietako gehienen baldintza subjektiboak aintzat hartuta: familia-egiturarik, sustraitzerik eta kontrolik eza, eta abar. Ezaugarri horiek, egotzitako edo egin-dako delituarekin batera, ezarri beharreko neurria baldintzatzen dute normalean.

Etorkizunean eremu horretako jarduna planifikatzeko, kontuan izan behar da ekintzak erakunde arteko mailan eta politikaren eta legegintzaren mailan egin beharko direla.

2.2.1.5. *V. helburua: Beste erakundeekiko koordinazioa*

A. Foru Aldundiak

Funtsean, koordinazio-helburua Foru Aldundiei dagokie, erakunde horiek baitira eskumen nagusiak dituztenak haurrak babesteari dagokionez (Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldatzen dituen Adingabearen Babes Juridikoaren urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa).

Eskumenen aldiberekotasuna eta koordinazio-premia Haurrak eta Nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 103. eta ondorengo artikuluetan adierazten da.

Azken aldian, Bizkaiko Foru Aldundiak sorturiko Nerabe eta Haur Kontseiluan parte hartu du Sailak. Kontseilu horretan hainbat erakunde eta elkarte biltzen dira, hala nola, Aldundia bera, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Osasun Saila, EUDEL (Euskal Udalen Elkartea), UNICEF eta Agintzari.

Era berean, Justizia Sailburuordetza Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialeko kide da, Haurrak eta Nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 102. artikuluan aurreikusia.

Erakunde arteko koordinazioak eta hainbat gizarte-sektoreen parte-hartzeak funtsezko ildo estrategikoa behar du hurrengo aldian, eta ekintza zehatzak eraman behar dira aurrera, hala nola koordinazioko eta gizartean parte hartzeko foro espezifikoak eratzea.

B. *Udalak*

2007an garrantzizko lankidetzaz-ildo bat abiatu zen, EUDELekin Gizarteari Laguntzeko Hitzarmena sinatu baitzen.

2.2.1.6. *VI. helburua: Gazte Justiziaren Zerbitzua*

«Gazte Justiziaren Zerbitzua dagozkion eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren giza baliabide, eta baliabide tekniko eta materialez hornitzea».

2005ean, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duen urriaren 18ko 315/2005 Dekretuaren bitartez, Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzak —Dekretu horren bitartez sortu zen— bere gain hartu zituen iraungita dagoen Giza Eskubideen eta Justizierekiko Lankidetzaren Zuzendaritzaren eginkizunak, Gazte Justiziari, Doako Justiziari eta Zigor-arloko Justiziari buruzkoak; hortaz, urte horretatik aurrera, Gazte Justiziaren Zerbitzua Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzarena da.

2004-2007 aldiko neurriak betearazteko Planean aurreikusitako plaza-hornidura Plana indarrean zegoen aldian eraginkorra izateko, honako hau zen:


- Gazte Justiziaren Zerbitzuko arduradun 1.
- Zentroen arduradun 1 (sortu berria).
- Gazte Justiziako abokatu 1.
- Ingurune Irekiko Neurrien Arduradun Koordinatzaile 1:
 - Arabako lurralde-arduradun 1.
 - Bizkaiko 2 lurralde-arduradun.
 - Gipuzkoako lurralde-arduradun 1 (lan-arlokoa).
- 3 administrari laguntzaile (2 sortu berriak).

2007. urtearen amaieran honako plaza hauek zeuden:

- Gazte Justiziaren Zerbitzuaren arduradun 1 (Gizarte Gaietako arduraduna).
- Gizarte Gaietako 3 teknikari³.
- Gazte Justiziako abokatu 1.
- Bizkaiko 2 lurralde-arduradun (Gizarte Laguntzako teknikariak).
- Gipuzkoako lurralde-arduradun 1 (Talde Psikosozial Judizialeko lan-kontratudun langileak).
- Administrari laguntzailea 1.

Egitura egonkor hori prozesu-kudeaketako teknikari-lanpostu batekin indartu da. Era be-rean, beste administrari-laguntzaile bat dago.

Honako hau da egungo antolaketa-egitura:



³ Gizarte Gaietako teknikariaren 3 plazak ingurune irekiko neurriak betearazteko definitu dira. Lehen Zentroetako arduradun-plaza zena, funtzio-azterketen ondoren, desagertu egin zen eta orain ingurune irekiko neurrietarako Gizarte Gaietako teknikari gisa definitzen da.

2.2.1.7. VII. helburua: Arauaren garapena

Gai honetan aplika daitekeen legeria, hots, 5/2000 Lege Organikoa, uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuak (abuztuaren 30eko BOE, 209. zenbakia) garatu zuen eta Dekretu horri EAeko gazte-justiziaren prozedurak egokitu zaizkio.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2005. urtean, Eusko Legebiltzarrak Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko 2005eko otsailaren 18ko 3/2005 Legea eman zuen. Lege horren helburua honako hau zen: haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteari dagokion erreferentzia-esparru orokorra ematea Euskal Autonomia Erkidegoari.

Lege horren 109. artikulua Administrazioari agintzen dio beharrezkoak diren betekizunak arauz ezartzeko «arau-hausle adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta eskaintzeko arloan diharduten erakundeak» antolatzeko aukera izan dezaten, Lege horretako 88. artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera, «Adingabeen Epaileek hartutako neurriak ez ezik kalteak konpontzeko eta biktimarekin adiskidetzeko aurretiazko neurriak ere aplikatzen laguntzeko».

Legezko agindua betetzen duen Arautegia —adierazitako erakunde laguntzaileak baimentzeari, homologatzeari, ikuskatzeari eta erregistratzeari buruz adierazitako baldintzak ezarri— irailaren 30eko 163/2008 Dekretua da.

Lege horretan bertan jardun-eremuak eta Adingabeen Epaitegiak emandako neurriak egikaritzeko modalitateak ezartzen dira eta adingabe arau-hausleen eskubideekiko errespetuaren eta haiei eskaintzen zaien arretaren kalitatea bultzatzeko behar diren bermeak sartzen dira. Horretarako, 3/2005 Legearen 91.2 artikuluan eskatzen zaio «Justiziaren arloan eskumena duen Sailari» zehazteko «erregelamendu bidez askatasunez gabetzeko era bateko eta besteko neurriak betearazteko zentroek zer eskakizun bete behar dituzten baliabide material eta funtzionalei eta giza baliabideei dagokienez. Erregelamendu horretan, berariaz aipatu behar dira adingabeen eta haiei zerbitzu ematen dieten langile profesionalen eskubideak eta betebeharrak; halaber, berariaz aipatu behar da barne-araudi bat edukitzeko beharra, edukiaren aldetik barnetegiaren berezitasunei eta hezkuntza-egitasmoari begira egina».

Horixe izango da neurriak —barneratzea, horren erregimen guztietan, barneratze terapeutikoa, horren erregimenetan, eta zentroan asteburuko egonaldia, hau da, Adingabeen Erantzukizun Penal arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoan egun au-

reikusten diren askatasuna kentzeko neurriak — betearazteko zentroek bete behar dituzten baldintzak arautzen dituen Dekretua; 2009. urtearen hasieran onartuko da, eta une honetan Kontrol Ekonomikoko Txostenaren eta Aholku Batzorde Juridikoaren Txostenaren fasean dago.

Bestalde, 1774/2004 Errege Dekretura egokitzeak ekarri zuen arauak ez diren baina EAEko adingabeen zentroetarako prozedura-eskuliburuak diren testuak egitea: Dizi-plina Araubideari buruzko Eskuliburua eta Segurtasunari eta Zaintzari buruzko Eskuliburua.

2.2.1.8. *Neurrien adierazleei buruzko Eranskina ebaluatzea eta berrikustea*

2004-2007 aldiko Neurriak Betearazteko Planaren eranskinean Gazte Justiziaren Zerbitzuak 5/2000 LOaren 7.3 artikuluko lege-irizpideak zehazteko lege-irizpideak erabat errespetatuz egokienak bezala hartu dituen adierazleak azaltzen ziren, ezarri beharreko neurriari buruz informatzeko duen eskumena erabiliz. Neurri hori 5/2000 Lege Organikoaren 7.3, 27.6, 28.1 eta 2, 35.1 eta 51. artikuluetan ezarrita dago. Irizpide horiek, indarrean dagoen legerian eta gazte-neurriak betearazteko lanarekin eskuratutako esperientzian oinarritzen dira.

Neurriak aukeratzeko adierazleak etengabe erabili dira lau urte hauetan. Kautelazko neurriak, agerraldietako eta entzunaldietako parte-hartzea, neurria aldatzeko proposamenak eta abar zehazteko Gazteen Justizia Zerbitzuari, erakunde publikoa den aldetik, esleitu zaizkion betebeharrak etengabe kontsultatuz eta eztabaidatuz bete dira.

Sor daitezkeen lege-aldaketek eta esperientziak berak eragin dute irizpide horiek berriz ere pentsatu behar izatea. Bilakaera eta aldaketa handienak honako neurri hauetan gertatu dira: pertsonekin, familiarekin edo hezkuntza-taldearekin izandako bizikidetzetan eta eguneko zentro batera joatea agintzen duen neurrian. Gainerakoetan aldaketak txikiagoak dira.

Bestalde, zentroz aldatzeko balio izan du eta oraindik ere balio du. Maila batetik bestera igarotzen da eta egoitza-ingurunetik ingurune irekira. Topagune bat dira, baita gazteekin elkarreragiten duten profesionalen arteko eztabaidagunea ere: lantalde teknikoak, gazte-justiziaren zerbitzuko teknikariak, ingurune irekiko eta zentroetako teknikariak, eta baita epaileak eta fiskalak ere.

Ezarriko den neurria balioesteko tresna hori oso baliagarria denez gero, komenigarria izango litzateke hedatzea eta EAEko Talde Psikosozialekin adostea, eta, ahal balitz, Adingabeen Fiskaltzekin balioestea ondoren. Adierazitako Talde Psikologikoak, antolamenduari dagokionez, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren mende daude, eta organikoki, Giza Baliabideen Zuzendaritzaren mende.

Are gehiago, agenteek neurriak eskatzea eta Epaitegiek neurriak ezartzea egiaz eragin duten irizpideen identifikazioa kriminologia-azterketa sakon baten helburu izan liteke.

2.2.2. Kuantifikazio ekonomikoaren ebaluazioa

2.2.2.1. *Ingurune irekia*

Atal honetan Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak, kontratuen edo hitzarmenen bitartez, «Ingurune Irekiak» eta «Bizkaiko Eguneko Zentroa» kudeatzeko Berriztu Hezikuntza Elkartearen eta Arabako Birgizarteratze Institutuaren eskura jarri dituen baliabide ekonomikoak aztertzen dira, baita Adingabeen Epaitegiek ezarritako neurriak betetzeko kontratatu behar izan diren tratamendu terapeutikoei eragindako gastua ere.

Ingurune Irekiko Zerbitzuak hezitzaileek osatzen dituzte: Hezitzaile horiek honako helburu hauek dituzte: zaintzapeko askatasuneko neurriak betearaztea, gizarte- eta hezikuntza-erloto zereginak gauzatzea, gizartearentzat lan egitea, etxebizitzako asteburuko egonaldiak kontrolatzea eta tratamendu ambulatorioa ematea. Profesional horiek zeregin bikoitza dute: hezikuntza-laguntza eskaintzea eta betearazteari dagokionez ezarritako baldintzak kontrolatzea.

Eguneko zentroetan betetzen dira eguneko zentro batera joateko neurriak eta zaintzapeko askatasuna, baldin eta eguneko zentro batera joateko obligazioa badakar berekin.

Aurreikusitako gastuen eta egindako gastuen arteko aldea 641.293,14 eurokoa da; horrek esan nahi du % 18,51ko goranzko aldea dagoela. Alde hori honako hauen ondorioz etorri da:

- Bizkaiko Eguneko Zentroaren kostuaren ondorioz, Zentro horrek 20 plaza baititu, eta 15 aurreikusi ziren.

- Eskaera igo denez, eta 8/2006 Lege Organikoaren ondorioz hainbat aldaketa egin direnez, taldeak osatzen dituzten profesionalen kopurua handitu delako.
- Tratamendu ambulatorioetan eta esku-hartze psikoterapeutikoetan gastua ustekabean igo delako.

2004-2007 aldiko igoera % 95,74 izan da; igoera hori honako parametro hauek kontuan hartuta azaltzen da:

- 87,7 puntutik 49 gertatu dira Bizkaian baliabide berri batez hornitu delako, Basauriko Eguneko Zentroa, hain zuzen ere. Zentro horrek 2005. urtean 15 plaza zituen, eta 2007. urtetik aurrera, aldiz, 20.
- Hezitzaileen taldeei dagokionez, talde bat gehiago dago 2006an (Gipuzkoa) eta 6 gehiago (2 Gipuzkoan, 3 Bizkaian eta 1 Araban) 2007ko bigarren seihilekoan.
- 2007ko bigarren seihilekoan baldintza ekonomikoak hitzarmen kolektibo berrietako eskakizunetara egokitu ziren, baita hezitzaileek egiten dituzten eginkizunen eta zereginen berezko eskakizunetara ere.
- Esku-hartze terapeutikoak askotan erabili dituzte Epaitegiek, eta horren ondorioz, gastua % 380 igo da.

Abenduaren 31n, taldeen dimentsioak ahalbidetzen zuen Adingabeen Epaitegiek beteazterako eskatutako neurri guztiak betetzea, betiere ezarritako batez besteko parametroen (hezitzaile bakoitzeko 15 kasu) barruan.

2.2.2.2. Ibaiondo Hezkuntza Zentroa

Ibaiondo Hezkuntza Zentroa partzialki hasi zen lanean 2003an, Bizkaiko Birgizarteratzeko Institutuarekin zeharkako kudeaketa-kontratuen bitartez, eta 5 heziketa-taldetik 2 ireki ziren.

2005eko uztailean zuzeneko kudeaketa egin zen Administrazioako berezko langileekin, administrazioako langileak 2004ko abenduan hasi ziren lanean, eta Zuzendaritzako langileak urtarrilean.

Horregatik, 2004an osorik eta 2005ean partzialki, zentroko kudeaketa funtzionamendugastuei egozten zaie (Zerbitzu-kontratua Enpresen Gizarte Erantzukizuneko Institutuare-

kin) eta 2004. urtetik aurrera, pixkanaka-pixkanaka, langile propioak sartu ziren, 2006ko maiatzean Zentroko 5 heziketa-taldeak ireki ziren arte.

Aurreikusitako gastua 11.748.000 eurokoa izan zen 4 urte horietarako; eta azkenean, gastu erreala 11.820.040 euro izan da.

2.2.2.3. *Hezkuntza Zentro Kontratuak/Itunduak*

Ikuspegi kuantitatiboari dagokionez, 2004-2007 aldiko alderdirik aipagarriena da eskuragarri dauden hezkuntza-zentroen kopuruari eta motari dagokionez, aldaketak izan direla:

a) Honako hauek ez dute aldaketarik izan aldi osoan:

- Andoiu Hezkuntza Zentroa, 7 plaza neskontzat. Edozein erregimenetan. II. maila.
- Gasteizko Autonomia Egoitza, 4 plaza, batez ere neskontzat. III. maila.
- Miguel Ángel Remírez Hezkuntza Zentroa, 8/7 plaza mutilentzat, ahal dela erregimen irekia eta erdirekia. II. maila.

b) Honako hauek dira beren edukiera aldatu dutenak:

- Bilboko Autonomia Egoitza. Lehen 4 plaza zituen, 2007ko azken seihilekoan, ordea, 6. Mistoa. III. maila. Honako hau da bere kokapena aldatu duena:
- Mendixola Hezkuntza Zentroa (Aramaio). 2007ko udazkena bitarte, edozein erregimenetako barneratze-neurria zuten mutilak hartzen zituen, eta 12 lagunentzako edukiera zuen. 2007ko urritik aurrera, gehienez 6 lagun hartzen ditu aste-buruko egonaldiak betetzeko.

c) Sortu berriak.

- Uribarri Hezkuntza Zentroa (Uribarri-Ganboan, lehen Landa izena zuen). 2004an behin-behineko gisa jardun zuen 9 hilabetez, eta 6 mutilentzako edukiera zuen, erregimen irekian eta erdirekian. Zentroa goitik behera birmoldatu ondoren, 2007ko udaz geroztik 14 barneratze-plaza ditu, edozein erregimen dutenentzat; nolana ere, erregimen irekikoek lehentasuna dute. II. maila. Halaber, eguneko zentroko 4 plaza ditu.
- Donostiako Autonomia Egoitza 1. Lau mutilentzako edukiera du, erregimen irekian edo erdirekian. III. maila. 2004. urtearen amaieran ireki zen.

- Donostiako Autonomia Egoitza 2. Sei mutil edo neskaentzako edukiera du. Erregimen irekian, erdirekian edo hezkuntza-taldean bizitzea. Seme-alaben eta gurasoen indarkeriaren inguruko problematiketan espezializatuta dago. 2007ko irailean ireki zen.

Zerbitzuen araberako urteko zenbatekoak honako taula honetan bildu dira:

Ingurune irekian gertatzen den ez bezala, zeharkako kudeaketa-zentroen gastua ez da iritsi zeharkako kudeaketa-zentroetarako Planean aurreikusitako zenbatekora, hau da, 2.139.913 eurora. % 14,10eko alde hori ulertzen da Uribarri Hezkuntza Zentroa 2007ko bigarren seihilekora arte ez zutelako ireki, eta Mendixola Hezkuntza Zentroa urte horretako uztailean itxi zutelako, nahiz eta 2006an ixtea aurreikusita zegoen.

2.2.2.4. *Gazte Justiziako Hezkuntza Zentroetako segurtasun-langileak*

Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren konturako segurtasun-langileen gastua 2004-2007 aldian % 77,6 igo da. Igoera hori honako arrazoi hauek azaltzen dute:

- Hezkuntza-talde guztiak Ibaiondo Hezkuntza Zentroan ireki dira.
- Uribarri Hezkuntza Zentroa ireki da.

Gaur egun, Miguel Angel Remírez, Uribarri eta Ibaiondo hezkuntza-zentroek segurtasun-zerbitzua dute.

CEMAR	zaindari 1 egun bakoitzean 14 orduz eta 24 orduz asteburuan eta jaiegunetan
Uribarri	zaindari 1 24 orduz 7 egunetan eta 24 orduz asteburuetan
Ibaiondo	3 zaindari eta erdi 24 orduz eta kamera-laguntzaile 1

Aurreikusitakoa kontuan hartzen badugu, igoera handia izan da; igoera hori Ibaiondo HZko segurtasun-gastuek eragin dute batez ere (3 zaindari eta erdi, eta laguntzailea), baita Uribarri Hezkuntza Zentrokoek (zaindari bat eta zaindari bat asteburu eta jaiegunetan) eta CEMARrekoek ere (zaindari 1, 14 orduz astelehenetik ostiralera eta 24 orduz asteburu eta jaiegunetan).

2.2.2.5. *Gazte Justiziako Hezkuntza Zentroetako obrak*

Gazte Justiziako hezkuntza-zentroetako obrak, mantentzeak, hornidurek eta garbiketarako eragiten dituzten gastuak Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak ordaintzen ditu, eta erreferentziako aldian 5.638.544 euroraino iritsi dira.

Egindako gastuak ezin dira aurreikusitako gastuekin alderatu honako arrazoi hauengatik:

- Mendixola Hezkuntza Zentroa birmoldatzeko obrak ez dira egin.
- Hasiera batean aurreikusi ez ziren beste obra batzuk egin dira Ibaiondo Hezkuntza Zentroan.

Uribarri HZrako (lehen Landa) aurreikusitako gastua 2.972,519 eurokoa zen, eta azkenean 4.262.546 eurokoa izan da.

2.2.3. Ebaluazioaren ondorioak

1. 2000tik 2004ra bitarteko denboraldiko neurrien gorakadaren ondorioz, batez ere baliabideen igoeran oinarritu zen 2004-2007 Plan baten ondoren, 2008-2012 denboraldian, baliabideen eta gastuen igoeraren gaintik, kalitate- eta efizientzia-helburuak ezarri dira, baita prozeduretan sakontzea eta esku-hartzeari nahiz ebaluatzeari buruzko metodologia ere.
2. Aplikatu daitezkeen legeriaren egungo egoera, aldaketa garrantzitsuak egin diren aldia igarotakoan, honako hau da: esku-hartzea igo egin da, batez ere zigorrak ezartzeari eta defentsari buruzko printzipioak oinarri hartuta. Nolanahi ere, praxi egokiak aukera ematen du gazteen justizia politiko-kriminalki bideratzea aplikazioaren eta betearazpenaren eremutik.
3. Aldi honetan 5/2000 Lege Organikoan egin diren etengabeko aldaketek eragotzi egiten dute ebaluazio uniforme bat egitea.
4. Terrorismo-delituei dagokienez, Audientzia Nazionalak EAeko adingabeen gainean duen eskumenari eutsi zaio, eta hori desegokitzat hartu da epai naturalaren printzipioaren arabera, Haurren Eskubideen 1989ko Konbentzioaren⁴ 40. artikularen arabera interpretatuta.

⁴ Ikus Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 14ko 36/1991 epaia.

5. Ez dirudi zigor-arloan gazteen gatazkak nabarmen hazi direnik. EAEn hasiera ematen zaien erreforma-espeditentak jaitsi egin dira, baina betearazteko neurri kopurua hazi egin da.
6. Estatistika judizialean eta fiskaltza-arloko estatistiken heterogeneotasunak zaildu egiten du gazte-justiziaren administrazioa ebaluatzea, baita neurriak betearazteko berezko estatistikak alderatzea ere.
7. Heterogeneotasun nabarmena atzeman da EAeko epaitegietan neurriak aplikatzeari dagokionez, eta baita Lurralde Historiko bakoitzeko Lantalde Teknikoen eta Fiskaltzen artean ere.
8. Arartekoak honako ondorio hau atera du: «adingabeen erantzukizun penala arautzen duen legea aplikatzerakoan oraindik ere gabeziak daude, ez bakarrik erakunde publiko eskudunak baliabide mugatuak dituelako edo antolakuntzako arazoak dituelako —alderdi honetan hobekuntza nabarmenak izan dira—, baizik eta baita sistema judizialak mugak edo jardunbide jakinak dituelako ere».
9. Egitateak gauzatzen direnetik neurria betearazten den arte, batez beste, 10 hilabete inguru igaro dira, eta berehalakotasunak nerabeekiko hezkuntza-lanetan eta esku-hartze sozialetan garrantzi handia duenez gero, denbora hori murriztea ahalbidetuko duten sistemak ezarri behar dira.
10. Urte batzuetan neurriak asko hazi dira (2000. urtean 235 ziren, 2004. urtean, aldez, 1.017, hots, % 333 hazi dira), baina 2004-2007 Planaren indarraldiak irauten duen bitartean, betearazteko neurri kopurua egonkortu egin da, urteko hazkundera % 5etik behera baitago (1.017 neurritatik 1.147 neurritara igaro da).
11. Ingurune irekiko neurriak gehiengoa dira orain ere (% 75), nahiz eta barneratzeei eta, batez ere, asteburuko egonaldiari buruzko hazkundera askoz handiagoa den. Ingurune irekiko neurrien eta barneratze-neurrien arteko proportzio egokiari eusten zaio.
12. Fiskaltzan bideratzen diren arau-hauste gehienak jabegoari buruzko eta indarkeriarik gabeko arau-hausteak dira; kautelazko neurriak indarkeriaz edo larderiez egindako lapurreta-delituen eta familia barneko indarkeriaren kasuetan aplikatzen dira batez ere.
13. Hainbat kolektibori —Inoren Kargura ez dauden Adingabe Atzerritarrak, esaterako— dagokionez, erakunde arteko ekintzak goreneko maila politikoan lan-

tzeko premia dago gizarteratzea lortzeko neurriak betearazteari dagokionez, Herri Administrazioak egiten duen ahalegin neketsuak aurreikusitako legezko helburuak lor ditzan.

14. Heltzeko modu berriak eskatzen dituzten delituen tipologia eta adingabeen profil berriak azaldu dira, hala nola seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeria-kasuak. Seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeriagatiko neurriak nabarmen hazi dira 2003tik 2006ra bitarte, baina 2007an zertxobait jaitsi dira; hortaz, badirudi egonkortzen ari direla.
15. Neurrien batez besteko iraupena igo egin da.
16. Azken aldian jaitsi egin da Hezkuntza Zentroetako okupazio-tasa, % 70etik behera; eta horri esker, neurri guztiak presiorik gabe betearaz daitezke.
17. Gazte justizian sartzen diren adingabeen buru-nahasteak eta jokabide-nahasteak askoz nabarmenagoak dira.
18. Delitu-jarduera handia duten adingabeen ehunekoa txikia da (% 5 inguru), baina inbertsio handia eta ikuspegi espezifikoak behar dute. Bere bizi-egoerak (egoera pertsonala, eskola-, familia-, osasun-egoera...) desegituraketa handia erakusten du eta horregatik esku-hartzea konplexua da.
19. 5/2000 Lege Organikoaren 27. artikuluan eta ondorengo artikuluetan aurreikusitako konponbideen arabera egindako espediente kopuru handi bat mantentzen da (1.215; batez beste, 304 espediente urtean), eta guztira 1.698 laguni eragiten diete (batez beste 425 laguni urtean).
20. Bitartekotzei buruzko datuak biltzeko tresnak ez dira nahikoak eta heterogeneoak dira. Bitartekotza gehienetan arau-hausleak eta biktimak ez dute harremanik. 5/2000 Lege Organikoaren 19. eta 27. artikuluetan aurreikusitako prozesuetan ikusten da ez dagoela irizpideen eta metodologiaren unitaterik.
21. Ingurune irekiko neurria ezartzen zaien adingabeen % 78,3 ez da berrerortzen (3 urtetik gorako jarraipenarekin).
22. Gazte-justiziaren zentroen sarea garatu da ia osorik, eta gaur egun ondo samar betetzen dira barneratze-eskaerak eta asteburuko egonaldiak.
23. Zentroetako Hezkuntza Proiektuak eta barne-funtzionamenduko prozesuak berrikusi eta homogeneizatzeko premia atzeman da.

24. Aldi osoan ez da gauzatu gazte-neurriak betearazteko sisteman lan egiten duten langileentzako Prestakuntza Planik. Bakarrik ekintza puntualak egin dira, adibidez: beste erakundeek antolatutako ekitaldietara bertaratzea, kolektibo jakinentzako ikastaroak...
25. Neurri judizialei lotuta dauden adingabeen % 26,94 atzerritarrak dira. Biztanleria orokorrarekin alderatzen badugu, gehiegi ordezkatuta daude. Egoera sozioekonomiko defizitarioa eta baztertze-arazo garrantzitsuak dituzte. Lege- eta gizarte-arloko egiturak ia oso-osorik eragozten ditu inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrak gizarteratzeko prozesuak. Eragozpen hori handiagoa da egoitza-baimena ez duten pertsonetan.
26. Adingabeen bizitzari dagokionez, esku hartzen duten erakundeen eta agenteen arteko koordinazioa funtsezko elementua da; nolahi ere, oro har, ez dago koordinazio- eta komunikazio-esparru egonkorrik eta eraginkorrik.
27. Neurriak aplikatzeko Adierazleak ezarriko den neurria balioesteko tresna oso baliagarriak direnez gero, komenigarria izango litzateke hedatzea eta EAEko Justizia sailburuordetzaren mendeko Talde Psikosozialekin adostea, eta, ahal balitz, Adingabeen Fiskaltzekin balioestea ondoren.
28. Neurriak betearazteko eskaeraren igoerak, horien iraupenak, profesionalen soldata hitzarmen kolektibo berrien eskaeretara egokitzeak eta neurriak betearazteko baliabidea igo izanak eragin dute urteko kostua % 100 igotzea 4 urtean. Eskaeraren egonkortasun-egoera dela medio, beharrezko baliabideak eta gastua egonkortzea aurreikusten da.
29. Ingurune irekiko neurriei dagokienez, gastuaren inguruko aurreikuspenak gainditu dira, eta aurreikuspen horiek ez dira lortu zeharkako kudeaketa-zentroei dagokienez.
30. Hasiera batean, Ibaiondo Zentroko gastua planifikatutakoa baino txikiagoa zen, baina aurreikusitakoa gainditu da azken bi urte hauetan; era horretan, planean aurreikusitakoa eta gauzatutakoa ia guztiz bat datoz.

3

Jaurlaritzaren plangintza orokorra, Jaurlaritzaren programa eta legegintzaldi honetarako aurreikusitako gainerako arau proiektuak, planak eta jardunak txertatzea

Hitzaurrean adierazitako helburuaz gain, Koalizio Akordioak 2008-2012ko Gazte Justizia Plan honekin lotutako beste helburu batzuk biltzen ditu, honako hauek alegia:

- Giza eskubideen inguruko prestakuntza- eta hezkuntza-programak bultzatzea.
- Giza Eskubideen eta Askatasunen Behatoki bat sortzea.
- Gizarte eta ekonomia arloko laguntzak sendotzea, espetxeetan askatasunik gabe daudenei asistentzia humanitarioa, soziala, sanitarioa eta juridikoa ematearren.
- Ekintza positiboko neurriak garatzea laneratzeko arazoak dituzten giza taldeen alde (emakumeak, iraupen luzeko langabetuak, ezinduak, etorkinak, bazterkeria-arriskuan dauden gazteak).
- Sektore kalteberen gizarteratzea eta laneratzeari, guraso bakarreko familiak eta gazteak batez ere.
- Droga-mendetasunen arloko arreta berezia ematea bazterkeria-arriskuan dauden, kontsumo arazotsuak dituzten eta askatasunik ez duten pertsonen.
- Arlo berean, desabantaila egoeran dauden adingabe eta gazteentzako programak garatzea.
- Haur eta Nerabeen Defentsa Bulegoa sortzea.
- Haur eta Nerabeen Behatokia sortzea.
- Gazteentzako apartamentuen Plan berezi bat bultzatzea.
- Gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden familientzako laguntza-programa espezifikoak ezartzea.

- Eskola-porrota murriztea, prestakuntza-araok dituzten ikasleen artean baliabideak behar bezala banatuta eta tratamendu indibidualizatuak aplikatuta, curriculum desberdineko programen bitartez.
- Gazteentzat enplegu egonkorra eta kalitatezkoa bultzatzea.
- Euskal gazteriaren araudi integrala lantzea, etxebizitzaren, enpleguaren, hezkuntzaren, aisialdiaren eta kulturaren arloko gazte-arazoei modu egonkorrean eta koordinatuan erantzun ahal izateko.

2008-2012 aldiko Gazte Justizia Planak, inplikaturiko Sailen ekimenez, Koalizio Akordioaren helburuak betetzen dituzten ekintzak barnean hartu beharko ditu, zehazki Euskadin oro har bazterkeria-arriskuan dauden gazteei dagokienez.

Kultura Saila, **Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzaren** bitartez, oro har gazteen sektorean bideratzen diren hainbat jardunen sostengua den oinarritzko beste zuta-beetako bat da. Argi dagoenez, pan hau Jaurlaritzaren ekintza-multzoan sartzen da eta lotura nabarmenak ditu Jaurlaritzaren beste plan batzuekin. **Gazte Planarekin** koordinazioak ezartzen dira lehentasunez. Plan horretan ingurune irekiko eta bitartekotzako programei buruzko hainbat ekintza espezifikoki biltzen dira, dagokion aurrekontu-zuzkidurekin.

Jaurlaritzaren beste plan batzuei dagokienez, hala nola Gizarteratze-planak, Enplegu-planak, Justiziaren Modernizazio planak, Bakerako Hezkuntza planak, Droga-mendetasunei buruzko planak, Ijito Herriari buruzko planak eta bestelako planak, aldizkako jarraipena eta koordinazioa dago, eta plan honen subjektuei zuzendutako berariazko ekintzak ez dauden arren, horien sarrera bermatu egin da, plan horietan barne hartutako ekintzen barruan baitaude: kontsumoko problematikak, ijito-herriko kide izatea, bazterkeria-arriskua, langabezia, prestakuntzako gabeziak, baliabide ekonomiko gutxi, zaintzapeko pertsonak edukitzea, etxebizitza eskuratzeko aukeratik baztertuak, eta abar.

Bakean eta Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzaren arloko Euskal Planak plan honen Oinarritzko Estrategia Ildo baten eremuko ekintzak barnean hartzen ditu: gazteen gatazken prebentzioa prestakuntzaren bitartez.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak, **Giza Eskubideen Zuzendaritzaren** bitartez, eskola-sistema formalak (Hezkuntza Saila) eta gazteen sektoreak (Kultura Saila) sortutako guneen koordinatzaile eta dinamizatzaile izateko funtzioa betetzen du.

Hezkuntza Saila, **Hezkuntza Berrizatzeko Zuzendaritzaren** bitartez, hezkuntza formalean jarduna egituratzen duen ezinbesteko orpoa da. Sailaren jardun estrategikoak, gainera, giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzak, curriculumaz ez ezik, ikastetxeen antolamendua eta irakasleen prestakuntza ere eraginpean hartu behar dituela eta, azken batean, giza eskubideak eta bakea ikastetxean eta ikasgelan bizitzea eta praktikan jartzea bilatu behar duela kontuan hartuta bideratzen dira.

Euskal Hezkuntza Sistemak bizikidetzarako eta herritartasun demokratiko, aktibo eta arduratsu baterako hezkuntzaren alde egiten du. Horretarako, hainbat baliotatik abiatuta hezi behar da (hala nola justiziatik, tolerantziatik, errespetutik edo elkartasunetik abiatuta), eta arazoak eta gatazkak konpontzeko, bizitzaren kudeaketa arduraz beren gain hartzeko, bakoitzak bere buruarekin eta gainerakoekin harreman positiboak ezartzeko, erabakiak hartzeko, zentzu kritikoarekin jokatzeko eta ingurunea era sortzailean eraldatzeko ekintzak egiteko beharrezkoak diren gaitasunak garatu behar dira ikasleengan.

2000. urtetik aurrera, «Bizitzarako jakintzak eta trebetasunak» eta «Elkarbizitzarako eta bakerako hezkuntza» programen bidez, honako hiru ildo hauetan egin da lan:

1. Bizikidetzaren positiboa eta indarkeriaren prebentzioa sustatzea: sentsibilizazio-kanpainak, materialak, hezkuntza-komunitatearentzako prestakuntza.
2. Berehalako esku-hartzea tratu txarren kasuan eta berdinen arteko indarkeriako kasuetan: jardun-protokoloak tratu txarren aurrean.
3. ISEI-IVEI erakundeak egiten duen ikerketa (erakunde horren bitartez aztertzen da euskal hezkuntza-sistemaren errealitatea).

Justizia Administrazioarekiko Harremanen eremuan, Gazte Justiziaren arloan eraginda duten bi Plan aurkitzen dira: Euskadiko Justizia Administrazioan Bulego Judizialen eta Fiskaltzen Antolamendu Plana (2008-2010), eta EAEko Justizia Administrazioaren Informatikako eta Komunikazioko IV. Plana (2008-2011). Gazte Justiziako administrazio arinagoa eta helburu horretarako tresna gisa behar bezala informatizatua gauzatzeko helburua Gazte Justizia Planean ere jasotzen da. Egitura Organikoko Dekretuarekin bat etorriz, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzari esleitutako jardunen barruan sartzen dira bi plan horiek, eta Giza Baliabideen Zuzendaritzak, Lanpostuen Zerrendaren bitartez, Justizia Administrazioaren zerbitzupeko langileen lantzetik eta antolamendutik ondorioztatutako alderdietan parte hartzen du, eta baita langile horien prestakuntzatik ondorioztatutako alderdietan ere.

Gazte Justizia Planaren xede-herriaren zati handi batean eraginez, **2007-2009 aldiko Gizarteratzeko Erakunde arteko II. Planak** honako hauek adierazten ditu planaren inspirazio-printzipio gisa: sektore kalteberenen aldeko unibertsaltasuna eta lehentasunezko arreta, eta hirugarren eta laugarren esku-hartze Eremuetan, bazterkeria-arriskuan dauden pertsoneri bideratutako laguntzarako, prestakuntzarako eta enplegurako programak sortzea, eta bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsona eta taldeei bideratutako gizarte-zerbitzuak sortzea.

Era berean, **2007-2010 aldiko Enplegurako Erakunde arteko III. Planak** honako hau definitzen du 2. Ardatz Estrategiko gisa: gazteen enplegarritasuna hobetzea, horien kualifikazioa sustatuta eta lanbide-proiektzio handiena duten okupazioetara bideratuta.

Gazte Justizia Plan honen (2008-2012) betearazpenean, planaren ekintzak planaren xede-herriarentzat aurreikusitakoekin batera integratuko dira **Immigrazioko II. Euskal Planean** (2007-2009) eta **Boluntariotzaren II. Euskal Planean** (2007-2010).

4

EAEko Gazte Justiziaren printzipioak

Gazte Justiziaren esku-hartzea pertsona talde oso mugatu batera bideratzen da: **hamalau urtetik gorako eta hemezortzi urtetik beherako** pertsonak —egitatea egin den unean—, lege penalen arabera, falta edo delitu bat izan daitezkeen portaerak egin omen dituztenak, eta, beraz, adingabeen fiskaltzekin eta epaitegiekin harremanetan jarri direnak, eta, hala badagokio, zehapen eta hezkuntza arloko erantzun bat jaso dutenak.

Hala ere, egitateak egiterakoan pertsonak adinez helduak ziren arren, ezin dugu ahaztu neurria **adin-nagusitasunaren ondoren** hasi edo luzatu ahal izango dela, eta, beraz, erantzukizun penala kontuan hartuta, pertsona hori adingabetzat hartzen da, baina beste auzialdi batzuetan jada ez da adingabea izango, eta, horren ondorioz, haurrentzako prestazioak eta babes soziala izateko eskubiderik ez du izango, eta pertsona helduei dagozkien eskubideak izango ditu.

Garatuko diren planteamendu eta jardun guztien oinarritzko eta ereduzko ardatza pertsona horren **nerabetasuna** da. Heldutasunerako trantsizioko bizitzaren aldi batean dauden pertsonak dira, eta horien bizitzan funtsezkoak dira gatazkak, inguruarekiko borroka eta helduen munduaren aurkako borroka.

Gazte Justiziak —zentzia izan dezan, eta, batez ere, eraginkorra izan dadin— errealitate hori hartu behar du oinarritzat. Martxan jartzen diren erantzunek propioak eta helduentzat diseinatutakoen desberdinak izan behar dute; sormenez eta dinamismoz beteak egon behar dute, eraginkortasuna, zentzia eta pertsonen eta horien inguruaren eraldaketa bilatu behar dute, eta honako aldaketa hauetan oinarritu behar dira: aldaketa fisikoak, kognitiboak, harremanen inguruak, portaerakoak, familiaren eta beste harreman-inguru batzuen barruko kokapenekoak, baldintzenak, eskakizunenak, gabezienak, inguruko mugenak, eta abar.

Hemen garatzen diren **printzipioak** azken urteotan metatutako esperientziaren emaitza dira; indarrean dagoen antolamendu juridikoari eta nazioarteko araudi eta aholkuei

buruzko azterlanaren eta hausnarketaren emaitza; gure gertuko inguruaren esperientzia konparatuen emaitza; esku-hartze berrien konparaketaren emaitza; eta gure tesuinguruaren eta Gazte Justiziarekin harremanetan jartzen diren nerabeen analisiaren emaitza.

Funtsezko **nazioarteko araudi eta aholkuen** artean honako hau aipatu beharra dago: Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa, 1989ko azaroaren 20an Nazio Batuen Batzar Nagusiak emana eta 1990eko azaroaren 30ean Espainiak berretsia; Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 1985eko azaroaren 29ko 40/33 Ebazpena, Adingabeen Justizia Administrazioarako Gutxieneko Arauak onartzen dituena (Beijingo Arauak); Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 45/113 Ebazpena, askatasuna kentzen ez duten neurriei buruzkoa (Tokioko Arauak); Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 45/113 Ebazpena, gazte-delinkuentziaren prebentzioari buruzkoa (Riadeko Zuzentarauak); Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 45/113 Ebazpena, askatasuna kendu zaien adingabeak babesteko.

Europako eremuan: Europako Kontseiluaren Ministro Batzordearen R(87)20 zenbakiko Gomendioa, irailaren 17koa, gazte-delinkuentziaren aurreko gizarte-erreakzioei buruzkoa; Estatu kideen Ministroen Batzordearen Rec (2003) 20 Gomendioa, 2003ko irailaren 24koa, gazte-delinkuentziaren tratamendu-forma berriei buruzkoa, eta gazte-justiziaren paperari buruzkoa; Estatu kideen Ministroen Batzordearen Rec (2006) 2 Gomendioa, Europako espetxe-arauei buruzkoa; eta Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldearen Irizpena (2006/c 110/13), gazte-delinkuentziaren prebentzioari buruzkoa, gazte-delinkuentziaren tratamendu moduei buruzkoa, eta adingabearen justiziak Europar Batasunean duen paperari buruzkoa. Era berean, garrantzia duen testu berri bat dago: Europako Legebiltzarraren 2007ko ekainaren 21eko Ebazpena, gazte-delinkuentziari buruzkoa, eta emakumeen, familiaren eta gizartearen paperari buruzkoa.

Testu horiek guztiek zalantzarik gabe agerian uzten dute gazte-delinkuentziaren fenomenoagatiko arreta eta kezka azken hamarkadetan Europako gizartean hartu duen etengabeko garrantzia. Adierazitako azken Irizpenean, eremu honetan erantzun eraginkorrak hartzeko premia azpimarratu beharra dago; gainera, erantzun horiek honako hiru euskarri nagusi hauetan oinarrituta egin behar dira: prebentzioa, zehapeneko eta hezkuntzako neurriak, eta adingabe arau-hausleen gizarteratzea eta integrazioa.

Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldearen 2006ko Irizpena, gazte-delinkuentziaren prebentzioari buruzkoa, gazte-delinkuentziaren tratamendu moduei buruzkoa, eta adingabearen justiziak Europar Batasunean duen paperari buruzkoa oinarri nagusitzat har-

tuta, adierazitako nazioarteko araudiak, eta zehazki Nazio Batuen 1989ko Konbentzioak, Haurraren Eskubideei buruzkoak, Europako gazte-justiziaren sistemetan etengabe eta bereziki 80ko hamarkadatik aurrera gertatu diren aldaketen lekuko gisa jarduten du, «**erantzukizun-eredua**» izenekoa gaineratuta; eredu horren funtsezko printzipioak honako hauek dira:

1. Prebentzioa errepresioaren aurretik; puntu honetan ezinbestekoa da gizarte, lan, ekonomia eta hezkuntza arloko asistentziarako programa egokiak egitea.
2. Justizia-sistema berriak ezartzea; gazte-delinkuentziaren fenomeno espezifikorako egina eta diseinatua, adingabeen kasuan gerta daitezkeen beste egoera batzuen tratamendua beste eremu batzuetarako utziz.
3. Estatuaren zigortzeko esku-hartzeen murrizketa eta prebentzio-estrategiak aldi berean aktibatzea honako eremu hauetan, esaterako: adingabeentzako asistentzia soziala, gizarte-politika, lan-merkatua, astialdiko eta aisialdiko eskaintzak, eta udal-politika, oro har.

Egia esan, gazte-delinkuentziaren aurka borrokatzeko, gizarteek prebentzio-politikak garatu behar dituzte, adingabe eta gazte guztiak gizarteratzeko helburuarekin, *bereziki familiaren, gizartearen, berdinen taldearen, eskolaren, lanbide-heziketaren edo lan-merkatuaren bitartez*; azken horri dagokionez, laneratzea biztanle talde hau integraziorako eta gizarte-egonkortasuneko guneetara hurbiltzeko ezinbesteko bide gisa ikusteari buruzko adostasun handia dago.

Era horretan, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeak azpimarratu duenez, gatazken konponketan eta aukera bideragarrien bilaketan protagonismo handiagoa ematen zaie gizarteari eta beste gizarte-talde batzuei.

4. Askatasuna kentzeko neurriak albait gehien murriztea, soilik salbuespenezko kasuetara mugatuta.
5. Erreakzio penala malgutu eta dibertsifikatzea, askatasuna kentzeko neurrien ordeztan, adingabearen zirkunstantzia zehatzetara egokitzen diren neurrien bitartez, neurriaren betearazpenaren baldintzen, aurrerapenaren eta bilakaeraren arabera.
6. Prozesu penalean helduei aitortzen zaizkien eskubide eta berme berberak aplikatzea adingabe arau-hausleei (bidezko epaia, inpartziala eta ekitatiboa). Era horretan, adingabeak legearen aurrean duen egoera indartzen da.

7. Gazte-justiziaren sisteman parte hartzen duten gizarte-kontrolako organoen profesionalizazioa eta espezializazioa; horretarako, adingabeen justiziako administrazioan esku hartzen duten profesional eta agente guztiei (polizia, epaiak, fiskalak, abokatuak eta zehazpenak betearazten dituzten profesionalak) prestakuntza espezializatua eman beharko zaie.

«**Gazte-delinkuentziaren prebentzioari**» dagokionez, esan beharra dago prebentziorik hoberena adingabeek jaiotzen direnetik 18 urte bete arte dituzten eskubideak, nazioarteko, estatuko, autonomiako eta tokiko araudiaren arabera, gizartearen aurkako jarrenen prebentzio-ikuspegitik etorkizunera begira ez ezik batez ere orainera begira betetzea dela, zeren eskubideak betetzea helburu bat baita, nahiz eta jarrera irregularrak prebenitzea bigarren mailako ondorioa izan. Horrela, bada, ekintza **adingabe guztientzat** izango da, inolaz ere ez pertsona batzuk hartuz delitu-jokabideak prebenitzeko jardura berezien hartzaille gisa, zeren egiaztatuta baitago seinalatze hutsak lortu nahi diren kontrakoak diren ondorioak eragiten dituela.

Gazteen arau-hausteei erantzuna emateaz arduratzen diren instituzioek ez dute lehen mailako prebentzioan esku hartu behar, aldiz, biztanleria osoan lan egiten duten instituzioek egin beharko dute lan hori, eta lantzen ari garen adingabeen eremuari dagokionez, adierazi beharra dago instituzio nagusia eta garrantzitsuena eskolaren, familiaren eta erakunde mailako babesaren eremukoa dela, eta baita eremu horietan eragiteko eskumena duten instituzioak ere.

Izaera juridikoko nazioarteko jarraibide horietaz gain, Planaren ildo estrategikoak **hezkuntzako eta esku-hartze sozialeko paradigmetan** oinarritzen dira, eta horien baliozkotasuna eta sendotasuna ondo konparatu dira; paradigma horien helburua da nerabeak esku-hartzearen muinean kokatzea, esku-hartzeko ereduaren abiapuntu gisa. Premisa horretatik abiatuta, eredu ikuspegi desberdinetara irekia dago egoeran bakoitzari aurre egiteko, eta, beraz, eredu eklektiko gisa definitzen da, **eredu ekologiko edo sistemikoa nagusituz**, hau da, elkarlotutako harremanen sistema batean integratutako pertsona gisa nerabearen portaeran eragiten duten harreman-faktoreen gaineko esku-hartze integrala oinarritzat duen eredu; adingabearen errealitatea osatzen duten harremanen sistemako zati batean gertatzen diren aldaketek sistema osoan eta sistema osatzen duten pertsonengan eragiten dute.

Printzipioak abiapuntu dinamiko gisa aurkezten dira, globaltasunerako bokazioarekin eta etorkizunean aurkezten diren zirkunstantzia eta eskaera berrietara irekiak, Gazte Justi-

ziako agenteen jardun-multzoa arautu beharko luketen printzipio gisa: epaitegiak, fiskaltzak, lantalde teknikoak, neurriak betearazteko eskumena duen erakunde publikoa, eta 14tik 18 urtera bitarteko biztanleei (gaur egun 70.000 pertsona baino pixka bat gutxiago dira) arreta ematen dieten beste erakunde batzuk.

4.1. Erantzukizun penaleko ereduak: zehazpen- eta hezkuntza-izaera

Haur eta gazteen delitu-portaeren aurrean erakundeek erantzuteko hiru eredu aipatu ohi dira: tutoretza edo babeserakoa, hezitzailea edo asistentziala, eta justizia edo erantzukizuneko, azken mendean izan diren sistemen konparazio-azterketan oinarrituta⁵.

1978tik aurrera, adingabekoen prozedura kuasi penalean aplikatzekoak diren printzipio konstituzional garantistek eta ondoriozko legegintzako aldaketek Adingabekoen Tutoretzako Auzitegien sistema partzialki ukituko dute. Hala ere, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 1989ko azaroaren 20ko Konbentzioa, Umeen Eskubideei buruzkoa, indarrean sartu zen arte (1990eko abenduaren 31ko BOE), Espainian gazte-justiziaren egoera ez zen nabarmenki aldatzen hasi.

⁵ **Tutoretza-ereduak**, laburbilduz, honako ezaugarri hauek ditu: jatorri ideologiko positibista, giza portaeraren interpretazio kausala, esku-hartze publikoaren izaera terapeutikoa, delitu-portaera eta egoera arriskutsuaren sintomatikoak diren portaera-sorta zabal batean esku hartzea, delituari erantzuteko jardueren eta gizarte-babesaren arteko nahasketa, organo ez-judizial edo mistoen eskumena, eta oro har, esku-hartzearen izaera paternalista. **Ongizatea, hezkuntza edo asistentziari loturiko ereduak** gizarte-ongizate maila handia zeukaten herrietan garatu zen 60ko hamarkadan. Honako ezaugarri hauek ditu: aginte publikoen esku-hartzea gizartean egoera txarragoan dauden pertsonen babes eta asistentzian oinarritzea, erantzuna gizarte-ongizateko zerbitzuetan administratibizatzea, gizarte-desberdintasunari eta delituei loturiko arazoan trataera bateratua, eta parte-hartze komunitarioa adingabekoen gaineko esku-hartzean. **Justizia edo erantzukizunaren ereduak** honako ezaugarri hauek ditu: erantzunaren judizializazioa arau-hauste penalen aurrean, helduen judiziamenduan onartzen diren berme formal eta materialak errespetatzea, eredu asistentzian itxuraz bazterturik geratu ziren gizarte babesteko beharrianak indartzeko asmoa, eta beren ekintzengatik adingabekoen erantzukizuna onartzea. Ñabardura handiekin bada ere, mendebaldeko ordenamendu gehienek gaur egun eredu hau erabiltzen dute.

Gaur egun indarrean dagoen eredia erantzukizunezko eredia da, hau da, botere judizialak, lege penal baten aplikazioaren ondorioz, penalki legez kanpoko den egitate bat egiteagatik gizartearen aurrean arduradun gisa hartuko ditu 14 urtetik gorako eta 18 urtetik beherako gazteak. Adingabeak askatasunez jokatzeko eta, beraz, beren ekintzez arduratzeko gaitasuna duten pertsona gisa onartzeak hezkuntza-arloko potentzial izugarri handia dauka. Erantzukizuna deklaratu eta eskatzeko modua da kontua hemen, ez baita soilik ordainarazlea zein zehatzailea izan behar, helduen kasuan bezala, baizik eta hezkuntza-arloko edukieraz betea egon behar du.

5/2000 Lege Organikoaren Arrazoiak Azalpenak «adingabe arau-hausleei aplikatzekoak diren neurrien eta prozeduraren izaera formalki penala eta materialki zehatzaile eta hezitzailea» deklaratu du.

Aintzat hartzen da «zehapen-xedapenaren izaera, adingabe arau-hausleekiko benetako erantzukizun juridikoaren eskakizuna garatzen baitu, betiere Zigor Kodeak eta gainerako lege penal bereziek delitu edo hutsegite gisa tipifikaturiko ekintzak egiteari berariaz badagokio ere. Adingabe arau-hauslearentzako erreakzio juridikoa hezkuntza esku-hartzea izatea nahi denez, intentsitate berezikoa betiere, helduen Zuzenbide penalaren beste helburu batzuk espresuki baztertuz, hala nola ekintzaren eta zehapenaren edo arauaren hartzaileengan sorturiko larderiaren arteko heinekotasuna, adingabearentzako kalterakoa izan daitekeen guztia saihestu nahi da, biktimak edo beste partikular batzuk akzioa baliatzea, esaterako».

Hortaz, gure ustez, adingabeen Zuzenbide Penala lehenik eta behin Zuzenbide Penala da, hau da, Kode Zibilak delitu edo falta gisa kalifikatutako egitate baten aurreko erantzun zehatzailea ezartzen duten arauen multzoa da. Hala ere, ez dugu nahi zehapenak soilik eduki ordainarazlea izatea, eta ez du eduki hori soilik izan behar, baizik eta zehapenaren aplikazioak eta betearazpenak adingabearen interesa bete behar dute, implikaturiko beste gaitetik, eta helburu hezitzailea izan behar dute.

Hortaz, gazteen neurrien betearazpena egiten den esparrua egitate bat egiteagatiko zehapenaren esparrua da, eta bertan emaitza hezitzaile bat bilatuko da. Argi geratu behar da Gazte Justiziaren eginkizun nagusia ez dela adingabeen hezkuntza edo babesa —ezin dugu «erreformarekin babestean» erori behar, hau da, egitate batengatiko zehapen baten ezarpena aprobetxatzea normalizatutako instantziek egin ez duten hezkuntzarako, babesarako eta gizarteratzeko lana egiteko—.

Azken batean, proportzionaltasun-printzipioa ainguratuta geratzen da —bestela esanda, Konstituzioaren 25.1 artikuluan jasotako eskubide konstituzionala—, izan ere, adingabearekin hezkuntza esku-hartzea egiteko beharrak ezin du gainditu egindako egitatearen larritasunaren arabera adingabeari legez ezarri behar zaion eskubide-muga. 5/2000 Lege Organikoaren 7.3 artikulua honako bi irizpide hauek ezartzen ditu neurria hautatzeko: egindako egitatea eta adingabearen zirkunstantziak. Horiek ezin dute justifikatu egitatearen larritasunarekiko proportzioak ahalbidetzen duenaren gainetik adingabearen eskubideak murrizten dituen neurri bat ezartzea; adingabearen zirkunstantziak aukera ematen dute neurriaren izaera eta iraupena hezkuntza-interesera egokitu eta modulatzeko, baina pertsonaren proportzionaltasunerako eskubide konstituzionala ezin da urratu.

4.2. Sistema garantista: eskubide guztien errespetu zorrotza

5/2000 Lege Organikoaren Arrazoiaren Azalpenak, era berean, honako hau ezartzen du: «eskubide konstituzionalen eta adingabearen intereseko eskaera berezien errespetutik ondorioztatzen diren berme guztien esanbidezko errekonozimendua».

Eta azkenik, «Konstituzio Auzitegiak adierazitako orientabideei —lehen aipatu ditugu— jarraiki, auzibidezko eskarira egokituriko berme-sistema ezarri dela, eta ziurtatu da zehapena erugabetasun-presuntzioa amaitzean ezarri dela, betiere auzibide honek ardatz dituen irizpide hezigarriak eta adingabearen interesa balioestean irizpideak oztopatu gabe, eta aldi berean, gutxieneko esku-hartzearen irizpidea malgutasunez erabiliz.»

Nazioarteko eta estatuko legediak adierazitakoaren arabera, adingabeen interesak beste edozeinen gainetik egon behar du. Operadore guztien papera —juridikoak zein bazkide hezitzaileak— da Gazte Justiziarekin harremanetan daudenean babesten dieten eskubide eta betebeharrak guztiak zaintzeaz gain, nagusiki, normaltasunez betetzen direla bermatzea.

Hortaz, adingabeak eskubideak ditu, eta, beraz, adingabea izateak ezin du justifikatu Estatuaren zigortzeko boterearen aurrean —poliziaren, fiskalaren, justiziaren edo neu-

rrien betearazpeneko jardunen aurrean— pertsona gisa dagozkion eskubideak murriztea. Aldiz, pertsona eta herritar gisa dagozkion eskubide guztien titularra da adingabea, eta, gainera, adingabea izateagatik berariaz dagozkion eskubideak ditu, Estatuaren zigortzeko boterearen aurrean edo beste arlo batzuetan eskumena duten instituzioen aurrean.

4.3. Gutxieneko esku-hartzea

Zigor-arauen aplikazioaren funtsezko printzipioa da gutxieneko esku-hartzea, zeina Zuzenbide Penalak eta zehapen penalek legez ezarritakoaren zuzeneko ondorioa den: gizarte-bizikidetzaren babesteko erabilgarritasuna eta premia. Horren ondorioz, Zuzenbide penalaren baliabidea azken baliabide gisa erabili behar du legegileak; adingabearen portaera arau-hausleari eraginkortasun berarekin erantzuteko beste biderik ez dagoenean bakarrik aplikatu behar da zehapen penala; barneratzeko neurria eraginkortasun bereko beste biderik ez dagoenean aplikatu eta mantendu behar da bakarrik.

Beccariako Markesak 1764an adierazi zuenez, beharrezkoa gainditzen duen edozein zigor tiranikoa da.

5/2000 Lege Organikoaren Arrazoiaren Azalpenak honako hau egitea ezartzen du: «gutxieneko esku-hartzearen irizpidea malgutasunez erabiltzea, hau da, honakoei gailentasuna ematea: prozedura ez zabaltzeko edo prozedurari uko egiteko aukerei, kalte-ordain aurreratuari edo arau-hauslearen eta biktimaren arteko adiskidetzeari, eta ezarritako neurria baldintzapean eteteari edo betetzen ari den bitartean neurri hori ordezkatzeari.»

Berehalakotasunaren, gutxieneko esku-hartzearen, adingabearen interesaren, justizia berrezartzailearen printzipioak eta bestelako printzipioak aplikatzeak, zalantzarik gabe, nagusiki Fiskaltzaren esku geratzen diren esku-hartze ez zehatzaileen aukera indartzea dakar, lantalde teknikoaren laguntzarekin, eta nagusiki egilearen eta biktimaren arteko bitartekotza-programak edo hezkuntza-arloko jarduerak egitea.

Bide horren aldeko apustua egitearen ondorioz, prozedura judizialean askotan galdu duten protagonismoa biktimei itzultzen zaie, neskari edo mutilari biktimaren bizipena

aurkaratzen zaio, horien erantzukizuna benetan beren gain hartzeko atea irekitzen da, gatazkaren konponketa baketsua ahalbidetzen da, eragindako kaltea zuzenean edo sinbolikoki konpontzen da, karga judiziala murrizten da, etab. Azken batean, protagonismoa benetan dutenei itzultzen zaie.

Apustu horrek ikuspegi-aldaketa bat dakar operadore juridikoengan, magistratuengan, fiskalengan, abokatuengan eta akusazioengan, eta epaileen eta fiskalen laguntzarako lantalde teknikoetan lan egiten duten profesionalen kualifikazio berezia dakar.

Jauzi garrantzitsu hori osatu gabe geratuko da, neurrien betearazpenean parte hartzen dutenen inplikazio arduratsu eta profesional bat ez badago; biktimarekin adiskidetzak etengabeko erreferentzia izan behar du eta neurrien betearazpen-prozesu guztietan aurkitu behar da.

Idea horrek aurrez aurre talka egiten du eredu asistentzialisten eta/edo babesleen defendatzaileekin, hezkuntza esku-hartzearen «beharraren» babespean auzibidea gehiegizko moduan erabiltzen dutenak. Zailtasun sozialeko egoeran dauden nerabeen ongizatearen bermatzaile-papera justizia penalarri ematen bazaio, Adingabeen Tutoretzako Auzitegien 1948 legedia eragin zuten esku-hartze eruedetara itzuliko gara.

5/2000 Lege Organikoak eta horren ondoz ondoko aldaketek argi eta garbi finkatzen dituzte «jokoaren arauak». Horren esku-hartze mota eta gehieneko denbora-muga epaian adierazten da. Sareko lana eta sistema bakoitzaren —hezkuntzako, sanitarioa, soziala, judiziala, eta abar— betebeharrak beren gain hartzea izan behar dira nerabe horri bere testuinguruan erantzuna emango diotenak. Gazte Justizia arau-hauste penal bat egin duen adingabeari erantzun hezitzaile bat emateaz arduratu beharko da. Arau-hauste penal bat egin ez duten adingabeen —baita arau-haustea egin dutenak ere, zehazpenaren edukia gaindituta— hezkuntzaz, gizartratzeaz, babes orokorraz eta haurtzaroaren eskubideak betetzeaz arduratu behar direnak instituzio eta agente eskudunak dira. Horrek argi eta garbi adierazten du normalizazio-printzipioa.

«Erreformatorekin babestea», aurrerapenerako elementu bat baino, nagusiki, babesik gabeko nerabeen kriminalizazioa eta gizarteak bere betebeharretan hutsegitea eragin dezake.

Adingabeen jurisdikzioko organo judizialak, erreformako erakunde publikoa, zein horien erakunde laguntzaileak ez dira haurren babes-sistemako osagaiak —babestu edo hezi beharreko pertsonaren borondatearen aurka babes edo hezkuntza derrigorrez ezartzeko azken babes-istantzia izango balira—; gazteen erantzukizun penalaren sistema osatzen dute, eta bertan adingabe bati egitate batzuk egitearen arduradun deklaritzen zaio, zehapen bat ezartzen zaio eta, orain bai, esparru horretan, hezkuntza-arloko eta arreta integraleko esku-hartzea egiten da.

4.4. Elkarrekikotasuna eta berehalakotasuna

Edozein neraberentzat, portaeren eta horien ondorioen arteko aldi baterako kontingentzia ikustea ezinbestekoa da. Erantzuna benetan hezitzailea izateko, hurbila izan behar du. Gehiegizko denboraren ondorioz, neurri guztiek izan behar duten karga hezitzailea eta eraldatzailea eta zentzua gal daitezke.

Adingabeen erantzukizun penalari buruzko legediak adingabearen egoera kontuan hartzera behartzen du, erantzun egokiena erabakitzeko. Zer gertatzen da erantzuna atzertzen bada? Erantzuna eztabaidaezina da, egoera aldatu egiten da, pertsona jada ez da berdina, jada ez dago egitatea egin zuen eta adingabearen zirkunstantziak aztertu ziren garaiko egoeran berean.

Horrek epaitu behar duenari behartzen dio egitateak egin ziren uneko egoeraren eta neurri zehatzaileari buruz erabakitzeko uneko egoeraren artean hautatzera. Egoera horrek nahasmen argia eragiten du adingabearen interesa balioetsi eta haztatzeko, eta jardunaren bizkortasunaren arabera adingabearen interesa haztatzera behartzen du. Hortaz, jardun bizkor batek delituan berrerortzea saihestu ahal izango luke kasu askotan, eta, beste kasu batzuetan, norbait prozesu berantiar eta bidegabeko baten mende jartzea saihestu ahal izango luke. Printzipio hori sistemako operadore guztiengan aplikatu daiteke, eta baita epaitegiek, fiskalek, abokatuek, lantalde teknikoak, erakunde publikoek eta bestelakoek erabilitako eredu eta prozedurengan ere. Printzipio horren eraginkortasunak Gobernu-plan baten aukerak gainditzen ditu, baina, neurri batean, herri-administrazioak nolabait eragin dezake.

Era berean, esku-hartzearen edukiak kaltetutako ondasun juridikoarekiko duen gertatutasunak ezarritako erantzunaren zentzua handituko du ia beti.

4.5. Egokitzapen indibiduala fase guztietan

Gazte-neurriak aplikatu eta betearazteko bide bakarra neska eta mutil bakoitzaren errealtaterako erantzun egokiena bilatzea eta horren bilakaerari egokitzea da, gaztearen testuingurua kontuan hartuta.

Helduen jurisdikzioan ez bezala, 5/2000 Lege Organikoaren 7.3 artikulua, neurri eta horren iraupena hautatzeko, arau-haustearen larritasuna kontuan hartzera behartzen du, eta baita adingabearen zirkunstantzia pertsonalak, interesa, eta hezkuntza-interesak ere. Era berean, betearazpenean zehar, etengabeko arreta eman behar zaio adingabe bakoitzaren interes indibidualari, eta arau-haustearen erantzun gisa adingabearen hezkuntzarako egokiena dena kontuan hartu behar da beti.

Puntu honetan, Lantalde Teknikoen eta Erakunde Publiko eskudunaren Txostenek ezinbesteko lana egiten dute erabakiak hartzeko une bakoitzean adingabearen zirkunstantzia indibidualen, familiarren eta sozialen gaineko betearazpenean.

Egokitzapena adingabearen interesak definituko du, eta, erabakiak hartzerakoan interesak haztatu behar direnean, adingabearen interesa bestelako baldintzen gainetik egon behar duela ezartzen da araubidez.

Horri dagokionez, honako hau ezartzen du 5/2000 Lege Organikoak: «Adingabeen Zuzenbide penalean adingabearen interesaren nagusitasuna lehenetsi behar dela, prozeduraren eta hartzen diren neurrien elementu erabakigarri gisa. Interes hau zientzia ez-juridikoen arloko profesional espezializatuen ekipoek irizpide teknikoak eta ez-formalistak erabiliz balioetsi behar dute, betiere neurrien aplikazioa honako printzipio garantista orokor eztaba daezinetara egokitzea alde batera utzi gabe: akusazio-printzipioa, defentsa-printzipioa edo errugabetasun-presuntzioaren printzipioa.»

4.6. Erantzukizun publikoa neurrien betearazpenean

Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren 45. artikuluan xedatzen denez, neurrien betearazpenean autonomia-erkidegoen eskumena izango da. Entitate publiko horiek, dituzten antolaketa-arauei jarrai-

tuz, sortu, zuzendu, antolatu eta kudeatuko dituzte Lege horretan aurreikusten diren neurriak behar bezala betearaziko direla bermatzeko zerbitzu, erakunde eta programa egokiak.

Era berean, beharrezkoak diren lankidetzaz hitzarmenak edo itunak ezarri ahal izango dituzte beste erakunde batzuekin —Estatu, Udal edo Autonomia Erkidegoetako Administrazioiko erakunde publikoekin, edo irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuekin— euren eskumeneko neurriak betearazteko. Eurek ikuskatuko dituzte zuzenean, eta ez dute ezin kasutan utziko betearazte horren titulartasuna eta erantzukizuna».

Eusko Jaurlaritzak pentsatu zuen eta oraindik pentsatzen du baliabide publikoen eta pribatuen konbinazio egoki batek eraginkortasun eta efizientzia handiko emaitzak ematen dituela gazte-zehapenen betearazpenean egin beharreko lan hezitzailean.

Lege-agindu bidez bestela izatea ezinezkoa denez, horrek ez du eragozten neurrien betearazpenetik ondorioztatutako titulartasuna eta erantzukidetasuna Administrazioarena izatea.

Erantzukidetasun horrek honako hauek dakartza: neurrien betearazpen-politiken plangintza publikoa eta diseinu publikoa —erakunde laguntzaile pribatuen partaidetzarekin eta ekarpenarekin betiere—; Gazte Justiziako Zerbitzuan adingabeei buruzko oinarritzko erabakiak zentralizatzea; I. mailako zentroa zuzeneko kudeaketako gisa egituratzea; diziplina-ahala nolana ere funtzionario publikoek hartzea, eta organo judizialen eta fiskaltzen aurrean Administrazioaren erantzukidetasun eskusiboa ezartzea; betiere adierazitako erakunde pribatuen esperientzia, jakintza, jardunbide egokiak eta auto-antolamendua aprobetxatuta.

4.7. Arreta integrala

4.7.1. Erantzukizuna hartzea

Gazte Justiziaren esku-hartzea *erantzukidetasun* penalaren deklarazio eta errekonozimenduaren ondorioa da; arduradun egitea, hau da, norberaren ekintzen arduradun egitea, pertsonaren eraikuntzarako eta hazkunderako ezinbesteko baldintza gisa ezartzen da. Ikuspuntu horretan oinarrituta, legearen aplikazioan eta neurrien betearazpenean, mutila edo

neska erantzukidetasun horren aurrean kokatu behar da, eta ahaleginak eskubidea/erantzukidetasuna binomioaren onarpenean bildu, binomio zatiezin gisa.

Erantzukidetasuna norberaren gain hartzearen ezinbesteko elementua da mutila edo neska biktimaren bizipenean kokatzea, horien erantzukidetasuna benetan beren gain hartzeko atea irekitzea, gatazkaren konponketa baketsua sustatzea, eragindako kaltea zuzenean edo sinbolikoki konpontzea, eta, azken batean, protagonismoa benetan dutenei itzultzea.

Biktimarekin adiskidetzea eta pertsona bati edota gizarteari kalte bat eragin zaiola onartzea etengabeko erreferentzia izan behar dira eta neurrien betearazpen-prozesu guztietan agertu behar dira.

Pertsonak ez gara eskubideko subjektuak bakarrik, baizik eta baita betebeharren subjektuak ere. Bi kontzeptu horiek ezinbestekoak dira, txanpon baten bi aldean moduan; lan hezitzailea ezin da zentzu bakar batean desorekatu. Lan hezitzailearen helburua beren eskubi-deen defentsa eta beren betebeharren betetzea jada ikasi duten pertsonak gizarteratzea da.

4.7.2. Izaera hezitzailea eta hezkuntza-loturak ezartzea

Nerabe edo gazteak beste heldu eta gazteekin duen harremanak eta loturak soilik ahalbidetuko du legeak proposatutako helburuak egin bihurtzea —parametro pedagogikoetatik egituraturiko esparruan, errealitatean erabat txertatuta, haren egoera pertsonala, familiarra, soziala, eta abar, abiapuntutzat hartuta, eta nerabe edo gaztearen hazkundera eta garapena bere bizitzaren erantzule denez bilatuta—.

4.7.3. Gizartearekiko ikuspegia eta eraldatzailea

Gizartean, gizartearekin eta gizartearentzat lan egitea gazte-justiziako lanaren oinarriko euskarrietako bat da. Ezin dugu alde batera utzi pertsonen eta osatzen dituzten taldeen garapena pertsona horien inguru sozioekonomikoarekin eta kulturalarekin lotuak daudela. Ikuspegi horretan oinarrituta, eta Gazte Justiziaren asmoa esku hartzen duen pertsonen garapena optimizatzea dela aintzat hartuta, pertsona horien ingurua eraldatzera bideratu behar ditu bere ahaleginak.

Beren lana gizartean garatzen duten entitate eta erakundeekin egiten den «sareko» lana ezinbesteko baldintza bihurtzen da.

Printzipio horrek garrantzi berezia hartzen du testuinguru behartsuetan bizi diren pertsonekin egiten den lanean. Testuinguru horietan, profesionalen joera ikuspegi murrizketara bideratzen da, errealitate horren egokitzapenera. Ikuspegi «egokitzaille» honekin, errealitatea eraldatu eta pertsonen inguru horretatik irteten lagundu ordez, ezberdintasunak areagotzen dira.

Gizartearen tolerantzia handitzean, alarma sozialak itzaltzean, partaidetza aktiboa eragitean, aniztasunari baliozkotasuna ematean, aldaketarako eta hobekuntzarako itxaropenak eratzean, eta abarretan lan egitea ezinbestekoa da solidaritatea eta gatazken konponketa baketsua lortzeko.

Errealitatean aldaketak eragiten ez dituen edozein esku-hartze eredu ezin da inoiz eredu ontzat hartu.

4.7.4. Normalizazioa

Neurri zehatzaile baten betearazpenean, adingabeak, bere erantzukizun penalak eragindako hezkuntza esku-hartze zuzentzaileaz gain, legez aitortuak dituen premia guztiak asebetek izateko eskubidea dauka (arreta jasotzea, hezkuntza, asistentzia sanitarioa, enplegurako sarrera, alojamendua, eta abar), baina ez neurri judizial bat betetzen ari delako, baizik eta beste edozein adingaberen moduan horretarako eskubidea duelako.

Eta, beraz, oro har adingabeen edo helduen biztanleriaren gaineko eskumena duten erakundeek eskubide horiek bete beharko dituzte.

Horren ondorioz, beharrezkoa izango da neurrien betearazpenean honako hauen artean lankidetzan sendo eta eraginkorra egotea: neurriak betearazteko eskumena duen erakunde publikoa, Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza, adingabearen babeserako erakundeak, sanitarioak, hezkuntzakoak, etxebizitzakoak, gizarteratzekoak, eta abar.

Adierazitako printzipioak, ahal den neurrian, saihestu egiten du neurrien betearazpenean neurri judizialak betetzen dituzten adingabeentzako baliabide espezifikoak edo langile espezifikoak sortzea, eta pertsona horien arreta eta heziketarako orokorrean gizartearen zako baliabide eta langile berberak erabiltzea eskatzen du.

5

2008-2012 Gazte Justizia Planaren ildo estrategikoak

5.1. Sailartekotasuna eta erakunde arteko lankidetzak

Gazte Justizian esku hartzen duten agenteen —polizia, Botere Judiziala, Fiskaltza, Herri Administrazioa— eta arreta integraleko eta normalizazioko printzipioen —adingabearen edo gazte helduaren arreta integraleko beharren gaineko erantzukizuna duten agente publikoen aniztasuna dela-eta— ezinbesteko ondorio gisa, agenteen arteko lankidetzak estua ezarri da nahitaez.

Horren ildotik, *Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldearen Irizpenak, gazte-delinkuentziaren prebentzioari, gazte-delinkuentziaren tratamendu moduei eta adingabearen justiziak Europar Batasunean duen paperari buruzkoak*, esanbidezko erreferentzia egiten dio lankidetzak-premia horri, hau da, gazte-delinkuentzian eragina duten sail eta agente guztien arteko «koordinazio operatiboko» premiari, fenomeno hori *ikuspegi multidiziplinar eta multiinstituzional* egoki batetik aztertzeke helburuarekin (7.3 idatz-zatia).

Tratamendu multidiziplinar eta multiinstituzional horri buruz hitz egin zuen jada Ministroen Batzardeak, 2003ko irailaren 24ko Rec (2003) 20 Gomendioan, gazte-delinkuentziaren tratamendu-forma berriei eta gazte-justiziaren paperari buruzkoa, eta, horren bitartez, Estatu Kideei eskatu zien alderdi hori kontuan hartzea arlo honetan beren legeak, politikak eta praktikak lantzerakoan.

Planaren ezaugarri nagusietako bat da Eusko Jaurlaritzako sailen inplikazioa, eta, are gehiago, Planean deskribatzen diren ekintzek erakunde arteko lankidetzarako espazioak, eremuak eta tresnak sortzea aurreikusi behar dute, baliabide publikoen gehieneko efizientzia eta eraginkortasuna betetze aldera.

Zehazki, neurrien betearazpen-eremuan, adingabea edo gazte heldua gizarteratzea ahalbidetzen duten gizarteko baliabideekin harremanetan jartzea ahalbidetu behar da —eta neurria amaitzen denean «lotua utzi»—.

Ildo estrategiko honen eremuan kokatzen dira Jaurlaritzaren barruko sailen arteko koordinazioa, eta Gazte Justiziaren ekintzaren xede-biztanlerian eragina duten beste erakunde eta gizarte-agente batzuekin lankidetzan gauzatzeko espazioak araututa eratzea.

Nabarmenki adierazi beharra dago honako hau ezartzeko legezko betebeharra (gizarte-babesgabetasuneko egoeran dauden haurren eta nerabeentzako egoitza-harrerarako baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuaren 10.2.e artikulua ohia): *Haurrak eta nerabeak babesteko Foru Aldundiek dituzten zerbitzu espezializatuek eta autonomia-erkidegoko Gazte Justiziaren arloko eskumena duen Sailak lankidetzan jarduteko eta koordinatzeko protokoloa.*

5.2. Kalitatea eta baliabideen optimizazioa

Plan honetan bildutako neurrien aplikazioan kalitatea, baliabideen aprobetxamendu hobereana eta prozeduren etengabeko hobekuntza bilatu behar dira, gazte-justiziaren arloko politiken aplikazio zorrotz eta arduratsua lortze aldera.

2004-2007 aldiaren ondoren —aldi horren ezaugarri nagusia izan da epaitutako edota neurri zehatzaileen eraginpean jarritako adingabeen kopurua handitu dela eta, horren ondorioz, epaitegietan, fiskaltzetan, lantalde teknikoetan, zentroetan eta neurrien betearazpenarako zerbitzuetan errekursoak ugartu dira—, eta egungo egonkortasun kuantitatiboko egoera aintzat hartuta, azpiegituren, giza baliabideen, antolamenduaren eta prozeduren kalitatea eta bikaintasuna oinarrizko ildoak dira 2008-2012 aldirako.

Ereduaren eraginkortasuna sistema osatzen duten profesionalen eta erakunde publiko eta pribatuen jardunbide egokien identifikazioan eta jarraipenean oinarritu behar da.

Neurrien betearazpen-prozesuetan kalitatea izateko, neurriak betearazteko Programak egin behar dira, zientifikoki frogatuak eta ebaluagarriak, eta horretarako erakunde pribatu laguntzaileen eta sistematik kanpoko agenteen baliabidea eduki behar da. Arlo honetako erantzukizun publikoak Gazte Justiziako Zerbitzuaren berrantolaketa eta Programaz eta Ikerketaz arduratzeko gaitasuna duten funtzionario teknikoak izatea eskatuko du; proposatutakoaren moduko sistema batek ezin ditu soilik neurrien kudeaketarako langileak eduki, prestakuntza zientifikoa altua duten langileak behar baititu.

Ikuspegi batean edo bestean oinarrituta gazteekin esku hartu behar duten profesionalen prestakuntza giza baliabideen kalitatearen funtsezko beste alderdi bat da; Gazte Justiziako agente guztien prestakuntza: Epaitegiak, Fiskaltzak, Polizia-agenteak, Justizia Administrazioaren zerbitzupeko langileak, Talde Psikosozialak, Neurrien Betearazpenerako Teknikariak, neurrien betearazpeneko hezitzaileak, Irakasleak, Sanitarioak eta abar, betiere Jaurlaritzaren Sailen mende dauden neurrian.

Adingabeekin esku hartzen duten agenteen *prestakuntza espezializatu eta etengabearen* eskakizuna azpimarratu egiten du Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldearen 2006ko Irizpenak (7.4 idatz-zatia), gazte-delinquentziaren fenomenoak dituen berezitasunak, eta horren izaera dinamikoa eta aldakorra artatuta; helburu horrekin, prestakuntza-premia horiek estaltzen dituzten programak ezarri beharko dira.

Gazte Justiziaren esku-hartzearen kalitatea, era berean, askatasuna kentzeko neurrien erabilera hezkuntza-eraginkortasuneko eta gazteen arau-hausteen erantzuneko maila berarekin murrizteko gaitasunaren bitartez neurtu behar da.

5.3. Jakintza, ikerketa eta nazioarteko lankidetzak

Gazte Justiziaren helburua indibidualki erantzun egokiena aurkitzea eta modu hezitzailean adingabeen aldaketa eragiteko esku hartzea dela aintzat hartuta, lan egin behar den errealitate sozialaren jakintza zientifikoa, esku hartzeko programa onenen jakintza zientifikoa, baita nazioarteko mailan ere, norberaren praxiaren emaitzak jakitea, eta abar, eta horren sistematizazioa funtsezkoak dira.

Horregatik, agente guztien (epaitegiak, fiskaltzak, lantaldeak, erakunde publikoa) informazioa bildu eta ustiatzeko sistemen garapenak, unibertsitateko zientzia-ikerketen plangintzak, foroetan parte hartzeak, erakunde laguntzaileen esperientzia aprobetxatzeak, ikerketaren eta ekintzaren arteko harremanak unibertsitatearen laguntzarekin, eta abarrek ildo estrategiko honen edukia osatzen dute.

Ildo honetan gutxienez hiru dira lan-arloak:

- Sistema Informatikoaren hobekuntza.
- Zientzian oinarrituta, frogatuta eta ebaluagarriak diren honako hauen diseinua: Esku-hartze Programak, Zentroko hezkuntza Proiektuak, eta abar.

- Eztabaida eta hausnarketa sortzeko gizarte-partaidetza handia duten organo parte-hartzaileak eratzea.

Gazte Justiziaren arloan EAEren ibilbide irmo eta errekonozituaren ondorioz, geroz eta gehiago, beste herrialde eta Autonomia Erkidego batzuek jakintzen eta jardunbide egokien trukea eskatzen diete EAEko Gazte Justiziaren agente pribatu eta publikoei.

Era berean, EAEko Gazte Justiziaren etengabeko hobekuntzak gure inguruko beste Autonomia Erkidego eta herrialde batzuetan jakintzak, jardunbide egokiak eta esperientzia berriak bilatzeko beharra dauka.

Gure europar inguruan sartzeak eta Gazte Justiziako europar ereduaren betearazpenerako dagoen proiektuak Euskadiko herri-administrazioa eta erakunde pribatu laguntzaileak Europako eta nazioarteko foroetan egotea eskatzen dute.

Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldearen 2006ko Irizpenak puntu honi buruzko aipamena egiten du, eta komenigarritzat hartzen du, gazte-delinkuentziari eta adingabearen justiziari buruzko gizarte-politika egin eta garatzeko, Estatu Kide bakoitzean gauzatutako esperientziei eta errealitatei buruzko jakintza al bait zehatzena edukitzea (7.2 idatz-zatia); horrek aukera emango du Estatu guztien gutxieneko estandarrak edo orientazio bateratuak lantzeko, prebentzio-politikez gain, adingabe arau-hausleen polizia- eta politika-tratamendua barnean hartuta, adingabea berriro hezi eta bergizarteratu arte.

Arlo honetan ereduzko europar esparru bat izatearen komenigarritasuna azpimarratzen da Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldearen 2006ko Irizpenean, eta gazte-delinkuentziaren tratamendurako politikei buruz dituzten ikuspegiak —prebentzioari, justiziari, babesari eta gizarteratzeari dagokionez— aztertzerakoan, eta Estatu Kideetan egiten diren jardunbide egokien eta esperientzien bitartez, Europar Batasuneko herrialde kideek lor dezaketen onura nabarmentzen da (6. puntua).

5.4. Homogeneizazioa eta sistematizazioa

Gure ustez, gizartearen eta legearen hartzailen —egitateak egiterakoan, 14tik 18 urtera bitarteko adingabeak, edo helduak betearazpenaren unean— eskubide bat edo igurikapen legitimo bat da, egitate berberen eta baldintza berberen kasuan, tratu berbera eta al bait onena

jasotzea. Egoitza edo arau-haustearen egikaritzea lurralde batean edo bestean izateak, eskumena epaitegi batena edo bestearena izateak, eta neurria profesional batzuek edo bestiek betearazteak, ez dituzte emaitza, erantzun, zein esku-hartze desberdinak eman behar.

Agenteen multzoak sistema baten moduan funtzionatzeko, baliabide guztientzat Programa homogeneoak landu behar dira (Hezkuntza Programa, delituetan berrerortze handia duten Adingabeen Programa, Laneratzeko Programa, Droga-mendetasunei buruzko Programa, Konpontzeko eta Biktimarekin Adiskidetzeko Programa, Familia Terapiako Programa, eta abar).

Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeak, 2006ko Irizpenean, gazte-delinkuentziako fenomenoaren eta adingabearen justiziaren prebentziorako, babeserako, eta esku-hartze eta tratamendurako ereduak eta sistemak etengabe homogeneizatzeko joera gomendatzen du (7.1.3 idatz-zatia).

Era berean, homogeneizazioa gauzatu ahal izateko, agenteen eta profesionalen arteko komunikaziorako espazioak, eremuak eta tresnak sortu behar dira, irizpideak eta jardunbide egokiak eztabaidatu, aztertu eta bateratzeko, eta, era horretan, sareko funtzionamenduaren bitartez, hezkuntza-sistemaren, sistema sanitarioaren edo gizarte babeseko sistemaren moduko sistema bat bihur dadin.

Neurrien betearazpenari dagokionez, gazte-neurrien betearazpenerako sistema bat eratzeko beharra dakar, lurraldeen, zentroen, baliabideen eta langileen arabera orekatua, adingabe batek zentro eta zerbitzu guztietan tratamendu berbera eta onena jasotzen duela bermatuta.

5.5. Paradigma berrezartzailea

Justizia Administrazioak, oro har, bere oinarrien birformulazioa eta bilakaera behar du: ordainketan eta zehapenean oinarrituta dagoen eta Estatuaren eta arau-hauslearen artean guztiz bertikala den, eta biktima marjinalatzen duen Justizia baztertu eta paradigma berrezartzailea aplikatu, gatazken konponketan arau-hausleei eta biktimei protagonismoa emanez, planteamendu horizontalago batean oinarrituta, eta eragindako kaltea konpontzea eta gizartearen barruan gertatzen diren gatazken konponketan gizarte bera inplikatzeko sustatuta.

Are gehiago Adingabeen Jurisdikzioan; izan ere, printzipioetan adierazten denez, interes hezitzailea, erantzukizuna bere gain hartzea, elkarrekikotasuna eta gutxieneko berehalakotasun eta esku-hartze zehatzailea gazteen erantzukizun penalaren osagai zatiezinak dira.

Are gehiago, bitartekotzari, konponketari eta adiskidetzeari dagokionez gure Gazte Justiziaren Administrazioan dagoen tradizio luzeari esker, eta lege-erregulazio espezifiko bat eta egilearen eta biktimaren arteko bitartekotzan prestakuntza eta esperientzia duten langileak izateari esker.

Justizia berrezartzailearen printzipioak gaineratzean sakontzeak, epaiketa aurreko eremuan, eremu judizialean edo betearazpenean, planifikatu beharreko hurrengo aldian ildo estrategiko bat izan behar du.

Gazte-delinkuentziaren prebentzioari, gazte-delinkuentziaren tratamendu moduei eta adingabearen justiziak Europar Batasunean duen paperari buruz Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeak emandako Irizpenak, hain zuzen ere, honako honi buruz hitz egiten du: «justizia ordainarazlea» kontzeptuaren auka justiziaren «kontzepzio berrezartzaile edo konpontzailea» izateko larritasuna, biktimaren aldeko mugimendu politiko kriminalarekin eta auzibidean horri dagokion papera berreskuratzearekin jaioa (4.3 idatz-zatia).

Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeak bere Irizpenean adierazten duenez, Justizia berrezartzailea egindako delituaren ondoriozko gatazkaren konponbidearen bilaketan biktima, inputatua eta gizartea barnean hartzen dituen justiziaren paradigma da, kaltea konpontzea sustatzeko, alderdiak adiskidetzeko eta segurtasun kolektiboaren zentzua indartzeko helburuarekin.

5.6. Gazte-neurrien betearazpenaren kudeaketa-eredu mistoaren potentzialtasunen maximizazioa

Neurrien betearazpenaren kudeaketa mistoak —kudeaketa guztiz publikoaren edo nagusiki pribatuaren moduan— bere nolakotasunak eta potentzialtasunak ditu, baina baita arazoak eta arriskuak ere.

Kudeaketa mistoaren eta titulartasun eta erantzukidetasun publikoaren aldeko apustu kontziente eta justifikatua egiteak nolakotasunak eta potentzialtasunak maximizatzea eta

arazoak eta arriskuak minimizatzea lortzen duten ekintzak planifikatzea dakar, gazte-neurrien betearazpen-sistemaren berezko helburuak gauzatzeko eraginkortasun eta efizientzia handiena lortze aldera.

5.7. Prebentzioa

Gazte-delinkuentziaren prebentzioari, gazte-delinkuentziaren tratamendu moduei eta adingabearen justiziak Europar Batasunean duen paperari buruz Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeak 2006an emandako Irizpenak prebentzioaren beharra azpimarratzen du errepresioaren gaineratik, eta puntu honetan beharrezkoa da asistentzia sozialeko, laneko asistentziako, ekonomikoko eta hezitzaileko programa egokiak egitea, eta baita Estatuaren esku-hartze zehatzailea murriztea eta honako eremu hauetan prebentzio-estrategiak aldi berean aktibatzea ere: adingabeen asistentzia soziala, gizarte-politika, astialdiko eta aisialdiko eskaintzak, edota udal-politika, oro har.

Egia esan, gazte-delinkuentziaren aurka borrokatzeko, gizarteek prebentzio-politikak garatu behar dituzte, adingabe eta gazte guztiak gizarteratzeko helburuarekin, *bereziki familiaren, gizartearen, berdin taldearen, eskolaren, lanbide-heziketaren edo lan-merkatuaren bitartez*; azken horri dagokionez, laneratzea biztanle talde hau integratziorako eta gizarte-egonkortasuneko guneetara hurbiltzeko ezinbesteko bide gisa ikusteari buruzko adostasun handia dago.

Azken batean, «gazte-delinkuentziaren prebentzioari» dagokionez, esan beharra dago prebentziorik hoberena adingabeek jaiotzen direnetik 18 urte bete arte dituzten eskubi-deak, nazioarteko, estatuko, autonomiako eta tokiko araudiaren arabera, gizartearen aurkako jarrerren prebentzio-ikuspegitik etorkizunera begira ez ezik batez ere orainera begira betetzea dela, zeren eskubideak betetzea helburu bat baita, nahiz eta jarrera irregularrak prebenitzea bigarren mailako ondorio izan. Horrela, bada, ekintza adingabe guztientzat izango da, inolaz ere ez pertsona batzuk hartuz delitu-jokabideak prebenitzeko jarduera berezien hartzaile gisa, zeren egiaztatuta baitago seinatze hutsak lortu nahi diren kontrakoak diren ondorioak eragiten dituela.

Gazteen arau-hausteei erantzuna emateaz arduratzen diren instituzioek ez dute lehen mailako prebentzioan esku hartu behar, aldiz, biztanleria osoan lan egiten duten instituzioek egin beharko dute lan hori, eta lantzen ari garen adingabeen eremuari dagokionez, ares-

tian adierazi dugun moduan, adierazi beharra dago instituzio nagusia eta garrantzitsua eskolaren, familiaren eta erakunde mailako babesaren eremukoa dela, eta baita eremu horietan eragiteko eskumena duten instituzioak ere.

Aldiz, berrezteko erakunde publikoaren ekintza, zigor-zuzenbideko arau-hauste bat egin duten adingabeei —eta bereziki delitu-berrerortze handiena dutenei— ezarritako neurriak betearazteko eskuduna, programa orokorrak eta proiektu indibidualak lantzerantz bideratu behar da, bigarren mailako prebentzioari lehentasunezko arreta emanez.

6

Helburu orokorrak

- Adingabeek egindako arau-haustek prebenitu eta murriztea
- Erantzun arin eta egokia ematea adingabeek egindako arau-hausteei, hala badagokio, erantzun zehatzaile eta hezitzaile baten bitartez.
- Erakundeen erantzunaren kalitatea eta efizientzia handitzea, eta prozeduren kalitatean eta esku-hartzearen eta ebaluazioaren metodologia zientifikoan sakontzea.
- EAEko Administrazio Orokorraren eskumenekoak diren Adingabeen Epaitegiek emandako ebazpen judizial guztien betearazpena bermatzea.
- Adingabe arau-hausleen gizarteratzea ahalbidetu edo hobetzea.

7

Ildo estrategikoen helburu espezifikoak

7.1. Sailartekotasuna eta erakunde arteko lankidetzak

- Koordinazio etengabea ahalbidetzea Gazte Justizia Planaren eta harremana duten gainerako Gobernu Planen artean: Gazte Plana, Ijito Herriaren Sustapen Plana, Gizarteratzeko Plana, Bakean eta Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzaren arloko Euskal Plana, Immigrazioari buruzko Euskal Plana, Droga-mendetasunei buruzko Euskal Plana, Enplegurako Euskal Plana, eta Boluntariotzaren Euskal Plana.
- Diziplina arteko ikuspegi batean oinarrituta, Gazte Justiziarentzako arreta espezifikoak sustatzea, Gizarte Ongizateko Kontseiluaren barruko Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialean (urriaren 2ko 165/2007 Dekretua).
- Diziplina arteko ikuspegi batean oinarrituta, Gazte Justiziarentzako arreta espezifikoak sustatzea, koordinaziorako lurralde-organoetan (une honetan Bizkaiko Haur Kontseilua dago).
- *Haurrak eta nerabeak babesteko Foru Aldundiek dituzten zerbitzu espezializatuak eta autonomia-erkidegoko Gazte Justiziaren arloko eskumena duen Sailak lankidetzan jarduteko eta koordinatzeko protokoloa ezartzea (131/2008 Dekretuaren 10.2.e artikulua).*
- Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioak koordinatutako Haurtzarolari buruzko Autonomia arteko Batzordean parte hartzea.
- Justizia Ministerioaren esparruan Gazte Justiziako Autonomia arteko Batzorde baten sorrera sustatzea.

7.2. Kalitatea eta baliabideen optimizazioa

- Epaitegietako, Fiskaltzetako, lantalde psikosozialetako, zentroetako, zerbitzuetako, betearazpeneko, hezkuntzako eta beste eremu batzuetako plantillak egokitzea, eta Gazte Justiziaren Sistemaren eskakizunen arabera antolatzea.

- Gazte Justiziako profesional guztiei zuzendutako prestakuntza-ekintza espezifikokoak bultzatzea.
- Arau-haustea egiten denetik erantzuna edo zehapena betearazten hasten den arte igarotako denbora murriztea.
- Baliabideen eta langileen efizientzia optimizatzea

7.3. Jakintza, ikerketa eta nazioarteko lankidetzak

- Sistema Informatikoak hobetzea, gazteen arau-hausteei ezarritako erantzun juridiko penala eta hezitzailea zehaztasunez jakitea ahalbidetzeko.
- Egungo hezkuntza-paradigmatan eta ikerketa zientifikoetan oinarrituta, Esku-hartze Programak, Zentroen Hezkuntza Proiektuak eta abar berriro diseinatzea.
- Europako foroetan eta Europako Gazte Justiziaren homogeneizazio-prozesuan parte hartzea.
- Gazte-justiziaren sistema hobetzeko jarraibideak eman ditzaketen Unibertsitateko ikerketetan laguntzea eta horiek sustatzea, IVAC-KREI bereziki.
- Gazte-justiziaren sistemaren ebaluazioetan eta analisietan parte hartzea, Haurtzarolari buruzko Autonomia arteko Batzordearen barruan edo sor daitezkeen batzordeen barruan

7.4. Homogeneizazioa eta sistematizazioa

- Hezkuntza Proiektu Indibidualen diseinuak, neurrien betearazpena eta Hezkuntza Programak bateratzea, neurrien betearazpenerako zentro eta zerbitzu guztientzat.
- Adingabeei buruzko informazio-bilketa eta balorazio-irizpideak bateratzea Epaia-aren aurreko Txostenean, Hezkuntza Proiektu Indibidualean eta betearazpenean zehar egindako Txostenetan.
- Lantalde Psikosozialen, Gazte Justiziaren Zerbitzuaren, Epaitegien eta Adingabeen Fiskaltzen arteko informazio-trukea hobetzea.

- Hezkuntza Esku-hartze Programa espezifikokoak lantzea honako arlo hauetan: adikzioak, ohikotasuna, primariotasun arau-hauslea, osasun mentala, enplegarritasuna, justizia berrezartzailea, etab.
- Hezkuntza esku-hartzeari buruzko Ibilbide sektorialak lantzea honako eremu hauetan: prestakuntza arautua, lanerako prestakuntza, enplegua, etxebizitzarako sarrera, immigrazioa, etab.

7.5. Paradigma berrezartzailea

- Biktimaren ikuspegia eta kalteagatiko erantzukizunaren onarpena indartzea fase guztietan: instrukzioa, epaitzea eta betearaztea.
- Ikuspegi berrezartzailean sakontzea, neurrien Betearazpenerako Proiektu Indibidualetan eta Hezkuntza Esku-hartzean.

7.6. Gazte-neurrien betearazpenaren kudeaketa-eredu mistoaren potentzialtasunen maximizazioa

- Aholku-organo bat sortzea gazte-neurrien betearazpenean laguntzen duten erakundeekin, ereduaren garapenera eta optimizazioari buruz hausnartzeko.
- Gazte-justiziako politiketan hezkuntza-erakunde laguntzaileen jakintzak eta esperientziak biltzea.
- Erakunde pribatuen lankidetzara arautzea gazte-neurrien betearazpenean.

7.7. Prebentzioa

- Hezkuntzaren arloan bizikidetzaren eta gatazken konponketa baketsuaren kultura eta balioak bultzatzea.
- Behar baino lehen eskola uzten dutenen kopurua murriztea
- Lehen mailako adingabe arau-hausleei erantzun arina, egokia eta eraginkorra ematea, portaera arau-hauslea sendotzea saihesteko

- Prebentzioaren bidez esku hartzea osasunaren eremuan, batez ere osasun mentala-
ren, kontsumo arazotsuen eta arriskurik gabeko sexu-harremanen arloan.
- Arlo honetan Eusko Jaurlaritzak duen arautzeko eta planifikatzeko eskumenean oi-
narrituta, haurtzaroaren babesaren eremuan arrisku edo babesgabetasuneko egoeran
dauden nerabeekin esku-hartze integraleko programen garapena sustatzea.

8

Sail bakoitzaren helburu espezifikoak: ekintzak, tenporalizazioa eta adierazleak

8.1. Herrizaingo Saila

Helburuak

- *Urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren pertsona arau-hausleen atxilotetari, zaintzari, lekualdatzeari eta bestelako gaiiei buruz indarrean dagoen legedian ezarritakoa betetzen dela bermatzea.*
- *Nerabeak barnean har ditzaketen arau-hausteen prebentzio-ekintza espezifikoak egitea.*

Ekintzak		Data	Adierazleak
1.1	Egokitzapena eta optimizazioa adingabearen erantzukizun penalaren arloan indarrean dagoen araudian barne hartutako lege-aurreikuspenen ezarpenean, eta Ertzaintzak adingabeen datuak erregistratzearekin eta tratatzearekin lotutako jardun-esparruan.	2009-2012	Datuen erregistroa eta tratamendua egokitzea eta optimizatzea
1.2	Egun adingabeekin egiten den jardunaren eremuan indarrean dagoen polizia-instrukzioa berrikustea eta, hala badagokio, eguneratzea.	2009-2012	Instrukzio berriaren berrikuspen- eta argitalpen-txostena.
1.3	Ertzaintzaren oinarrizko mailan eta Udaltzaingoan sartzeko ikastaroetan eta arlo honekin zerikusia duten espezializazio-ikastaroetan gazte-justiziaren arloko prestakuntza espezifiko ematea.	2008-2012	Prestakuntza-jardueren kopurua eta prestatutako ikasleen kopurua.
1.4	Herrizaingo Sailaren diagnosia biztanleria-sektore honetara bideratutako baliabide materialen (polizia-bulegoak, ibilgailuak, eta abar) egoerari buruz eta, hala badagokio, horien egoera egokitzea.	2010-2011	Diagnosi Txostena. Egindako egokitzapenak.

8.2. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Helburuak

- *Gazteen gatazkak prebenitzea eta ikastetxeetan bizikidetzaren sustatzea.*
- *Behar baino lehen eskola uzten dutenen kopurua murriztea, eta bazterkeria-arriskuan dauden adingabeen eskolatze efektiboa bermatzea.*
- *Neurri judizial bat betetzen duten mutil eta neskei hezkuntza-arreta berezia ematea.*
- *Egokitzeko arazoak dituzten mutil eta nesken eskolatzearan lan egitea, jardun espezifikoekin bitartez.*
- *Hezkuntzaren arloan bizikidetzaren eta gatazken konponketa baketsuaren kultura eta balioak bultzatzea.*

	Ekintzak	Data	Adierazleak
2.1	Gazte Justiziako ikastetxeetan hezkuntza-arretari buruz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailaren arteko Agindu bateratua berrikustea eta, hala badagokio, eguneratzea.	2009-2010	Berrikuspen-txostena eta, hala badagokio, Agindua EHAAng argitaratzea.
2.2	Zumarragako Ibaiondo Hezkuntza Zentroan behar beste irakasle egoki hornitzen direla bermatzea.	2008-2012	Esleitutako irakasleak, horien egokitasunari buruzko urteko ebaluazioa, irailtik abuztura bitarte ikasturte bakoitzaren eskola-ordutegiak estaltzea, etab.
2.3	Ibaiondo Hezkuntza Zentroan ikasgelako eta tailerretako prestakuntzaren kalitatea eta efizientzia ebaluatzea.	2011	Kanpoko ebaluazio espezifiko bat egitea.
2.4	Barnertzeko edo eguneko zentroetako neurri judizialak betetzen dituzten mutil eta neskek «urrutiko hezkuntza» programetan sartzeari bermatzea.	2008-2012	Onartuak izan diren eta izan ez diren ikasleen kopurua eta lortutako prestakuntza (maila).

Ekintzak		Data	Adierazleak
2.5	Neurri judizial bat betetzen duten mutil eta neskei hasierako lanbide-prestakuntzako programetan sartzeko aukera erraztea.	2008-2012	Onartuak izan diren eta izan ez diren ikasleen kopurua eta lortutako prestakuntza (maila).
2.6	Hezkuntza ertaineko ikastetxeetako ardura-dunei, irakasleei eta ikasleei zuzendutako dibulgazio-ekintzak: material didaktikoen edizioa eta hitzaldi presentzialak egitea.	2008-2012	Egindako jardunen kopurua eta horietan parte hartu dutenen kopurua.

8.3. Osasun Saila

Helburuak

- *Neurri judizial bat betetzen duten mutil eta neska guztiei osasun-arretarako sarrera bermatzea.*
- *Arreta berezia ematea nerabeen osasun mentalari.*
- *Osasunaren baliabide arruntak egokitzea osasun mentaleko arazoak, adikzioak eta gizarke-bazterkeriako egoerak bizi dituzten adingabeen arreta-premietara.*
- *Prebentzioaren bidez esku hartzea osasunaren eremuan, batez ere osasun mentalaren, kontsumo arazotsuen eta arriskurik gabeko sexu-harremanen arloan.*

Ekintzak		Data	Adierazleak
3.1	Adingabeen neurri judizial bat betetzen duten pertsona guztiei Identifikazio Sanitarioko Txartela ematea.	2008-2012	Artatuak izan diren eta OTI duten pertsonen kopurua.
3.2	Gazte-justiziako hezkuntza zentroetan hartutako mutil eta neska guztiei asistentzia sanitarioa bermatzea zentroa kokatua dagoen tokiko osasun-zentroan.	2008-2012	Egindako asistentzien kopurua eta ukatutakoen kopurua.

Ekintzak		Data	Adierazleak
3.3	Beren neurria dela-eta Osasun Zentrora joan ezin duten mutil eta neskei asistentzia sanitarioa ahalbidetzea Gazte Justiziako Hezkuntza Zentroetan.	2008-2012	Egindako asistentzien kopurua eta ukatutako kopurua.
3.4	Asistentzia sanitarioa ematea egunero, astelehenetik ostiralera, Zumarragako Ibaiondo Hezkuntza Zentroaren bulegoetan.	2008-2012	Asteko asistentzia-orduak eta egindako asistentziak.
3.5	Osasun mentaleko zentroetan asistentzia hobetzea, eta adingabeen ezaugarri eta premietara egokitzea: lehen hitzordurako epeak murriztea, hitzorduen arteko epeak murriztea, terapia indibidualak baliatzea, familia-terapiak baliatzea, etab.	2009-2010	Sare publikoan artatutako kasuen kopurua, emandako asistentzia mota, esku-hartzeen intentsitatea, eta sare pribatura igorritako kasuak.
3.6	Gazte Justiziako Hezkuntza Zentroetan jardun sanitarioko Protokoloak berrikustea, eta, hala badagokio, eguneratu edo sortzea.	2009-2010	Berrikuspen-txostena eta, hala badagokio, protokolo berriaren onarpena.
3.7	Lehen mailako arretan eta osasun mentalean oinarrituta, Prebentzioaren bidezko esku-hartze programak lantzea.	2010-2012	Programak eta artatutako pertsonak.

8.4. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

Helburuak

- *Gipuzkoan eta Araban Autonomia Egoitzetarako Etxebizitzaren lagapenak osatzea.*
- *Adingabeen Epaitegiak ezarritako neurri judiziala betetzen den bitartean edota bete ondoren gazteei etxebizitzarako sarrera ahalbidetzea.*
- *Gazte-justiziako neurri judiziala ezarri zaien adingabe eta gazte atzerritarren gizarteratzea ahalbidetzea.*
- *Neurri judiziala betetzen duten adingabeen artean kontsumo arazoak murriztea.*

- *Drogak kontsumitzearen ondoriozko arriskuak eta kalteak murriztea neurri judizial bat betetzen duten adingabeen artean.*
- *Diziplina arteko ikuspegi batean oinarrituta, Gazte Justiziantzako arreta espezifikoa sustatzea, Gizarte Ongizateko Kontseiluaren barruko Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialean.*
- *Arlo honetan Eusko Jaurlaritzak duen arautzeko eta planifikatzeko eskumenean oinarrituta, haurtzaroaren babesaren eremuan arrisku edo babesgabetasuneko egoeran dauden nerabeekin esku-hartze integraleko programen garapena sustatzea.*

Ekintzak		Data	Adierazleak
4.1	Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzari hainbat etxebizitzak erabilerara lagatzea, Gipuzkoan eta Araban Autonomia Egoitzak egiteko.	2010	Bi etxebizitzak eskura uztea.
4.2	Plan honen xede-biztanleriaren etxebizitzapremia espezifikoko aztertzea.	2009-2010	Premien txostena
4.3	Helduren bitartez, atzerritarrei buruzko estatuaren ondoriozko administrazio-egoerari buruzko aholkularitza eta asistentzia ematea.	2008-2012	Artatutako adingabeen kopurua eta egindako kudeaketa motak.
4.4	Atzerritarren arloan hezitzaileen prestakuntza-programak landu eta egikaritzea.	2009-2012	Prestakuntza-ekintzen kopurua eta bertaratu-takoen kopurua
4.5	Gobernu Zentralari eskatzea Gazte Justiziako integrazio-prozesuak behar bezala betetzen dituzten adingabe etorkinen «erregularizazioa» errazteko.	2009	Dagokion Ministerioan proposamen zehatz bat aurkeztea.
4.6	Prebentzioaren eta droga-kontsumoaren arloan hezitzaileen prestakuntza-programak landu eta egikaritzea.	2009-2012	Egindako prestakuntzalanak eta bertaratu-takoen profesionalen kopurua.
4.7	Prebentzioaren eta droga-kontsumoaren arloko material espezifikoko hornitzea Gazte Justiziako zentro eta zerbitzuei.	2008-2012	Emandako materialak eta horien izaera.
4.8	Biztanleria gazte orokorrari zuzendutako planetan barne hartzea neurri judizialen eraginpeko adingabeei arreta espezifikoa ematea.	2009-2012	Egindako ekintzak eta Sailaren eskumeneko planetan barne hartutakoak.

8.5. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila

Helburuak

- *Ikuspegi gizarteratzaile eta hezitzaile batean oinarrituta, Adingabeen Epaitegiek EAEn bizi diren mutil eta neskei ezarritako neurriak behar bezala betetzen direla bermatzea.*
- *Esku-hartze arina eta egokia bermatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta materialak hornitzea Adingabeen Epaitegiei eta Fiskaltzei.*
- *Lantalde Psikosozialen baliabide materialak, giza baliabideak eta antolamenduzkoak erantzun judizial arin, indibidualizatu eta kalitatezko batera egokitzea.*
- *Adingabe arau-hausleen gizarteratzea eta laneratzea sustatzea.*
- *Diziplina arteko ikuspegi batean oinarrituta, Gazte Justiziarentzako arreta espezifikoa sustatzea, Gizarte Ongizateko Kontseiluaren barruko Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialean (urriaren 2ko 165/2007 Dekretua).*
- *Diziplina arteko ikuspegi batean oinarrituta, Gazte Justiziarentzako arreta espezifikoa sustatzea, koordinaziorako lurralde-organoetan (Bizkaiko Haur Kontseilua).*
- *Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioak koordinatutako Haurtzaroari buruzko Autonomia arteko Batzordean parte hartzea.*
- *Justizia Ministerioaren esparruan Gazte Justiziako Autonomia arteko Batzorde baten sorrera sustatzea.*
- *Gazte Justiziako profesional guztiei zuzendutako prestakuntza-ekintza espezifikoak bultzatzea.*
- *Arau-haustea egiten denetik erantzuna edo zehapena betearazten hasten den arte igarotako denbora murriztea.*
- *Baliabideen eta langileen efizientzia optimizatzea*
- *Sistema Informatikoak hobetzea, gazteen arau-hausteei ezarritako erantzun juridiko penala eta hezitzailea zehaztasunez jakitea ahalbidetzeko.*

- *Egungo hezkuntza-paradigmatan eta ikerketa zientifikoetan oinarrituta, Esku-hartze Programak, Zentroen Hezkuntza Proiektuak eta abar berriro diseinatzea.*
- *Europako foroetan eta Europako Gazte Justiziaren homogeneizazio-prozesuan parte hartzea.*
- *Gazte-justiziaren sistema hobetzeko jarraibideak eman ditzaketen Unibertsitateko ikerketetan laguntzea eta horiek sustatzea, IVAC-KREI bereziki.*
- *Gazte-justiziaren sistemaren ebaluazioetan eta analisisietan parte hartzea, Haurtzaroari buruzko Autonomia arteko Batzordearen barruan edo sor daitezkeen batzordeen barruan.*
- *Hezkuntza Proiektu Indibidualen diseinuak, neurrien betearazpena eta Hezkuntza Programak bateratzea, neurrien betearazpenerako zentro eta zerbitzu guztientzat.*
- *Adingabeei buruzko informazio-bilketa eta balorazio-irizpideak bateratzea Epaia-
ren aurreko Txostenean, Hezkuntza Proiektu Indibidualean eta betearazpenean zehar egindako Txostenetan.*
- *Lantalde Psikosozialen, Gazte Justiziaren Zerbitzuaren, Epaitegien eta Adingabeen Fiskaltzen arteko informazio-trukea hobetzea.*
- *Hezkuntza Esku-hartze Programa espezifikoak lantzea honako arlo hauetan: adikzioak, ohikotasuna, primariotasun arau-hauslea, osasun mentala, enplegarritasuna, justizia berrezartzailea, etab.*
- *Hezkuntza esku-hartzeari buruzko Ibilbide sektorialak lantzea honako eremu hauetan: prestakuntza arautua, lanerako prestakuntza, enplegua, etxebizitzarako sarre-
ra, immigrazioa, etab.*
- *Biktimaren ikuspegia eta kalteagatiko erantzukizunaren onarpena indartzea fase guztietan: instrukzioa, epaitzea eta betearaztea.*
- *Ikuspegi berrezartzailean sakontzea, neurrien Betearazpenerako Proiektu Indibidualetan eta Hezkuntza Esku-hartzean.*
- *Aholku-organo bat sortzea gazte-neurrien betearazpenean laguntzen duten erakundeekin, ereduaren garapenari eta optimizazioari buruz hausnartzeko.*
- *Gazte-justiziako politiketan hezkuntza-erakunde laguntzaileen jakintzak eta esperientziak biltzea.*

- *Erakunde pribatuen lankidetzaren arautzea gazte-neurrien betearazpenean.*
- *Askatasuna kentzeko neurriak betearazteko zentroek eduki beharko lituzketen baliabide materialak, funtzionalak eta giza baliabideak arautzea.*
- *Lehen mailako adingabe arau-hausleei erantzun arina, egokia eta eraginkorra ematea, portaera arau-hauslea sendotzea saihesteko.*

8.5.1. Zerbitzu Zuzendaritza

Ekintzak		Data	Adierazleak
5.1.1	Sailaren eraginpeko gazte-justiziako langileentzako prestakuntza-plan espezifikoaren lan- eta garatzea.	2008-2012	Planaren onarpena, egindako prestakuntza-jarduerak eta parte-hartzaileen kopurua.
5.1.2	Aplikazio informatiko berri bat ezartzea Gazte Justiziaren Zerbitzuan, espedienteak behar bezala kudeatzeko eta beharrezko ustiapen estatistikoak egiteko egungo eskakizunetara egokitua.	2008-2009	Aplikazio berria abiaraztea.

8.5.2. Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza

Ekintzak		Data	Adierazleak
5.2.1	Bereziki gazteen prestakuntzarako diseinatu-tako eta lan-merkatuan azkar sartzeko ikas-keta-profil profesionalak diseinatzea.	2010	Profilak kontrastatzea.
5.2.2	Lanbiderako sarrera arin eta azkarra, adingabeen neurri judizialak betetzen dituzten pertsonentzat.	2009-2012	Zerbitzuan sartzen diren pertsonen kopurua.
5.2.3	Neurri judizialen mendeko adingabeei dagokienez, bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen espezifikotasuna kontuan hartzea enplegu-planetan, prestakuntza-ekintza kualifikatuen prestakuntza-baliabide indibidualizatuen laguntzaren bitartez.	2009-2012	Espezialitate hori barnean hartzen duten programak.

	Ekintzak	Data	Adierazleak
5.2.4	Lagundutako zein laguntzarik gabeko adingabe atzerritarren enplegarritasuna hobetzea, Lanbideko orientazio-prozesuak ahalbidetuta.	2009-2012	Lanbideren orientazio-zerbitzuan inskribatutako enpresak eta sinatutako kontratuen kopurua.
5.2.5	Neurri judizial bat betetzen duten edo bete duten gazteentzako laneratze-enpresak sortzea ahalbidetzea.	2009-2012	<ul style="list-style-type: none"> • Espezifikoki helburu horretarako sortutako enpresak. • Pertsona horien sarreari lehentasuna ematen dioten Enpresak.

8.5.3. Gizarteratze Zuzendaritza

	Ekintzak	Data	Adierazleak
5.3.1	Diagnosi eta Esku-hartze Sozialeko Tresnaren erabilera ezartzea adingabe arau-hausleekin egiten den lanean.	2009	Tresnaren erabilera ezarri den zerbitzuak
5.3.2	Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin lankidetzaz erraztea adingabe arau-hausleen gizarteratzean.	2008-2012	Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek artatutako adingabe eta gazteak, eta parte hartzen duten programa eta/edo prestazio motak.
5.3.3	Baliabide arruntan bitartez gizarteratzeari buruzko informazioa eta aholkuak ematea gazte-justiziako zentro eta zerbitzuetako adingabeen.	2011	Emandako informazioa eta aholkularitza espezifikoa
5.3.4	Gazte-justiziako zentro eta zerbitzuek gizarteratze-arloan duten eraginkortasuna ebaluatzea.	2012	Kanpo-ebaluazio bat egitea, erabilitako gizarteratze-adierazleak definitu ondoren.
5.3.5	Adingabe arau-hausleei gizarte-zerbitzuak ematea sustatzea.	2009-2012	Sustatutako zerbitzuak

	Ekintzak	Data	Adierazleak
5.3.6	Adingabe arau-hausleak bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen profil espezifikotara bideratutako enplegurako aktibazio-programetan barne hartzea.	2009-2012	Adingabe kopurua
5.3.7	Lankidetzeta-protokoloak orokortzea gazte-justiziaren zerbitzuen eta foru-aldundien zerbitzuen artean, gizareratzea eta laneratzea ahalbidetzeko.	2011	Sinatutako eta abiarazitako akordioen kopurua

8.5.4. Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritza

	Ekintzak	Data	Adierazleak
5.4.1	Gazte Justiziaren Zerbitzuaren lankidetzarekin, gazte-justiziari buruzko informazio espezifikoa ematea gazte-justiziako zentroen sarean lan egiten duten segurtasun-langileei.	2009-2012	Informazio-ekintzen kopurua eta parte-hartzaileen kopurua
5.4.2	Gazte-justiziako zentroen Segurtasun Eskuliburu berrikustea, Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzaren laguntzarekin, eta, hala badagokio, eguneratzea, Zentroen Dekretu Arautzailearekin bat etorritik.	2010	Hala badagokio, Eskuliburu Berri bat onartzea.
5.4.3	Ibaiondo Hezkuntza Zentroaren kanpo-zerbitzuak egokitzea	2010	Egokitzapen-lanak amaitzea.
5.4.4	Mendixola Hezkuntza Zentroa birgaitzea.	2009-2010	Birgaitzeko eta altzariz hornitzeko lanak amaitzea.
5.4.5	Hezkuntza Zentro berri bat eraikitzea Bizkaian.	2012	Zentroa eraikitzea.
5.4.6	Uribarri Hezkuntza Zentroaren okintzako eta gozogintzako tailerra eraikitzea.	2008-2009	Tailerraren obrak eta ekipamendua amaitzea.
5.4.7	Adiskidetzeko eta konponketarako bitartekotzaren arloko lantalde psikosozialen jardun-protokoloak eta informazio-bilketa eguneratu eta bateratzea.	2009	Protokolo berriak argitaratzea.

	Ekintzak	Data	Adierazleak
5.4.8	Aditu-aholkularitzaren arloko lantalde psikosozialen jardun-protokoloak eta informazio-bilketa berrikusi, eguneratu eta bateratzea, aholkularitzaren fase guztietan.	2009	Protokolo berriak argitaratzea.
5.4.9	Lantalde Psikosozialei beharrezko tresna informatikoak hornitzea: datu-baseak, jardura kudeatzeko, txostenak emateko, estatistikak egiteko, etab.	2010	Tresna abiaraztea.
5.4.10	Honako hauen arteko konexioa ahalbidetzeko beharrezko jardunak ezartzea: lantalde teknikoak, fiskaltzak, adingabeen epaitegiak eta gazte-justiziaren zerbitzua (justizia. bat-en ezarpena).	2009-2011	Egindako konexioa.
5.4.11	Gazte-justiziaren arloko prestakuntza-ekintzak programatzea epaile eta fiskalentzat, bi urtean behin.	2010 eta 2012.	Egindako ekintzak eta bertaratutako kopurua.
5.4.12	Espedientea hasten denetik Gazte Justiziaren Zerbitzuan epaia jakinarazten den arte igarotzen den denbora murrizteko programak ahalbidetzea.	2009	Epaitzeko batez besteko denboraren murrizketa-indizea.
5.4.13	Justizia Jauregien espazioen egokitzapena adingabe arau-hausleen eta biktimen egoaldi eta zirkulaziorako.	2011	Jauregietan egindako egokitzapenak.
5.4.14	Justizia Administrazioari buruzko Unitate Didaktikoan Gazte Justiziari buruzko arreta espezifiko barne hartzea.	2008	Eduki horiek unitate didaktikoan barne hartzea.
5.4.15	Arlo honi buruzko lantalde espezifiko bat sortzea JAEBan ⁶ .	2009-2012	Lantaldea eratzea eta egindako zereginak.
5.4.16	Gazte-justiziaren zerbitzuko ordezkariak eta lantalde psikosozialetako ordezkariak osatutako lantalde bat sortzea, mutilen eta nesken datu pertsonalen, familiakoen, sozialen, osasunekoen eta bestelako datuen bilketa homogeneizatzeko.	2009	Landutako protokolo bateratuak.

⁶ Ikus maiatzaren 8ko 81/2001 Dekretua, Justizia Administrazioaren Euskal Behatokiaren sorrerari eta erregulazioari buruzkoa.

8.5.5. Giza baliabideen Zuzendaritza

Ekintzak		Data	Adierazleak
5.5.1	Lantalde Psikosoziaren egitura, langileak eta prestakuntza-sistema plan honen premia espezifikotara egokitzea.	2009-2012	Profesionalen lan-kargak eta eskaera fiskalei eta judizialei erantzuteko denborak.
5.5.2	Adingabeen epaitegietako eta fiskaltzetako giza baliabideen egitura, langileak eta prestakuntza-sistema plan honen premia espezifikotara egokitzea.	2009-2012	Bulego horietako langileen lan-kargak.

8.5.6. Giza Eskubideen Zuzendaritza

Ekintzak		Data	Adierazleak
5.6.1	5/2000 Lege Organikoa Garatzeko Erregelamenduaren 58. artikuluan (1774/2004 ED) aurreikusitako ikuskapen-eginkizuna egitea.	2009-2012	Egindako ikuskapenak.

8.5.7. Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza

Ekintzak		Data	Adierazleak
5.7.1	Betearazi beharreko neurrien hasierako eta amaierako txostenetan informazioa biltzeko oinarritzko adierazleak ezartzea. Adierazle horiek, besteak beste, honako gai hauei buruzkoak izango dira: familia/bizikidetzatza, bizitzeko baliabideak, osasuna, eskola/prestakuntza, lana, dokumentazioa, kontsumo arazotsuak, etab.	2009	Landutako protokoloak.
5.7.2	Gazte-justiziaren zerbitzuko ordezkariak eta lantalde psikosozialetako ordezkariak osatutako lantalde bat sortzea, mutilen eta nesken datu pertsonalen, familiakoen, sozialen, osasunekoaren eta bestelako datuen bilketa homogeneizatzeko.	2009	Landutako protokolo bateratuak.

Ekintzak		Data	Adierazleak
5.7.3	Gazte-justiziaren zerbitzuko oinarrizko lan-gile-egitura finkatzea.	2010	Plantilla finkatzea, lan-postuak estaltzea.
5.7.4	Berrerortzeari buruzko aldizkako azterlanak eta ikerketak egitea.	2008 eta 2011	Egindako azterlanak
5.7.5	Ohiko adingabe arau-hausleei buruzko azterlan kualitatiboa eta esku-hartze Programa egitea (hasierako egoeraren, helburuen eta arrakasta-adierazleen diagnosiarekin).	2009	Azterlana argitaratzea eta Programa landu eta egikaritzea.
5.7.6	Osasun mentalari eta gazte-justiziari buruzko ikerketa bat egitea.	2010	Sailaren kanpoko erakunde batek ikerketa egitea.
5.7.7	Gazte-justiziako hezkuntza-zentroen Dekretu arautzailea onartzea.	2009	Adierazitako dekretua EHAAan argitaratzea.
5.7.8	Gazte-justiziako Hezkuntza Zentroen sailkapena berrikustea eta, hala badagokio, sailkapen berria definitzea.	2012	Zentroen sailkapen berria onartzea.
5.7.9	Gazte Justiziaren Zentro eta Zerbitzu bakoitzaren kudeaketaren ebaluazio-adierazleak denen adostasunarekin ezartzea, bereziki artatutako adingabeen premiak estaltzeari dagokionez (neurri bakoitza betearazteko Programa, arrakasta-adierazle homogeneoak eta Zentro eta Zerbitzu bakoitzeko espezifikoak baliatuta).	2011	Adierazleak onartzea eta abiaraztea.
5.7.10	Zentroko Proiektuak ebaluatzea eta gazte-justiziako zentroen hezkuntza-proiektuentzako ereduzko oinarrizko diseinua denen artean egitea.	2009-2010	KREIk eragin beharreko ebaluazio-txostena eta Sailak oinarrizko diseinua onartzea.
5.7.11	Gazte-justiziaren zentroen sarea maila desberdinetan eta 82tik 92ra bitarteko plaza kopuruarekin sendotzea.	2011	Maila bakoitzarentzat erabilgarri dauden zentroen eta plazen kopurua.
5.7.12	Sektorekako hezkuntzako esku-hartze programak lantzea (Hezkuntza Zentroen arduradunekin), Hezkuntza Zentro guztientzat bateratuak (osasun metala, laneratzea, etxebizitzarako sarrera, droga-kontsumoa, eta abar).	2010	Landutako eta egikaritutako programak. Programa bakoitzaren Ebaluazio partikularren adierazleak.

	Ekintzak	Data	Adierazleak
5.7.13	Egungo adierazleen ebaluazio eta berrikuspen bat egitea, neurriak ingurune irekian hautatzeko.	2011	Adierazle berriak onartzea.
5.7.14	Askatasuna kentzen ez duten neurriak betearazteko zerbitzuen eta programen sarea osatzea [ingurune irekiko Lantaldeak Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan, eta Eguneko Zentroak Bizkaian (20 plaza), Gipuzkoan (12 plaza), eta Araban (4 plaza)].	2008-2010	Zerbitzu erabilgarriak eta zerbitzu bakoitzeko plaza erabilgarrien kopurua.
5.7.15	Udalekin eta erakunde pribatuekin lankidetzaz hitzarmenak sinatzea sustatzea, gizartearen mesederako prestazioak egiteko, eta dauden hitzarmenak ebaluatzea.	2008-2012	Sinatutako hitzarmenen kopurua.
5.7.16	Toxikoen prebentziorako programen, kontsumoagatikoen arriskuen murrizketarako programen, bulkaden kontrol-programen, eta bestelako programen eraginpean jartzeko betebeharrarekin tratamendu anbulatorioko eta zaintzapeko askatasuneko neurriak betearazteko erakunde eta profesionalen talde egonkor bat sortzea.	2010-2011	Taldeko programak eta profesionalak.
5.7.17	Ingurune irekiko neurrien edukiei, prozedurei eta bestelakoei buruzko hausnarketa-jardun espezifikokoak egitea.	2009-2010	Jardunak egitea, berraztertutakoak, eta ebaluazioa.
5.7.18	Ingurune irekiko neurrien betearazpenerako moduei/ereduei buruzko ikerketa bat egitea, honako hauek barnean hartuta: profesional bakoitzaren lan-kargak, eta neurri mota bakoitzaren profesional-adingabe-gazte ratio «hoberenak».	2011	Ikerketa egitea.
5.7.19	Zentro, zerbitzu eta programei buruzko dibulgazio-materialak egitea.	2009-2010	Materialen argitaratzea eta dibulgazioa.
5.7.20	Adingabeentzako informazio-materialak lantzea, neurri judiziala jakinarazten den unean emanak izateko.	2009-2010	Materialak lantzea eta argitaratzea.
5.7.21	Justizia Sailburuordetzaren edo Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzaren parte-hartzea Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialean.		

Ekintzak		Data	Adierazleak
5.7.22	Gazte Justiziako Kongresu bat antolatzea.	2011	
5.7.23	Erakunde pribatu laguntzaileekin neurriak betearazteari buruzko eta Plan honetan aurreikusitako Programak lantzeari buruzko hausnarketarako talde egonkor bat sortzea (sei hilean behin).	2008-2012	Egindako bileren eta programen kopurua eta landutako protokoloen kopurua.
5.7.24	Ingurune Irekiko Zentro eta Zerbitzuen Arduradunen eta Zuzendaritzaren arteko koordinaziorako eta Plan honetan aurreikusitako Programak lantzeko talde egonkor bat sortzea (sei hilean behin).	2008-2012	Bilera kopurua
5.7.25	Gizartearen Mesederako Prestazioen neurria espezifikoki aztertzea (bilakaera, irizpideak, baliabideak, prozedura, eta abar).	2009	Ebaluazio-txostena
5.7.26	Neurrien betearazpenean arau-hauslearen eta biktimaren arteko bitartekotza Programa landu eta egikaritzea.	2009-2012	Egindako bitartekotzen kopurua
5.7.27	Kudeaketa-prozesuen kalitatezko ebaluazioa Ibaiondo Hezkuntza Zentroan eta Gazte Justiziaren Zerbitzuen, eta, hala badagokio, prozeduren kudeaketarako kalitatezko protokoloak lantzea.	2010-2012	Prozeduren kudeaketarako Protokoloak eta Txostena
5.7.28	Politika publikoen programazioko eta ebaluazioko prestakuntza eta zerbitzu publikoen kalitateari buruzko prestakuntza ematea Gazte Justiziaren Zerbitzuko eta Ibaiondo Hezkuntza Zentrotako funtzionarioei.	2009-2010	Jarduerak eta parte-hartzaileen kopurua
5.7.29	Haurrak eta nerabeak babesteko Foru Aldundiek dituzten zerbitzu espezializatuek eta autonomia-erkidegoko Gazte Justiziaren arloko eskumena duen Sailak lankidetzan jarduteko eta koordinatzeko protokoloa ezartzea (131/2008 Dekretuaren 10.2.e artikulua).	2009	Itundutako Protokoloen kopurua

9

Planaren kudeaketa eredua

9.1. Zuzendaritza koordinatzailea: Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren jarduera-arloen artean, adingabeen gaitan egin beharreko esku-hartzea urriaren 18ko 315/2005 Dekretuko 15. artikuluko h, i, j, k eta l idatz-zatietan ezartzen da (dekretu horren bidez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren organoen eta egitekoen egitura finkatu zen). Izan ere, aipatutako dekretuak ezartzen duenez, sail hori eskuduna da adingabe arau-hausleekiko esku-hartzea taxutzeko eta planifikatzeko, gazte-justiziaren arloko planak eginez eta ebaluatuz.

Hortaz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza izango da 2008-2010 Gazte Justizia Planaren organo kudeatzailea.

Planaren Ildo Estrategikoen arabera, Jaurlaritzaren honako sail hauek garatu beharreko helburuak eta ekintzak biltzen dira Planean: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila; Osasun Saila; Etxebizitza eta Gizarte Gaie-tako Saila; eta Herrizaingo Saila.

Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzak sail bakoitzaren helburuak eta ekintzak betetzearen gaineko kontrola koordinatuko du, eta baita horien ebaluazioa ere, horri buruzko informazioa zentralizatuta eta aurreikusitako ebaluazio-txostenak eginda.

Plana kudeatzeko eta ebaluatzeko beharrezkoa denean, batzorde tekniko bat eratuko da, Gazte Justiziaren Zerbitzuaren Arduradunak koordinatua, Zuzendaritzen izendatutako Zerbitzu Arduradunek osatuko dute, eta Gazte Justizia Planaren esparruan garatuko ditu ekintzak.

9.2. Metodologia eta Ebaluazio Egutegia

2008-2012 Gazte Justizia Planaren ebaluazioa betearazpenaldi osoan etengabe egin beharreko prozesu gisa pentsatu da. Bitarteko ebaluazioak aukera eman behar du diseinatutako helburuak eta bideak aztertu eta berrikusteko, eta, era horretan, betearazpenaldian biak birformulatu ahal izango dira.

Ebaluazioak honako printzipio eta irizpide hauen jarraipena egiaztatuko du: legezketasuna, eraginkortasuna, efizientzia, ekonomia, prebentzioa, bizkortasuna, erantzukidetasuna, lankidetzeta eta koordinazioa beste Herri Administrazioekin, eta etengabeko hobekuntza.

Ebaluazioa mistoa eta parte-hartzailea izango da, hau da, politika publikoen titularrak diren agente publikoek zuzentzen dute ebaluazioa, baina programazio- eta ebaluazio-metodologian kualifikatuak dauden eta hirugarren sektorean eta gizarte-politiken sektorean esperientzia duten kanpo-agenteen beharrezko aholkularitza eta laguntzarekin; horretaz gain, gazte-justiziaren sistemako agenteen partaidetza duen ebaluazioa egingo da, betiere aintzat hartuta agente horiek Planaren ekintza eta helburuetatik kanpokoak izango direla. Era berean, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzak administrazioaren plan-gintza- eta ebaluazio-ekintzari buruz ematen dituen irizpideak eta orientazioak kontuan hartuko dira.

Ebaluazioan honako hauek egingo dira: jardueraren ebaluazioa, aurreikusitako jarduerak egitea, emaitzen ebaluazioa eta inpaktuaren ebaluazioa, hau da, herritarrentzat pentsatutako helburuak gauzatzea.

Ebaluazioaren ezinbesteko mugarri gisa honako hauek azpimarratu behar dira:

- Aldiaren erdialdean, 2010. urtean, Gazte Justiziaren egoerari buruzko bitarteko ebaluazioa eta diagnostika → Hala badagokio, Planaren helburuen eta ekintzen berrikuspena.
- Planaren diseinu-metodologiari buruz kanpo-ebaluatzaile batek egindako analisia, ahal bada izaera publikokoa, aldiaren erdialdean egina, 2010. urtean.
- Gazte Justizia Planaren azken ebaluazioa eta Gazte Justiziaren egoerari buruzko diagnostika, Planaren amaieran, 2013. urtean. Diagnostiki horren ondorio gisa, Gazte Justizia Plan berri bat egin behar den ala ez balioetsiko da.

Planean zehaztutako helburuen betetze-mailaren eta helburu horiek lortzeko aurreikusitako ekintzen gauzatze-mailaren ebaluazio hau arestian adierazitako batzorde teknikoaren bitartez egingo da; batzordea inplikaturiko Sailek osatuko dute, Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzak koordinatuko du, eta ebaluazio-zirriborroa egiteaz eta informazioa biltzeaz arduratuko da. Bi ebaluazioak dagokion Zuzendaritzek onartuko dituzte.

Ebaluazioaren erantzukizun eta zuzendaritza publikoari uko egiten badio, metodologia-aholkularitzako lanak eta ebaluazioa egiteko beharrezkoak diren lanen zati bat kanpo-agenteen esku utzi ahal izango dira; agenteak ahal bada izaera publikokoak izango dira, hala nola Kriminologiaren Euskal Institutua edo beste batzuk.

Ebaluazio-prozesuan kontuan hartuko dira Arartekoaren urteko txostenak, eta Autonomia Erkidegoek eta adingabe arau-hausleen arloan Autonomia Erkidegoen koordinaziorako eskumena duen Ministerioak egindako txostenak.

Era berean, Gazte Justiziaren egoeraren ebaluazioa eta diagnosia egiteko honako hauek kontuan hartuko dira:

- Arartekoaren txostenak.
- Estatuko Fiskaltza Nagusiaren urteko memoriak.
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren memoriak.
- Justizia Administrazioaren Euskal Behatokiaren memoriak.
- EAEko Haurren Behatokiaren memoriak.
- EAEko Adingabearentzako Defentsa Bulegoaren memoriak.
- Eragile sozio-politikoek parte-hartzeko mekanismoetan oinarritutako beste iturri batzuk.
- Inkesta sakonak eta eztabaida-taldeak Adingabeen Epailleekin, Fiskalekin, Abokatuekin, Hezitzaileekin, Erakunde laguntzaileekin, Adingabeekin, Familiekin, eta sistemako beste agente batzuekin.

Ebaluazio sistematiko orokor hauetaz gain, helburu eta ekintza espezifikoek buruz espezifikoek aurreikusten diren ebaluazioak egingo dira, betiere ezartzen den tenporalizazioarekin.

Aurreikusitako ekintzek adierazten dituzten **Programa Sektorial** guztiek, konpondu beharreko arazoaren diagnosia eta helburua betetzeko adierazleei lotutako helburu espezifikoak barnean hartuko dituzte, Programa bakoitzaren emaitzen ebaluazioa ahalbidetuz.

Adierazitako ebaluazioak egiteko ildo eta adierazle nagusiak honako hauek dira:

1. *Jarduera judiziala eta Fiskala: epaitegi bakoitzeko eta globalki.*

- Tipologiaren bilakaera.
- Adingabeen Lantalde Teknikoen eginkizunetan, Lantalde Psikosozialen Txostenak.
- Aldez aurreko Eginbideen, Atzera egiteen, epaiketa-aurreko konponketa duten Espedienteen, epaia duten Espedienteen, Epai kondenatzaileen, Absoluzio-epaien eta Adostasun-epaien arteko harremana.
- Kautelazko neurriak eta zehapen-neurri irmoak.
- Biktimarengandik aldentzeko neurriak.
- Neurri mota.
- Delitu motaren araberako neurri mota.
- Neurrien iraupena.
- Egitateak egin diren uneko adina.
- Egitateen eta erantzun judizialaren arteko atzerapena.
- Neurrien aldaketak: etendurak, eraginik gabe uztea, aldaketa, etab.
- Betearazpen-planen onarpen positiboak.
- Neurri bat ezartzen zaien pertsonen tipologia orokorrak: lantalde teknikoen txostenak.

2. *Epaiketa-aurreko Konponbideak: Lantalde Teknikoak.*

- Egilearen eta biktimaren arteko bitartekotzak; biktimarik gabeko bitartekotzak. Prozesuen emaitza.
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartze proposamenak.

- Espedientearekin ez jarraitzeko proposamenak.
- Modalitateak: biktimen parte-hartzea.
- Irekitako espedienteekiko harremana: ehunekoak.
- Hutsegite eta delitu moten arabera.
- Artatutako pertsonen tipologia: adina, sexua, egitateak, familia-ezaugarriak, gizarte-ezaugarriak, etab.
- Justizia berrezartzailearen printzipioetara egokitzea.

3. *Gazte Justiziako Zentroak: barneratzeko neurria, asteburuko egonaldiko neurria, eta talde hezitzaileetako bizikidetzako neurria betearaztea.*

- Betearazitako neurriak: motak eta iraupena.
- Beste zentro eta zerbitzuetara bideratzea.
- Aldatutako neurriak.
- Txostenak ematea: epeak betetzea eta edukien kalitatea.
- Zehapen-prozedurak: intzidentziak, zehapen-erantzunak, etab.
- Okupazio-indizeak.
- Plantillako aldaketak.
- Hezkuntza-proiektuen aldaketak eta eguneratzeak.
- Artatutako pertsonen tipologia: adina, sexua, egindako egitateak, delituan berrerortzea, familia-aldagaiak, gizarte-aldagaiak, etab.
- Garatutako betearazpen-programak.
- Betearazpenean adiskidetzeko eta konponketarako bitartekotzak.
- Emaizta hezitzaileak eta berrerortze-emaizak.

4. *Ingurune irekiko programak eta zerbitzuak.*

- Betearazitako neurriak: motak eta iraupena.
- Neurrien aldaketak: motak.

- Erakunde laguntzaileak neurri motaren arabera: harreman motak.
- Profesional bakoitzeko lan-kargak: neurria/adingabeak/profesionalak ratioak.
- Artatutako pertsonen tipologia: adina, sexua, egitateak, familia-ezaugarriak, gizarte-ezaugarriak, etab.
- Betearazpenean adiskidetzeko eta konponketarako bitartekotzak.
- Emaiza hezitzaileak eta berrerortze-emaizak.

5. *Arau-haustean berrerortzea eta lorpen-adierazleak.*

- Arau-haustean berrerortzea: aldagai ohikoenak.
- Ez berrerortzea: aldagai ohikoenak.
- Neurrien araberako emaitzak: aldagai diskriminatzaileak.
- Auresateko adierazleen identifikazioa.
- Beste sistema eta herrialde batzuekin konparatzea.

6. *Gazte Justiziaren zerbitzua: elementu orokorrak.*

- Prestakuntza: jarduerak, etab.
- Plantillak: bilakaera.
- Araudi-aldaketak.
- Kudeaketa hobetzeko prozesuak.
- Aurrekontu-arloko kontrola eta jarraipena.

7. *Sailen arteko koordinazioa eta eremuak.*

- Eremuak: epaiak, fiskalak, lantalde teknikoak, Eusko Jaurlaritzaren Sailak, Foru Aldundiak, Udalak, Administrazio Zentrala, erakunde pribatuak, etab.

Koordinazioko eta lankidetzako organo egonkorretan parte hartzea: aholkuak, behatokiak, etab.

Baliabide ekonomikoak: lantalde psikosozialak

	Profesionalak	Ordainsarien kostua + Itzarri	Gizarte Segurantzako kostua	Guztizko kostua
2008	32	1.793.946	447.936	2.241.882
2009	32	1.865.704	465.853	2.331.557
2010	32	1.940.332	484.487	2.424.819
2011	32	2.017.945	503.866	2.521.811
2012	32	2.098.663	524.021	2.622.684
Guztira		9.716.590	2.426.163	12.142.753

Lantalde Psikosoziala —psikologiako, gizarte-laneko eta gizarte-hezkuntzako profesionalez osatua— organikoki Justizia, lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren Giza Baliabideen Zuzendaritzaren eraginpean dago. Aurrekontu-kreditu horiek egun Zuzendaritza honi esleitutako eginkizunei dagozkie.

Gazte Justiziaren eremuan, funtzionalki Epaitegien eta Fiskaltzen eraginpeko Lantalde Teknikoei dagokienez (5/2000 LOaren 27. artikulua), horien eginkizunak adingabeen Epaitegiek eta Fiskaltzek eskatuta egingo dira. Mendekotasun organikoa Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailarena da.

Lantalde horiek osatzen dituzten pertsonak, adingabeen jurisdikzioan egiten duten lanaz gain, peritazio-eginkizunak egingo dituzte beste jurisdikzio batzuetan.

Plangintza eta Ekonomia Gaietako Batzorde Delegatuaren Erabakiak, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2009. urterako Aurrekontu Orokorrak egiteko Jarraibide Ekonomikoak onartzen dituenak (2008ko ekainaren 12koa), langile funtzionario, laneko eta aldi baterako ordainsari-igoerei dagokienez ezartzen duenez, negoziazio-prozesu kolektiboan

ondorioztatzen direnak izango dira, eta gehieneko muga Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legean zehazten dena izango da.

Taulan adierazitako aurreikuspena urtean % 4ko igoera-estimazioan oinarrituta egin da, arestian adierazitako irizpideen mende geratuta.

Baliabide ekonomikoak: ingurune irekia

	2008	2009	2010	2011	2012	Guztira
Bizkaiko ingurune irekia	618.948	649.895	682.390	716.510	752.335	3.420.078
Gipuzkoako ingurune irekia	318.852	334.795	400.035	420.036	441.038	1.914.756
Arabako ingurune irekia	188.811	198.251	208.164	218.572	229.500	1.043.298
Bizkaiko eguneko zentroa	450.144	472.651	496.284	521.098	547.153	2.487.330
Gipuzkoako eguneko zentroa	129.500	295.500	310.275	325.789	342.078	1.403.142
Arabako eguneko zentroa						
Guztira	1.706.255	1.951.092	2.097.148	2.202.005	2.312.104	10.268.604

	2008	2009	2010	2011	2012	Guztira
Gizartearen Mesederako Prestazioak	30.000	30.000	30.000	30.000	30.000	150.000
Tratamendu ambulatorioak	90.000	85.000	89.000	94.000	99.000	457.000
Guztira	120.000	115.000	119.000	124.000	129.000	607.000

Idatz-zati honetan bildutako baliabide ekonomikoen helburua da ingurune irekiko neurriak betearazteak —zaintzapeko askatasuna, eguneko zentro batera joatea, gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginak egitea, tratamendu ambulatorioak eta gizartearen mesederako prestazioak— eragiten dituen langile, instalazio, kanpo-zerbitzu eta abarregatikoko gastuei aurre egitea.

Adingabeen Epaitegiek ezarritako neurrien betearazpenari buruzko gainerako kredituen moduan, egun Justizia Sailaren Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzari esleitutako eginkizunei dagozkie.

2008. urterako aurreikusitako gastuak 469.990 eurotan gainditzen du espezifikoki esleitutako kredituen zenbatekoa, eta Zuzendaritzaren beste soberako kreditu batzuetan oinarrituta egindako transferentziaren bitartez ordainduko da.

Baliabide ekonomikoak: hezkuntza zentroak

	2008	2009	2010	2011	2012	Guztira
Ibaiondo HZ	4.641.000	4.873.050	5.116.702	5.372.538	5.641.164	25.644.454
Uribarri HZ	1.600.512	1.680.538	1.764.565	1.852.793	1.945.432	8.843.840
CEMAR	741.000	778.050	816.953	857.800	900.690	4.094.493
Andoiu HZ	789.600	829.080	870.534	914.061	959.764	4.363.039
Mendixola HZ	95.000	—	1.150.000	1.164.225	1.222.436	3.631.661
Bilboko Autonomia Egoitza	425.135	446.393	468.712	492.148	516.755	2.349.143
Gasteizko Autonomia Egoitza	327.000	343.350	360.518	378.543	397.470	1.806.881
Donostiako Autonomia Egoitza 1	327.000	343.350	360.518	378.543	397.470	1.806.881
Donostiako Autonomia Egoitza 2	425.135	446.393	468.712	492.148	516.755	2.349.143
Guztira	9.371.382	9.740.204	11.377.214	11.902.799	12.497.936	54.889.535

Gazte Justiziako zentrozen segurtasun gastuak

Urtea	Ibaiondo HZ	CEMAR	Araba	Guztira
2008	537.497	110.719	205.000	853.216
2009	564.371	116.255	215.250	895.876
2010	592.590	122.068	365.000	1.079.658
2011	622.219	128.171	383.250	1.133.640
2012	653.330	134.580	402.412	1.190.322
Guztira	2.970.007	611.793	1.570.912	5.152.712

Baliabide ekonomikoak: obrak zentroetan

Gazte Justiziaren hezkuntza-zentroetako obrak, mantentzeak, hornidurek eta garbiketak eragiten dituzten gastuak Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak ordainduko ditu.

	2008	2009	2010	2011	2012	Guztira
Mendixola HZ	1.100.000 O	1.700.000 O 300.000 Mo				
Ibaiondo HZ	360.000 O 38.000 G 130.000 Mn	100.000 O 40.000 G 135.000 Mn	40.000 O 42.000 G 140.000 Mn	45.000 O 44.000 G 145.000 Mn	50.000 O 46.000 G 150.000 Mn	
Uribarri HZ	700.000 O	120.000 O 150.000 AL				
Bizkaia HZ (berria)			1.500.000 O	1.500.000 O	1.000.000 O 400.000 AL	
Guztira	2.328.000	2.545.000	1.722.000	1.734.000	1.646.000	9.975.000

O: Obrak.

G: Garbiketa.

Mn: Mantentzea.

AL: Altzariak.

Aurrekontu-kredituak, bai Segurtasunari buruzkoak, bai Obrei, garbiketari eta mantentzeari buruzkoak, gaur egun Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren esku jarritako eginkizunei dagozkie.

Gazte Justizia Planaren ebaluazioa

2010. urtean eta 2012. urtean, ebaluazioa Metodologiari buruzko idatz-zatian aurreikusten denez, beharrezkoa izango da kanpoko aholkularitza eta laguntza metodologiko bat kontratatzea, eta baita ebaluazioa egiteko beharrezko informazioa biltzeko lan batzuk egitea ere (agiriak biltzea, estatistikak egitea, elkarriketa sakonak, eztabaida-taldeak eta

bestelako metodo kualitatiboak), eta, horretarako, honako aurreikuspen ekonomiko hau beharko dela aurreikusi da: 30.000 € 2010. urtean, eta 40.000 € 2012. urtean.

Era berean, programatutako politika publikoen gizarte-inpaktuaren ebaluazioa egiteko aukera emango duten ikerketa partikularrak egite aldera, kanpoko laguntza eta aholku teknikoan honako gastu hauek aurreikusten dira: 15.000 € 2010. urtean, eta 20.000 € 2012. urtean.

Giza baliabideak 2008-2012 aldiko zentroak eta zerbitzuak

Gazte Justiziako hezkuntza zentroyen plantillak (2008-2012)

	Zuzendaritza		Koordina- tzaileak eta teknikariak		Hezitzaileak		Maisu / maistrak		Zerbitzuak eta administrazioa	
	2008	2012	2008	2012	2008	2012	2008	2012	2008	2012
Ibaiondo HZ	3	3	9	9	50	50	12	12	2	2
Uribarri HZ	2	2	3	3	16	16	2	2	3	3
CEMAR	1	1	2	2	8	8	2	2	1	1
Andoiu HZ	1	1	1	1	10	10	2	2	1	1
Mendixola HZ	0	1	0	2	0	12	0	2	0	2
Bilboko Autonomia Egoitza	—	—	1	1	7	7	—	—	—	—
Gasteizko Autonomia Egoitza	—	—	1	1	5	5	—	—	—	—
Donostiako Autonomia Egoitza 1	—	—	1	1	5	5	—	—	—	—
Donostiako Autonomia Egoitza 2	—	—	1	1	7	7	—	—	—	—
Guztira	7	8	19	21	108	120	18	20	7	9

Ingurune irekiko programak: profesionalak

	2008	2009	2010	2011	2012
Bizkaiko ingurune irekia	14	14	15	15	15
Gipuzkoako ingurune irekia	7	7	8	8	8
Arabako ingurune irekia	4	4	4	4	4
Bizkaiko eguneko zentroa	8	8	8	8	8
Gipuzkoako eguneko zentroa	4	4	4	4	4
Arabako eguneko zentroa	2	2	2	2	2
Guztira	39	39	41	41	41

1. 2004-2007 aldiaren eboluzioa

1.1. 2004-2007 aldiko legegintza-bilakaera

Adingabeen erantzukizun penalari dagokionez, gaur egun aplikatu behar den legeria Adingabeen Erantzukizun Penalari arautzen duen otsailaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa da (2001eko otsailaren 13an jarri zen indarrean). Lege hori indarrean jarri zenean nabarmen aldatu ziren Adingabeen Epaitegiek ezarritako gazte-neurriak beteazterako baldintzak. Esate baterako, erantzukizunaren adina 12-16 adin-tartea izatetik 14-18 adin-tartea izatera igaro da; aplika daitezkeen zehapenek iraupen luzeagoa dute eta larriagoak dira; eta neurriak ezartzeko eta beteazterako prozesuaren arautegia aurrekoa baino sakonagoa da. Neurriak beteazterako 2004-2007 Planean ikus daitezkeen bezala, 2000-2003 aldiko esperientziak erakutsi du beteazterari behar diren neurrien kopurua nabarmen hazi dela; izan ere, 2000n 235 ziren, 2003an, aldiz, 761. Horren ondorioz, ahalegin handia egin behar izan da neurriak beteazterako baliabide materialen eta pertsonalen kopurua igotzeko.

Lege Organiko hori, indarrean jarri aurretik ere, nabarmen aldatu zuten honako Lege Organiko hauek: abenduaren 22ko 7 eta 9/2000 Lege Organikoek, abenduaren 10eko 9/2002 Legeak, azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoak eta abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak (Ikus 2004-2007 Gazte Justiziaren Planaren hitzaurrea).

Legegintzari dagokionez, garrantzi handiko bi berrikuntza izan dira 2004-2007 aldian: 5/2000 Lege Organikoa Garatzeko Arautegia onartzen duen uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretua, eta 5/2000 Lege Organikoa aldatzen duen 8/2006 Lege Organikoa (2007ko otsailean jarri zen indarrean).

Uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuak 5/2000 Lege Organikoa garatzen du 85 artikulutan. Gobernuak araudi hori ebaluatu beharko zukeen, urtebeteko epean 2004ko

abenduaren 30ean indarrean jarri zenez geroztik, Autonomia Erkidegoei kontsulta eginez. Haatik, hiru urte geroago, ebaluazioa ez da oraindik egin.

Arautegian, poliziaren eta Lantalde Teknikoen jardunari buruzko alderdiak arautu dira, eta, funtsean, neurriak betearazteko arauak: printzipioak, eskumena, zenbait neurri betearaztea, neurri bakoitzerako arau espezifikoak, askatasuna kentzen ez dutenak zein kentzen dutenak, askatasuna kentzen duten neurriak aplikatzeko erabiltzen diren zentroyen bizitzari arreta berezia eskainiz: komunikazioak, lekualdatzeak, bisitaldiak, irtenaldiak, laguntza, diziiplina-araubidea, segurtasuna eta abar.

Arautegia onartu izanak Gazte Justiziaren Zerbitzuko prozesu eta funtzionamendua egokitu beharra ekarri zuen berekin, eta, horretarako, Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzak Segurtasuneko eta Diziiplina Araubideko Eskuliburuak egin behar izan zituen Zentro guztientzat.

8/2006 Lege Organikoari dagokionez, adierazi beharra dago aldatutako Lege Organikoaren testuak dagoeneko ez duela koherentziarik 5/2000 Lege Organikoaren Arrazoen Azalpenarekin.

8/2006 Lege Organikoak eragin zuen Lege Proiektuari dagokionez, lau kidek Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren txostenari emandako boto partikularrak adierazten duenez, horren azpian dagoen politika kriminala zehapen-xedea handitzean oinarritzen da, neurrien iraupena eta segurtasunaldia handituz (10. artikulua) eta espetxe-erantzunaren bitartez (14. artikulua), zehapen- eta hezkuntza-izaera duen horrelako lege batean funtsezkoak diren gizarteratze-neurrien kaltetan.

Neurrien gehieneko iraupena urtebetean handitu da, oro har, baldin eta Legearen Ebaluazioak egiaztatzen badu 5/2000 Lege Organikoa aplikatu den ia 5 urtean delitu larrien gorakadarik ez dela gertatu.

Legea aldatzeko erabilitako metodologia ez zen egokitu 6. Xedapen Gehigarrian ezarritakora, ez Legearen ebaluazioari —ez zuen Autonomia Erkidegoko daturik bildu— ez Autonomia Erkidegoei eginiko kontsultari dagokionez, eta horixe adierazi zion Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak Justizia Ministerioari. Batzorde Sektorialean ere horixe bera adierazi zen.

Jaurlaritzak ez du onartzen 5/2000 Lege Organikoa 18 urtetik 21 urtera bitarteko tarteari aplikatzeko aukera behin betiko kentzea, eta horren ondorioz, Zigor Kodea aldatzea indarreko 69. artikulua kenduz, legegintza-izapidean adierazi den moduan.

Auzitegi Nazionalaren mende dagoen Adingabeen Epaitegi Zentralari 14 eta 18 urte bitarteko adingabeak epaitzeko eskumena esleitzea honako behar honek justifikatzen du: «delitu terroristen erantzule diren adingabeen jarrerren epaiketa, epaitutako egitateen izaerarako baldintza egokienetan egin behar da» (7/2000 Lege Organikoaren Hitzaurrearen V. idatz-zatia).

Horri dagokionez, gogoratzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoak eskumena duela adingabeen ezarritako neurrien betearazpenaren arloan (Autonomia Estatutuaren 10.14 artikulua, eta 5/2000 Lege Organikoaren 45. artikuluan ezarritakoa). Hortaz, 7/2000 Lege Organikoa araudi hori isilbidez indargabetzea ekarri zuen berekin. Eusko Jaurlaritzak adierazi zuen erreforma horren aurka zegoela erabat, eta balorazio negatibo hori berretsi du, baita 5/2000 Lege Organikoa ardatz dituen printzipioekiko errespetuaren aldarrikapena ere, printzipio horiek hautsi egin baitira Autonomia Erkidego honen eskumenen kalterako. Gainera, Gazte Justiziaren 2004-2007 Planean neurri judizial guztien betearazpen osoaz arduratzeko borondatea adierazi du, inolako salbuespenik gabe.

Azkenik, eta 8/2006 Lege Organiko horren haritik, aipatzekoa da Estatuko Fiskaltza Nagusiak 2007ko azaroaren 1/2007 Zirkular zabala onartu zuela, 2006ko adingabeen zigorlegeriaren erreformaren ondorengo interpretazio-irizpideei buruzkoa, eta hartan legegileak sartutako aldaketei buruzko interpretazio zehatzak bildu direla.

1.2. EAEko Adingabeen Fiskaltzen eta Adingabeen Epaitegien jardueraren bilakaera

Atal honetan, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren urteko memorietatik ateratako zenbait datu aurkezten ditugu, Adingabeen Fiskaltzek eta Epaitegiek Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan egin duten jarduera hobeto ezagutzeko aukera emango digutelakoan.

Bestetik, datu horiek lagungarri gertatuko dira Eusko Jaurlaritzaren ekintzaren testuinguru zehazteko, Adingabeen Epaitegiek emandako neurri judizialak betearazteko ardura-

duna den aldetik, legeriak esleiturikoaren arabera, Gazte Justiziaren globaltasunari dagokion jardun-esparruaren barruan.

Iturburuek emandako datuak aurkeztu aurretik, honako bi hauek hartu behar dira aintzat:

- Informazioak 2004., 2005. eta 2006. urteak bakarrik hartzen ditu eraginpean, ebaluazioa egiteko unean 2007ko datuak argitaratu gabe baitzeuden.
- Erakunde baten eta bestearen zenbakiak ez datoz bat, nahiz eta kontzeptu, adierazle edo eremu berberari buruzkoak izan.

Hasteko, Euskadiko Adingabeen Fiskaltzen datuak aurkezten dira. Estatuko Fiskaltza Nagusiko urteko Memoretatik jaso dira.

Aldez aurreko eginbideak

	Hasitakoak				Artxibatuak				Atzera egitea (18. artikulua)			
	2004	2005	2006	2007	2004	2005	2006	2007	2004	2005	2006	2007
Araba	409	449	328	347	89	132	100	74	40	76	79	64
Gipuzkoa	783	774	820	886	153	153	22	211	60	59	37	78
Bizkaia	1.512	1.369	1.477	1.390	692	362	533	313	83	43	79	83
Guztizkoa	2.704	2.592	2.675	2.623	934	647	655	598	183	178	195	225

Irekitako eginbideei buruzko kopuru globalei dagokienez, aipatzekoa da denboraldian oreka dagoela. 2004. urtetik 2007. urtera bitarte 81 eginbide gutxiago egon dira, hau da, % 3ko beheranzko aldaketa. Horrenbestez, erreferentzian beherakada txiki bat gertatu dela ondorioztatzen da.

Artxibatutako eginbideei dagokienez, datuek beheranzko joera erakusten dute. 2007an 2004an baino 336 espediente gutxiago artxibatu dira, hau da, % 36ko jaitsiera gertatu da. Aldakuntza esanguratsua da, eta artxibaturiko eginbideek beheranzko joera hartu dutela ematen dute aditzera, eta, ondorioz, esku-hartze judizialaren gorakada ere ematen dute aditzera, ikerturiko egitate kopurua antzekoa dela oinarritzat hartuta.

Ireki ondoren atzera egindako txostenen atalean, 2004tik 2007ra bitarte 42ko igoera nabari da (% 33), igoera nabarmena, beraz, baina esan beharra dago igoera hori batez ere Araban geratu dela, eta neurri txikiagoan Gipuzkoan.

Erreforma espedienteak

	Irekiak				Artxibatua				Inhibizioa			
	2004	2005	2006	2007	2004	2005	2006	2007	2004	2005	2006	2007
Araba	200	241	180	183	48	58	78	42	5	8	—	15
Gipuzkoa	374	346	408	494	254	102	141	99	4	1	5	2
Bizkaia	770	682	673	661	82	43	108	66	5	2	—	1
Guztizkoa	1.344	1.269	1.261	1.338	384	203	327	207	14	11	5	18

Euskal Autonomia Erkidego osoan guztira 6 erreforma-espediente gutxiago ireki ziren; hortaz, esan dezakegu egoera erabat orekatuta dagoela.

Fiskaltzen eta Erreforma Espedienteen esku-hartzeek, oro har, behera egin badute ere, betearazi beharreko neurri kopuruan ez da beheranzko joera hori nabari. Aitzitik, neurrietan hazkunde egonkorak ageri dira, % 5en ingurukoak. Zehatzago, 2004tik 2007ra, aldi berean, 93 neurri irmo gehiago ezarri dira, hau da, % 9,63 gehiago.

2007. urtean, 14 urtetik 18 urtera bitarteko 67.917 pertsona zeuden erroldatuta EAEn, eta hori aldez aurreko eginbideei, irekitako espedientei eta epaiei buruzko datuen aldean jartzen badugu, esku-hartzeari buruzko ehuneko handi bat ondorioztatzen da. Nolanahi ere, esan beharra dago adingabe batek espediente bat baino gehiago eduki dezakeela, eta, espediente baten barnean, egotzitako pertsona bat baino gehiago har daitekeela.

Lurralde lurraldeko azterketa bat egiten badugu, honako hau ikus dezakegu:

- 2004tik 2007ra bitarte, Araban % 8,5eko jaitsiera nabari da. Hala ere, 2005ean % 20ko igoera egon zen.
- Gipuzkoan, Araban gertaturikoaren aurkakoa gertatu da. 2004tik 2007ra bitarte, % 32,1eko hazkundera nabari da. 2004tik 2005era bitarte, aldiz, % 7,5eko jaitsiera nabari da.

- Bizkaiko datuek aditzera ematen dute 2004tik 2007ra bitarte % 14,1eko jaitsiera gertatu dela, eta joera hori 2004tik 2005era bitarte ere nabari zen.

Ondorio gisa, jaitsiera orokorra Araban eta bereziki Bizkaian gertatu dela esan dezakegu. Gipuzkoan, aldiz, beste bi lurraldeenaren aurkako joera nabarmena nagusitu da.

Artxibatutako espedientei dagokienez, oro har, beheranzko joera nabari da, 2007an 2004an baino % 46,1 gutxiago artxibatu baita. Urtez urte irekiak eta artxibatuak alderatzen baditugu, erlazioa honako hau da:

- 2004: % 28,6 artxibatu da.
- 2005: % 16 artxibatu da.
- 2006: % 25,9 artxibatu da.
- 2007: % 15,5 artxibatu da.

Horri dagokionez, lurraldearen arabera honako datu esanguratsu hau ikus daiteke: Gipuzkoan Euskal Autonomia Erkidekoan urte bakoitzean artxibatutako espediente guztien % 66,1, % 50,2, % 43,1 eta % 47,8 artxibatu da. Araban aldiz, 2004an artxibatutako espedienteen % 12,5 artxibatu zen, 2005ean artxibatutakoen % 28,6, 2006an artxibatutakoen % 23,8 eta 2007an artxibatutakoen % 20,3. Azkenik, Bizkaian espedienteen % 21,3, % 21,2, % 33 eta % 31,9 artxibatu zen, 2004an, 2005ean, 2006an eta 2007an, hurrenez hurren.

Epaiak 2004-2007: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

	Absoluzio epaiak					Kondena epaiak					Adostasun epaiak				
	2004	2005	2006	2007	Gutziz.	2004	2005	2006	2007	Gutziz.	2004	2005	2006	2007	Gutziz.
Araba	8	11	5	10	34	95	38	28	28	189	73	113	63	73	322
Gipuzkoa	49	21	15	25	110	166	214	67	98	545	98	149	163	202	612
Bizkaia	54	84	85	48	271	84	279	405	103	871	232	197	132	351	912
Gutzizkoa	111	116	105	83	415	345	531	500	229	1.605	403	459	358	626	1.846

Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.

2004-2007 Denboraldiko guztizko epaiak

Araba	545
Gipuzkoa	1.267
Bizkaia	2.054
<hr/>	
Guztizkoa	3.866

2004., 2005., 2006. eta 2007. urteetako Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren memoriatik ateratako datuetatik, honako hauek nabari daitezke:

- Denboraldi horretan guztira 3.866 epai eman dira. Horietatik % 14,1 (545) Araban eman da, % 32,8 (1267) Gipuzkoan, eta gainerako % 53,1a (2.054) Bizkaian.
- Adostasunik gabeko kondena-epaiak 1.605 dira, 2004-2007 denboraldiko epai guztien % 41,5.
- Adostasun-epaiak, berriz, 1.846 izan dira, % 47,7 alegia.
- Adostasun-epaiak kondena-epaiak direnez, kondena-epaiak guztien % 89,3 dira.

Errealitate hori hiru Lurralde Historikoetan aztertzen badugu, honako alde hauek aurkitzen ditugu:

- Araban: 545.
 - Absolutzio-epaiak: % 6,2.
 - Kondena-epaiak: % 34,7.
 - Adostasun-epaiak: % 59,1.
- Gipuzkoan: 1.267.
 - Absolutzio-epaiak: % 8,7.
 - Kondena-epaiak: % 43.
 - Adostasun-epaiak: % 48,3.

- Bizkaian: 2.054.
 - Absoluzio-epaiak: % 13,2.
 - Kondena-epaiak: % 42,4.
 - Adostasun-epaiak: % 44,4.

Argitaratutako datuetan ikus daitekeenez, aldeak nabariak dira. Absoluzio-epaien kopurua bi aldiz handiagoa da Araban Bizkaian baino. Adostasun-neurriak, aldiz, Bizkaian baino 15 puntu gutxiago dira.

Bizkaiko Epaitegiei 2006. urtera bitarteko datu horien berri eman zaie, eta okerrak direla eta haiek dituztenekin bat ez datozela esan digute. Ez dakigu zergatik gertatu den estatistika-oker hori. Nolanahi ere, Bilboko Epaitegiek adierazi dute 2006. urteko adostasun-epaien kopurua askoz ere handiagoa dela Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren estatistikan jasotakoa baino. Horrelaxe izan behar du, 2006. eta 2007. urteko kondena-epaiei buruzko datuetatik ondorioztatutakoaren arabera.

Edozein kasutan ere, amaitzeko, berriz era azpimarratu beharra dago alde handiak ageri direla Fiskaltzak, Auzitegi Nagusiak eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak emandako datuen artean, eta horrek ez du argi uzten datu horiek fidagarriak diren edo ez, eta oztopoa ere bada gure Autonomia Erkidegoko gazteek egiten dituzten arau-hausteen eta zigor-erantzunaren errealtateari buruzko azterketak eta azterlanak egin ahal izateko.

Adingabeen jurisdikzioaren jardura judizialari dagokionez, Arartekoak Eusko Legebiltzarrari igorritako 2007ko Urteko Txostenean honako ondorio hauek nabari dira (1998. urteaz geroztik urtero-urtero, adingabe arau-hausleei buruzko atal espezifiko bat dakar txosten horrek):

- Denbora gehiegi igarotzen da delitua gauzaten denetik neurria ezarri arte.
- Epaitegi batetik bestera alde handiak daude neurriak aplikatzerakoan.
- Aldez aurreko eginbideen ehuneko handi bat neurria ezarri gabe ebazten da.

Azken batean, Arartekoak 2004an nabarmendutako kezka-iturburuetako batzuk ageri dira:

- Sistema judizialaren moteltasuna.
- Gazte-justizian, babes-arlotik eratorritako adingabeek behar baino ordezkaritza handiagoa dute.
- Neurrien iraupena handitu da, eta alde handiak daude epaitegien artean.
- Problematika berriak ageri dira (familia barneko erasoa, osasun mentala, toxikomaniak eta abar).

Horren guztiaren ondorioz, Araratekoak honako ondorio hau ateratzen du (344. orrialdea): «adingabeen erantzukizun penala arautzen duen legea aplikatzerakoan oraindik ere gabeziak daude, ez bakarrik erakunde publiko eskudunak baliabide mugatuak dituelako edo antolakuntzako arazoak dituelako —alderdi horretan hobekuntza nabarmenak izan dira—, baizik eta baita sistema judizialak mugak edo jardunbide jakinak dituelako ere».

1.3. Neurrien bilakaera 2004-2007 aldian

1.3.1. *Neurri irmoen eta kautelazkoen bilakaera*

Gazteen neurriei buruzko estatistika-datu guztiak Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzako Gazte Justiziaren Zerbitzua kudeatzeko datu-baseetatik lortzen dira.

Neurrien bilakaerari dagokionez, igoera orekatua izatea da 2004-2007 aldiaren ezaugarri nagusia. Lau urtean, 1.017 neurri izatetik 1.147 izatera igaro da; igoera globala % 13,45 izan da, % 5etik beherako igoerak izanik urte bakoitzean.

Neurri irmoak —harreman zuzenagoa dute Erreforma Espedienteekin— 963tik 1.080ra igo dira, hau da, % 12,15. Nolanahi ere, kautelazko neurriak —prozedura bideratu bitartean erabaki dira— 48tik 67ra igo dira, hau da, % 39,58.

2007an, neurriak betearazteko 655 adingaberekin esku hartu da, horrek esan nahi du 2007an EAEn erroldatutako 14-18 urteko 67.917 laguni dagokionez, 5/2000 Lege Organikoaren biztanleria hartzailearen % 0,96 dela, hots, 100.000 lagunetik 964,41. Zenbateko hori 100.000 biztanletik Estatuan atxilotuta dauden 148 helduekin alderatzen badugu,

gazteekiko esku-hartzearen ratioa askoz handiagoa dela ohartzen gara, eta hori kontraesan dago adingabeen zigorgabetasun-irudi faltsuarekin. Arartekoak ere hori nabarmendu du 2007. Urteko Txostenean.

Neurrien bilakaera 2004-2007 aldian

Neurria	2004	2005	2006	2007	Guztira
Gizartearentzat lan egitea	430	506	469	444	1.849
Kautelazko zaintzapeko askatasuna	12	21	18	29	80
Zaintzapeko askatasun irmoa	247	180	189	187	803
Tratamendu anbulatorioa	25	33	16	10	84
Gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginak	66	95	73	141	375
Kautelazko barneratzea	33	24	30	34	121
Barneratze irmoa	109	113	156	136	514
Asteburuko egonaldia	88	66	147	129	430
...(ar)ekiko bizikidetzak	2	4	3	6	15
Kautelazko bizikidetzak	3	0	0	4	7
Eguneko zentro batera joatea	2	12	6	27	47
Guztira	1.017	1.054	1.107	1.147	4.325
Behin betikoak	963	1.009	1.059	1.080	4.111
Kautelazkoak	48	45	48	67	208
Hazkundera	250	43	53	40	386
Hazkundera (%)	% 32,80	% 4,25	% 5,00	% 3,60	% 13,45

2004. urtetik 2007. urtera bitarte, neurriek honako portaera hau izan dute:

- Gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginak egitea, asteburuko egonaldiak, kautelazko zaintzapeko askatasunak eta eguneko zentro batera joatea nabarmen igo dira.
- Barneratze irmoak eta hezkuntza-talde batean bizitzea pixka bat igo dira.
- Zaintzapeko askatasun irmoek eta tratamendu anbulatorioek behera egin dute.

Neurrien nondik norakoari dagokionez⁷, neurri irmoak hiru taldetan bereizten dira:

- Ingurune irekiko neurriak —gizartearentzat lan egitea, zaintzapeko askatasuna, tratamendu anbulatorioak, gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginak egitea eta Eguneko Zentro batera joatea— 3.158 dira, hots, guztirako 4.111 neurri irmoen % 76,82.
- Asteburuko egonaldiak eta hezkuntza-taldean bizitzea: 445, hots, 4.111 neurri irmoen % 10,82.
- Barneratze irmoak: 514, hots, 4.111 neurri irmoen % 12,50.

Laburbilduz, neurri irmoak eta kautelazko neurriak barnean hartuta, honako hau esan dezakegu:

- Erreferentziako aldian, 4 neurritik 3 ingurune irekikoak izan dira (% 74,87; 4.325etik 3.238).
- % 14,68k (4.325etik 635) gazteen justiziako zentro espezifikoko batean barneratzearekin izan du zerikusia.
- % 9,94 (4.325etik 430) asteburuko egonaldiak dira, ia guztiak gazteen justiziako zentro espezifikoko batean.
- % 0,51 (4.325etik 22) pertsona, familia edo hezkuntza-talderen batek egindako Harrerak dira, ia guztiak Gazteen Justizia Zerbitzuaren mendeko egoitza-baliabide batean.

⁷ Ez da erraza neurriak sailkatzeko irizpidea hautatzea. Ikuspegi juridiko hutsetik begiatuta, askatasuna kentzen duten neurriak eta askatasuna kentzen ez dutenak (askatasunak edo eskubideak murrizten edo kentzen dituzte soilik, baina mugimendu-askatasuna kendu gabe) bereizi beharko lirakekeela dirudi. Hala, batetik, askatasuna kentzen duten neurriak edukiko genituzke (barneratzea, barneratze terapeutikoa eta asteburuko egonaldia), eta, bestetik, askatasuna kentzen ez dutenak (5/2000 Lege Organikoaren 7. artikuluan bilduriko gainerakoak). Hala ere, betearazpenaren ikuspegitik, testuan egin den bexalaxe sailkatzea nahiago izan dugu, betearazpenaren ezaugarri eta baldintzak aintzat hartuta. Hala, hiru taldetan banatzen ditugu: batetik, zentroan barneratzea, bestetik, adingabearen ingurunean egiten den barneratzea, eta, azkenik, asteburuko egonaldiak eta hezkuntza-talde batean bizitzea, egoitzan edo egoitzatik kanpo bete daitezkeenak, baina, egoitzan betetzen badira ere, barneratzetik nabarmen urruntzen diren betearazpen-baldintzak dituztenak.

Ingurune irekiko neurri irmoen bilakaera 2004-2007 aldian

Neurria	2004	2005	2006	2007	Guztira
Gizarteari laguntzea	430	506	469	444	1.849
Zaintzapeko askatasuna	247	180	189	187	803
Tratamendu anbulatorioa	25	33	16	10	84
Gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginak	66	95	73	141	375
Eguneko zentro batera joatea	2	12	6	27	47
Guztira	770	826	753	809	3.158

2004-2007 aldiko ingurune irekiko neurriei dagokienez, honako datu garrantzitsu hauek aipatu behar ditugu:

- Lau urte horietan «Gizartearentzat lan egitea» da gehien jarri den neurria, 1.849 al-diz jarri baita; kopuru hori ingurune irekiko neurrien % 58,54 da [eta guztirako neurri irmoen % 44,94]. Ehunekorik handiena 2006koa da (% 59,52), eta txikiena 2007koa (% 52,35). Hurrengo urteetan ikusiko dugu 2007ko jaitziera hori 2007ko otsailean indarrean jarri zen 8/2006 Lege Organikoaren ondoriozko legezko aldaketak eragin ote duen edo beste alderdi batzuek eragin ote duten.
- Zaintzapeko askatasun irmoak ingurune irekiko 4 neurri irmotik 1 dira (% 25,43; 3.158tik 803), nahiz eta 2004az geroztik kopuru hori jaitzi den.
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginak ingurune irekiko guztirako neurrien % 11,6 gainditzen dute. Kopuru hori igotzen ari da, 2004-2007 bitartean bikoiztu egin baita.
- Tratamendu anbulatorioak ia desagertu egin dira kasu askotan neurri independente gisa. Hala eta guztiz ere, zaintzapeko askatasunaren eta barnertazaren kasuan, nahitaezkoak edo zeregin espezifikoak dira.
- Eguneko Zentrora joateko neurriak gorabehera asko izan ditu 2007an sendotu arte. 2006. urtean hamabi kasutan baino gehiagotan ezarri zen zaintzapeko askatasunaren obligazio gisa; nolahi ere, neurri hori nabarmen jaitzi da 2007an; izan ere, urte horretan eguneko zentrora joateko ia neurri guztiak neurri horren esanbidezko ezarpenean oinarritzen dira.

Barneratze-neurrien ebaluazioa 2004-2007 aldian

		2004	2005	2006	2007	Guztira
Irmoak	Erregimen itxia	5	3	6	2	16
	Erregimen erdirekia	95	91	138	119	443
	Erregimen irekia	2	9	4	6	21
	B. terapeutikoa	7	10	8	9	34
Irmoak, guztira		109	113	156	136	514
Kautelazkoak		33	24	30	34	121
Guztira		142	137	186	170	635

Barneratze-neurrien kopurua nabarmen hazi da. 2004-2007 bitartean, % 19,72 igo zen (142tik 170era), 2005. eta 2006. urteetan, aldiz, askoz gehiago igo zen, % 35,77ra iritsi baitzen.

Erregimen erdirekiko barneratzea kasuen % 86,19k aukeratzen du neurri irmo gisa. Bigarrenik, barneratze terapeutikoa aukeratzen dute, % 6,61ek, hain zuzen ere.

Arartekoaren Eusko Legebiltzarrentzako 2007. urteko Txostenak —1998az geroztik urtero bezala, adingabe arau-hausleei buruzko atal espezifiko bat du, eta atal horretan 2000. urtetik 2007. urtera bitarte neurriek izan duten bilakaera aztertzen da— honako ohar hauek egin ditu:

- Guztirako neurriak igotzeko joera. 2000n 235 ziren; 2007an, aldiz, 1.147; % 388 igo dira, nahiz eta azken hiru urte hauetan kopurua egonkortu den, % 3tik % 5era bitarteko igoerak izan baitira.
- Kautelazko neurrien igoera kezagarria da.
- Neurrien iraupena hazi egin da.
- Beste adingabe batzuek egindako hutsegiteen edo delituen biktimak diren adingabeen ehuneko handia da.

- Babes-sistematik etorritako adingabeen ehunekoa handia da (inoren kargura ez dauden atzerritar adingabeak barne). «Harrera-sistemak oinarritzko premiei behar bezala erantzuten ez dienean, arazo gehienek, azkenean, zigor-sisteman eragina izaten dute».
- Barneratuta dauden atzerritar adingabeen ehunekoa handia da.
- Adingabe bakan batzuek delituak behin eta berriz egiteko joera dute.
- Osasun-sistema publikoan hutsunea dago adingabeen osasun mentalaren eta toxikomanien arretari dagokionez.

1.3.2. Arau-hausteak (hutsuneak eta delituak)

Jarraian, zenbait datu eskaintzen dira azken urtean (2006) izandako arau-hausteei dagokienez, hartara egungo egoeraren diagnostikoa egin ahal izateko, hau da, gizarte-kontrol formalaren instantziek adingabeengan zer portaera arau-hausle atzematen dituzten jarraian horien gainean esku hartzeko. Seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeriari aipamen berezia egin zaio. Fenomeno berri hori azken aldian ageri da, eta erantzun berezia eskatzen du.

1.3.2.1. Adingabeek eginiko arau-hausteen tipologia

2006an Adingabeen Fiskaltzetan sartu diren arau-hausteak

Delituak	Kop. absolutua	Ehunekoa
Jabetzaren aurka, indarkeriarik gabe	1.521	54,85
Jabetzaren aurka, indarkeriarekin	287	10,39
Sexu-askatasunaren aurka	40	0,14
Bizitzaren eta osotasun fisikoaren aurka	757	27,30
Etxeko indarkeria edo genero-indarkeria	101	3,64
Osasun publikoaren aurka	51	1,83
Beste batzuk	16	0,58
Guztira	2.773	100

Iturria: Estatuko Fiskaltza Nagusia.

2006an bitartekotzako edo kalte-ordainketako prozesuak eragin zituzten egitateak

Egitateak		Kop. absolutua	Ehunekoa
Gauzen aurka	Lapurreta	45	10
	Ebasketa	75	16,6
	Kalteak	96	21,3
	Beste batzuk	20	4,4
	Azpigutzizkoa	236	52,3
Pertsonen aurka	Irainak / Mehatxuak	55	12,2
	Erasoa / Lesioa	125	27,7
	Beste batzuk	35	7,8
	Azpigutzizkoa	215	47,7
Guztira		451	100

2006an kautelazko neurriak eragin zituzten egitateak

Egitateak	Zaintzapeko askatasuna	Barneratzea	Guztira
Indarkeriaz/larderiez egindako lapurretak	4	11	15
Etxeko indarkeria / ohiko tratu txarrak	8	4	12
Lesioak	1	6	7
Indarrez lapurtzea	1	5	6
Osasun publikoaren aurkakoak	1	0	1
Mehatxuak	1	0	1
Sexu-abusua	1	0	1
Beste batzuk, zehaztu gabe	1	4	5
Guztira	18	30	48

Kautelazko neurri guztien

- % 70,85
- % 31,25 indarkeriaz edo larderiez eginiko lapurretak dira
 - % 25 etxeko indarkeriaren edo tratu txarren kasuak dira
 - lesioak % 14,6 dira
 - indarrez eginiko lapurretak % 12,5 dira
 - % 10,4 behin betiko zehaztu gabeko egitateak dira

**2006an zaintzapeko askatasuneko
eta barneratzeko neurri irmoak eragin zituzten egitateak**

Egitateak	Zaintzapeko ask.		Barneratzea		Guztira	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Indarkeriaz/larderiak egindako lapurretak	43	22,7	60	38,8	103	29,8
Indarrez lapurtzea	54	28,6	27	17,2	81	23,5
Etxeko indarkeria	30	15,9	15	9,6	45	13,0
Beste batzuk	11	5,8	43	27,4	54	15,6
Lesioak	15	7,9	11	7	26	7,5
Erabilerako lapurreta/ebasketa	12	6,3	0	0	12	3,5
Kalteak	9	4,8	0	0	9	2,6
Mehatxuak	7	3,7	0	0	7	2,0
Agenteei aurre egitea beta abar	8	4,2	0	0	8	2,3
Guztira	189	100	156	100	345	100

1.3.2.2. *Seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeriari eginiko aipamen berezia*

Eskura ditugun Adingabeen Fiskaltzaren datuen arabera, 2006an seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeriarekin zerikusia zuten 101 arau-hauste ikertu ziren EAEn, 58 Bizkaian, 20 Gipuzkoan eta 23 Araban. Kopuru hori adingabeek eginiko eta Adingabeen Fiskaltzak ikerturiko arau-hauste guztien % 3 da.

2004tik 2007ra bitarte, seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeriazko delituengatik adingabeei ezarritako neurriak

	2004	2005	2006	2007
Adingabeak	31 (29 + 2)*	50 (43 + 7)	55 (48 + 7)	49 (38 + 11)
Epai bidezko neurriak	32	46	55	49
<i>Kautela- neurriak</i>	11	15	9	17

* Mutilen kopurua + nesken kopurua adierazi da.

- 2004tik 2007ra bitarte, ezarritako neurriak igo ziren: 36 neurri izatetik 49 neurri izatera igaro zen.
- Inplikaturiko adingabeen kopuruak ere gora egin zuen, 31tik 49ra.
- Erasotzaile gehienak mutilak dira, baina azkenaldian honako joera hau nabari da: zehapenak ezarri zaizkien mutilen kopuruak behera egin du, eta neskena, aldiz, nabarmen igo da: 2004an, bi neska zehatu zituzten; 2007an, aldiz, 11 neska.

Beheko koadroari erreparatzen badiogu, zera ikusten dugu, familia barneko indarkeriazko arau-hausteak direla-eta epai bidez ezarritako neurriak Gazte Zerbitzuaren Zerbitzuak jasotako neurri irmo guztien aldean jartzen baditugu, lehenak epai bidez ezarritako zehapen guztien % 5 inguru izan ziren 2006an eta 2007an, % 5,19 eta % 4,54, hurrenez hurren.

2004tik 2007ra bitarte adingabeei ezarritako neurri irmoak guztira

Neurri irmoak	2004	2005	2006	2007
Gizartearentzat lan egitea	430	506	469	444
Zaintzapeko askatasuna	247	180	189	187
Tratamendu anbulatorioa	25	33	16	10
Gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginak	66	95	73	141
Barneratzeak	103	113	156	136
Asteburuko egonaldia	88	66	147	129
Pertsona, familia edo hezkuntza-talde batekin bizitzea	2	4	3	6+4
Eguneko zentro batera joatea	2	12	6	27
Guztira	963	1.009	1.059	1.080
Seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeriarengatiko neurriak	32 (% 3,32)	46 (% 4,56)	55 (% 5,19)	49 (% 4,54)

Nolanahi ere, datuek aditzera ematen digute, halaber, horrelako delitueterako normalean kautela-neurriak erabiltzen direla. Adibide bat jartzearen, 2007an seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeriarengatiko neurri irmoak guztien % 4,54 izan ziren; delitu horrengegatik ezarritako kautela-neurriak, aldiz, % 25 izan ziren, hau da, 2007an ezarritako 61 kautela-neurrietatik 17.

2004tik 2007ra bitarte adingabeei instrukzioan ezarritako kautelazko neurriak guztira

Kautelazko neurriak	2004	2005	2006	2007
Zaintzapeko askatasuna	13	21	18	29
Barneratzeak	33	24	30	34
Beste pertsona, familia edo hezkuntza-talde batekin bizitzea	3			4
Guztira	49	45	48	67
Seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeriarengatikko neurriak	11 (% 22,45)	15 (% 33,33)	9 (% 18,75)	17 (% 25,37)

Nabarmentzekoa da, halaber, 2006an kautelazko barneratzea 3 aldiz ebatzi zela, eta kautelazko zaintzapeko askatasuna, berriz, 6 aldiz. 2007an, kautelazko 5 barneratze ebatzi ziren, kautelazko zaintzapeko 9 askatasun, eta hezkuntza-taldean bizitzeko kautelazko 3 neurri. Hau da, instrukzio-fasean gehiago nabari zen kautelazko esku-hartzea.

Epai bidez ezarritako neurriei dagokienez, 2006ra arte barneratzea eta zaintzapeko askatasuna izan ziren gehien erabilitako neurriak. 2007an, ordea, epaiak gehiago dibertsifikatu dira. Hala, 8 barneratze ebatzi dira, baita zaintzapeko 26 askatasun, gizarte- eta hezkuntza-arloko 8 zeregin, hezkuntza-taldean bizitzeko 2 neurri, gizarteari laguntzeko 2 neurri, asteburuko egonaldi 1, tratamendu ambulatorio 1 eta eguneko zentrora joateko neurri bat.

Termino erlatibotan, neskek zehapen gutxiago jasotzen dituzte mutilek baino. 2007an, 38 mutil eta 11 neska zehatu zituzten. Nolanahi ere, aipatzekoa da azken urte honetan, barneratzeko hezkuntza-zentroetan dauden nesken erdia gurasoen aurkako indarkeriazko delituengatik dagoela egoera horretan.

Fenomeno berri horren aurrean, Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzak problematika horri buruzko azterlana eskatu zuen, eta 2007an argitaratu zuen. Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateko irakasle titular Izaskun Ibabe andreak gidatutako taldeak egin zuen azterlana.

Lan berria da, eta familia barneko indarkeriazko delituak direla-eta 1999tik 2006ra bitarte adingabeei irekitako espediente judizial guztiak aztertu dira.

103 adingabe hautatu ziren, hiru taldetan banatuak:

- talde batean, seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeriarengatik soilik salatutako adingabeak bildu ziren,
- beste batean, aurrekoagatik eta beste zenbait deliturengatik salatutako adingabeak bildu ziren,
- eta, hirugarrenean, bestelako delituengatik soilik salatutako adingabeak bildu ziren.

Hiru talde horien arteko bereizgarriak aztertzea zen helburua, portaera horiei dagokienez hezkuntza-ikuspegitik esku hartzeko baliabide hobeak bilatzeko.

Besteak beste, azterlanak honako ondorio argi hau utzi du: indarkeriazko portaerak gurasoenganako soilik ageri dituzten gazteek ez dute salatutako gainerako adingabeen profila.

Ezaugarri nagusi hauek dituzte gazte horiek: mendetasun handia, autonomia pertsonal urria, autoestimazio txikia, enpatiarik eza, agresibitate-maila handiagoak, familiaren gizarte- eta ekonomia-maila handiagoa, guraso bakarreko familien prebalentzia, eta familia barneko indarkeriazko bestelako esperientziak eduki izana, gurasoen artean eta gurasoen eta adingabeen artean. Azken horri dagokionez, nabarmentzekoa da azterlan honek berretsi egin duela familiaren barneko indarkeria (bikotekideen artean eta bikotearen eta seme-alaben artean —lehena bigarrenari nagusitzen zaio—) arrisku-faktore garrantzitsua dela seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeria garatzerakoan. Faktore hori askoz ere gehiago ageri da Familia Indarkeriaren taldean bestelako delituak egiten dituzten adingabeen taldean baino. Kasu guztietan ez bada ere, familia barneko indarkeria ikusi edo bizi izanak indarkeriazko portaerak ikastea dakar berekin.

Gainera, kasu gehienetan eraso jasandako gurasoak ahalegindu ziren adingabe horiek tratamendu psikologiko baten eraginpean jartzen, salaketaren aurretik.

Bestelako aldagaiei dagokienez, eskolara egokitzeari eta ikasteko zailtasunei dagokienez, esaterako, nerabe horiek gainerako nerabeen antzeko profilak ageri dituzte.


1.3.3. *Neurri-aniztasuna pertsona bakoitzeko*

Datuek honako hau egiaztatzen dute: delitu edo hutsegite bat egiten duten adingabe gehienek ez dute beste delitu edo hutsegite bat egiten.

Neurri-aniztasuna - 2006. urtea
(Neurri irmoak eta kautelazkoak barne)

2006ko neurriak	Pertsona kopurua	Metatuak	Gehit. neurriak	Metat. neurriak	Perts. %	Metatutako %	Neurrien %
1	410	410	410	410	64,9	64,9	37
2	121	531	242	652	19,2	84,1	21,9
3	49	580	147	799	7,7	91,8	13,3
4	18	598	72	871	2,8	94,6	6,5
5	12	610	60	931	1,9	96,5	5,4
6	8	618	48	979	1,3	97,8	4,3
7	8	626	56	1.035	1,3	99,1	5
8	1	627	8	1.043	0,1	99,2	0,7
9	1	628	9	1.052	0,1	99,3	0,8
10	3	631	30	1.082	0,5	99,8	2,7
12	1	632	12	1.094	0,1	99,9	1,1
13	1	633	13	1.107	0,1	100	1,2
Guztira	633		1.107		100		100

Delitu-berrerortzea
2006. urtea



Aurreko taulak 2006. urtean Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzan aurkeztu ziren neurri guztiak hartzen ditu kontuan, irmoak nahiz kautelazkoak. Neurri irmoak 1.059 izan ziren, eta kautelazkoak, berriz, 48.

Neurri irmoen aniztasuna - 2006. urtea

2006ko neurriak	Pertsona kopurua	Metatuak	Gehitutako neurriak	Metatut. neurriak	Pertson. %	Metatut. %	Neurrien %
1	417	417	417	417	66,72	66,72	39,38
2	114	531	228	645	18,24	84,96	21,53
> 2	94	625	414	1.059	15,04	100	39,91
Guztira	625		1.059		100		100

Gazte Justiziaren Zerbitzuan aurkeztutako 1.059 neurri irmoak 625 pertsonak bete zituzten, eta, beraz, horren arabera, pertsona bakoitzeko 1,7 neurri ezarri ziren.

Neska-mutilen % 66,72ri (417) neurri irmo bakarra ezarri zitzaien 2006. urtean. Neurri bat edo bi izan dutenak zenbatzen baditugu, pertsonen % 84,96 dugula ohartzen gara (531).

Delituan EZ BERRORTZEAREN gehiengoaren errealitate horren beste muturrean, 33 neska-mutilek osatutako talde bat dugu —gutzizkoaren % 5,28—; gazte horiek neurri irmoen % 22,28 (236) berenganatu dute. Talde horrek delituan berrerortzeko maila oso altua dauka, urte berean 5 neurri baino gehiago ezarri baitzaizkie.

2007. urtean 642 adingabeei ezarritako 1.080 neurri irmo jaso diren. Horrek batz besterik pertsonako 1,68 neurri suposatzen du.

Pertsonen % 64,64k (415) neurri bakarra du aipatutako epean; % 83,48k neurri bat edo bi ditu epean. % 7k apean bost neurri edo gehiago ditu epean (45 adingabe).

Gainera, etorkizun negatiboa dute, ez bakarrik delituan berrerortzeagatik, baizik eta, oro har, honako arrazoi hauengatik ere: eskola-porrot goiztiarra, delitu-aniztasuna, oso gaztetan —14 urte bete baino lehen— delituak egiten hastea, familia-euskarririk eza edo familia-euskarri eskasa, eta abar.

Delituan berrerortzeari buruzko azterketak Euskal Autonomia Erkidegoko gazte-justiziaren errealtateari buruzko oinarriko zenbait datu ematen dizkigu, esate baterako honako hauek:

- Justizia-sistemarekin harremanetan jartzen diren neska-mutil gehien-gehienek behin bakarrik egiten dute; eta hori argi ikus dezakegu bitartekotza-prozesuei dagozkien zifrak eta neurri judizial bakar bat dutenen zifrak kontuan hartzen baditugu.
- Delitu bat baino gehiago (delitu larririk ez) egin dutenek osatutako beste talde bat dugu; horiek, dagokien neurria bete ondoren, ez dute beste arau-hauste penalik egiten.
- Bukatzeko, hirugarren talde bat dugu; talde hori neurri bat betetzen dutenen % 5ek osatzen du, gutxi gorabehera, eta zenbateko hori % 3ra edo 4ra txikitzen da, bitartekotza-prozesuak ere kontuan hartzen baditugu. Talde horrek izugarri baldintzatzen du justiziak adingabeekiko duen irudi publikoa: «beti gazte berberak dira, horiekin ez dago zereginik, eta abar», gazteen % 95 baino gehiagoren errealtatea desitxuratuta eta ezkatututa. Gure kultura- eta gizarte-inguruko arau-hausteen prebalentziari buruzko azterlanetan, zifra horiek praxi berri baten estandarren barruan daudela esan genezake. Pertsona horien eguneroko errealtateak, haien hazkuntza-historiek, eskola-porrotek, aldamenean eredu positiboa izan daitekeen pertsona heldurik ez edukitzeak, etorkizuneko ziurgabetasunak, bizitzeko baliabiderik ezak eta beste faktore batzuek gaitasun profesional handia eta hainbat sistemen —sanataria, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, etxebizitza, enplegua, sistema judiziala eta abar— konpromiso sendo eta egonkorra eskatzen duen errealtate baten aurrean jartzen gaituzte. Oro har, pertsona horiekiko eta haien inguruarekiko laguntzan amore ez emateko gizarte-konpromisoa eskatzen dute, egin dezakegun guztia eskainita eta aintzat hartuta gaur egun gizarte-zientzietako, medikuntzako, portaerako, justiziako eta beste arlo batzuetako profesional espezialistek ezin dugula % 100eko eraginkortasuna bermatu gure lanetan.

2. 2004-2007 Gazte Justiziaren Planaren ebaluazioa

2.1. Planaren Helburuen ebaluazioa

2.1.1. *I. helburua: Bitartekotza-programak sendotzea*

Bitartekotza-programak sendotzea, erreforma-espediente guztien % 35eko mailari eutsiz, Planean bilduriko zenbait jardunen bitartez.

Euskal Autonomia Erkidegoan, adiskidetzeko eta kaltea ordaintzeko bitartekotza-prozesuak Talde Psikosoziatiko profesionalak gauzatzen dituzte, eta talde horien antola-

mendua Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren mende dago, eta, organikoki, Giza Baliabideen Zuzendaritzaren mende. Talde horiek dira 5/2000 Lege Organikoak Lantalde Teknikoei esleitzen dizkien eginkizunak betetzen dituztenak.

Lantalde teknikoan osaera

Langileak	(2004-2005)	(2006-2007)
Koordinatzaileak	3	3
Psikologoa	10	12
Hezitzailea	10	8
Gizarte langilea	10	9
	33	32

5/2000 Lege Organikoaren 27.3 artikulua arabera, Lantalde Teknikoak txostena egin dezake biktimaren kaltea ordaintzeko edo adiskidetzeko jardueraren bat egiteko aukerari buruz, 5/2000 Lege Organikoaren 19. artikuluan ezarritakoaren arabera. Praktikan, Fiskaltzak erabakitzen du Erreforma Espediente bat ohiko bidetik eramatea edo egilearen eta biktimaren arteko bitartekotzari ekitea.


27.2 eta 4. artikulua arabera, lantalde teknikoak gizarte eta hezkuntza esku-hartzea edo espedientearen tramitazioari amaiera ematea ere proposa dezake, dagoeneko eginiko tramiteetan espediente horren aurkako gaitzespena behar bezala eta esanbidez adierazi delako, edo esku-hartzea adingabearen kaltetan joan daitekeela aintzat hartu delako, delitua egin denetik igaro den denbora aintzat hartuta.

Aukera horiek bereizi gabe ageri dira Talde Psikosozialek bilduriko datuetan, bitartekotzaren termino orokorrean bilduta, nahiz eta kasu guztietan arau-hauste penalaren biktima izan direnekiko zuzeneko edo zeharkako bitartekotza jakin batekin zerikusirik ez eduki.

2004-2007 aldiko datu nabarmenenak honako hauek izan ziren:

Bitartekotza/kalte ordainketa

Urtea	2004	2005	2006	2007	Guztira
Espediente kopurua	337	257	311	310	1.215
Adingabe kopurua	500	361	423	414	1.698



Talde Psikosozialek emandako datuak ez dira behar bezala osatu, eta, hortaz, ez dute sakoneko azterketa egiteko biderik ematen.

Aldi bakoitzean ez da adierazi Fiskaltzak irekitako espediente kopurua, ezta bitartekotza-arlora igorritako espediente kopurua ere, eta horregatik zaila da proportzioa asmatzea.

Fiskaltzak hasitako Eginbideei dagokienez, aipatzekoa da 2004tik 2006ra bitarte 7.971 izan direla. Aldi berean, 905 espedienteri ezarri zaie bitartekotza, hau da, % 11,35i.

Erreforma Espediente Judizialei dagokienez, 3.874 izan dira aldi horretan; bitartekotza-espedienteak, berriz, 905 izan dira, hau da, % 23,36.

2004-2007 erreferentziazko aldian, 4.325 neurri ezarri ziren, eta 1.698 adingaberekin bitartekotzako edo kalte-ordainketako prozesuak jarri ziren abian. Zifra horien arabera, deskribaturiko prozesuak esku-hartzeen % 28,19 izan dira.

Aldi honetan jaitsiera nabarmena nabari da 2000-2003 aldiaren aldean, hartan % 40 inguru izan zirela kontuan hartzen badugu. Joera-aldaketa 2003an nabarmentzen hasi zen, eta gaur egunera arte iraun du.

2007. urtean, 414 adingabe egon ziren bitartekotzako edo kalte-ordainketako prozesuetan, eta neurriak, berriz, 1.147 izan ziren, Biak batzen baditugu (1.561) zera ikusten dugu, bitartekotzak /kalte-ordainketak % 26,52 direla, oso urrun beraz Planean ezarritako % 35eko helburutik.

Arau-hauste motak

Gauzen aurka	2004	2005	2006	2007	Guztira	%
Lapurreta	50	25	45	51	171	9,43
Ebasketa	130	69	75	75	349	19,23
Kalteak	124	86	96	109	415	22,87
Beste batzuk	10	5	20	10	45	2,48
Azpigutzizkoa	314	185	236	245	980	54,02
Pertsonen aurka	2004	2005	2006	2007	Guztira	%
Irainak/Mehatxuak	51	51	55	79	236	13
Erasoa/Lesioa	150	137	125	111	523	28,83
Beste batzuk	11	9	35	20	75	4,13
Azpigutzizkoa	212	197	215	210	834	45,97
Guztira	526	382	451	455	1.814	100

Judizioz kanpoko kalte-ordainketak eta bitartekotzak sorrarazi dituzten arau-hausteak honako hauek izan dira, prebalentzia-ordenaren arabera: eraso eta lesioak, kalteak, ebasketak, mehatxu eta irainak, eta lapurretak. Gauzen aurkako delituek indar handiagoa dute (% 54,02). Hori gorabehera, ezin dugu alde batera utzi «harreman-arazo» deiturikoak

(irainak, mehatxuak, erasoak eta abar) ia % 42 direla. Datu horrek honako hau ematen digu aditzera: bitartekotza, zentzu zabalean, aukera egokia izan daiteke nerabeen arteko harreman-gatazka larriak konpontzeko esku hartzerakoan.

Bitartekotza prozesuaren edukia


Urteak	2004	2005	2006	2007	Guztira	%
Topaketa eta adostasuna	284	227	174	182	867	46,34
Bat-batekoak	38	19	3	30	90	4,81
Adiskidetzeta	28	10	1	23	62	3,31
Ekonomikoa	10	6	2	6	24	1,28
Gizart. laguntzea	0	3	0	1	4	0,21
Bitartekotza	246	208	171	152	777	41,53
Adiskidetzeta	138	149	98	88	473	25,28
Ekonomikoa	85	43	50	39	217	11,60
Gizart. laguntzea	23	16	23	25	87	4,65
Zuzeneko topaketarik gabe	220	137	228	271	856	45,75
Gutunak	69	33	65	95	262	14,00
Jarduera	144	102	151	137	534	28,54
Beste batzuk	7	2	12	24	45	2,41
Daturik gabe/okerrak	0	56	77	15	148	7,91
Guztira	504	420	479	468	1.871	100

Topaketa eta adostasunaren bitartez aurrera eramandako bitartekotza-prozesuei dagokienez, nabarmentzekoa da 2004an asko izan direla, eta 2005ean eta 2006an, aldiz, nabarmen jaitsi direla; azkenik, 2007an beste gorakada txiki bat nabari da. Talde horren barnean, bitartekotza bidezkoak nabari dira, bat-batekoek ere aurten gorakada handia izan

duten arren. Zuzeneko topaketarik gabe egindako bitartekotza-prozesuak igo egin dira aurten aurreko urteen aldean, eta horien artean bitartekotza-tresna gisa gutuna erabili dutenak nabarmendu behar dira.

Amaiera

Urteak	2004	2005	2006	2007	Guztira	%
Positiboak	389	312	349	379	1.429	84,11
Negatiboak	109	50	74	33	266	15,66
Beste batzuk/Ezezagunak	2	0	0	2	4	0,24
Guztira	500	362	423	414	1.699	100



Talde Psikosozialek aurkezturiko datuen arabera, prozesuen % 84 baino gehiago ondo amaitu dira, eta gainerakoek adingabeen edozein zigor-prozeduraren bide estandarra hartu dute. Datuek argi eta garbi erakusten dute gero eta gutxiago direla gaizki amaitzen diren prozesuak. 2007an mailarik txikiena lortu dute: % 8,7. Informazioa jasotzeko irizpideak aldatu egin dira, eta horrek eragin handiagoa izan du fenomeno horretan joera-aldaketak baino.

Aldez aurretik adierazitakoa oinarritzat hartuta, hurrengo aldian honako hauek bete beharko dira: Legeak Lantalde Teknikoei ematen dizkien aukerak bereiztea, prozesu horien sakoneko ebaluazioa egitea, prozesua Justizia Berrezartzailearen ikuspegitik aztertzea, jarduneko irizpide eta prozedura komunak ezartzea eta informazioa biltzeko tresnak zehaztea.

2.1.2. II. helburua. Ingurune irekiko eredu integrala

Ingurune irekiko jardun integraleko eredu eraikitzea, esku hartzeko lehen-tasunezko aukera gisa, nerabeekin lan egiten duten gainerako sistema eta erakundeekiko inplikazio eta koordinazio argi batetik abiatuta.

2.1.2.1. Jardunen ebaluazioa

- Ingurune irekiko neurriak gehi bitartekotzak esku-hartze guztien % 90 izateari eustea. Barneratze-neurriak 633 dira, hau da, % 10,51, eta horrenbestez helburua ia-ia bete dela esan daiteke, gainerakoak % 89,49 direla aintzat hartuta.
- Ingurune irekiko neurriek honako ehuneko hauek izan dituzte, Plana indarrean egon den lau urteetan:

	2004		2005		2006		2007		2004-2007	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Gizarteari laguntzea	430	% 55,0	506	% 59,7	469	% 60,8	444	% 53,0	1.849	% 57,1
Kaut. zaintzapeko askatasuna	12	% 1,5	21	% 2,5	18	% 2,3	29	% 3,5	80	% 2,5
Zaintzapeko askatasun irmoa	248	% 31,6	180	% 21,3	189	% 24,5	187	% 22,3	803	% 24,8
Gizarte eta hezkuntza arloko zereginak	66	% 8,4	95	% 11,2	73	% 9,5	141	% 16,8	375	% 11,6
Tratamendu ambulatorioa	25	% 3,2	33	% 3,9	16	% 2,1	10	% 1,2	84	% 2,6
Eguneko zentrora joatea	2	% 0,3	12	% 1,4	6	% 0,8	27	% 3,2	47	% 1,4
Guztira	783	% 100,0	847	% 100,0	771	% 100,0	838	% 100,0	3.238	% 100,0

- Erakunde publiko eta pribatuekin lan egiteko aukera sustatzea, gizartearentzat lan egiteko, zaintzapeko askatasunak ezartzeko, eta hezkuntza- eta gizarte-arloko zereginak eta tratamendu anbulatorioak egiteko.

Ingurune irekian hainbat neurri hartu direnez, ezinbestekoa gertatu da hainbat erakunde publiko eta pribaturekin, prestakuntza-zentrorrekin, psikologia-kabineterekin harremanak ezartzea eta abar, betearazi beharreko neurriaren, neska edo mutilaren egoeraren, eskuragarri zeuden baliabideen arabera eta abar.

Laburpen gisa, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Gizartearentzat lan egiteko, urtean ehun erakunde baino gehiagoren laguntza lortu da, eta erakunde pribatuak nagusi izan dira horien artean.
- 2007. urtean jarraian zerrendatzen diren entitaterekin lankidetzaz hitzarmenak sinatu dira, gizartearentzat lan egiteko zein zeharkako kalte-ordainketak egiteko (azken horiek Talde Psikosozialen bitartez egiten dira):
 - EUDEL (Euskal Udalen Elkarte).
 - Traperos de Emaús.
 - Zuzenak Fundazioa.
 - Capegabi.
 - María Auxiliadora.
 - Metro Bilbao.
 - Garbiker.

Laster beste hiru entitaterekiko konpromisoa itxiko da.

Neurri honek arrakasta izan dezan, zeregina ongi hautatu behar da, eta hainbat entitatearen laguntza eduki behar da eskura, profesional kualifikatuek gazteei lagun diezaizten prestazioak egiterakoan.

- Tratamendu anbulatorioak egiteko, sistema publikoak hutsune handiak dituela ikusirik, Fundazioetara, Elkarteetara edo profesional liberalenagana jo behar izan da tratamendu horiek egiteko.

Laguntzaileen zerrenda luzea da, erantzuna eman beharreko problematika, helbidea eta abar aintzat hartuta, baina honako hauek nabarmendu behar dira:

- Aialde (Donostia).
- Osasun Ekintza (Zumarraga - Ibaiondo HZ).
- Etorikintza (Bizkaia).
- Biko Arloak (Bizkaia).
- Asociación Vasco Navarra de Terapia Familiar (Bizkaia).
- Zaintzapeko askatasunen eta gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginen ondorioz, hurreman ugariak ezarri behar izan dira honako arlo hauetan jarduten duten erakundeekin: hezkuntza formala, ikastetxe publiko eta pribatuak, lanbide-hastapeneterako zentroak, enplegurako eta prestakuntzarako erakundeak (Behargintzak, Sartu, Peñasal Fundazioa eta abar), INEM, Langai eta abar.
- 2003-2004 aldian ingurune irekian hartutako neurrien betearazpenari buruzko ebaluazioa egitea.

KREI Kriminologiaren Euskal Institutuak egin zuen ebaluazio hori, eta txosten honetan batera aurkeztu da.

Azterketarako honako iturri hauek erabili dira:

- AMIA azterketak (Ahulguneak, Mehatxuak, Indarguneak, Aukerak), zuzeneko betearazpeneko eta Gazte Justiziaren Zerbitzuko teknikariek.
- Elkarrizketa irekiak: epaileak, fiskalak, talde psikosozialak, betearazpen-teknikariak eta abar.
- Gazte Justiziaren Zerbitzuaren memoriak.
- AGIS-Project «Juvenile justice systems in Europe».

Maila bakoitzean honako jardun-ildo hauek planteatu dira.

- Zerbitzuen kalitatea bermatzea, prozeduretako hobekuntza-prozesuak eta profesionalen prestakuntza jarraitua tarteko.

5/2000 Lege Organikoa garatzeko Arautegian ezarritako prozedurei buruzko argibidea eman da.

Ebaluazio-jardueri dagokienez, ez da baterako jarduerarik garatu. Kanpoan antolatutako zenbait ekitalditara joan gara. Bestetik, hitzarmena sinatu duten entitateek prestakuntzako gutxieneko ordu kopuru bat bermatu behar diote urtean eremu horretan jarduten duen pertsona bakoitzari (30 ordu).

- 2004ko bigarren seihilekoan Eguneko Zentro bat sortzea Bizkaian.

2004ko urrian Zabalik Eguneko Zentroa jarri zen abian Basaurin (Bizkaia), 15 plazarekin. 2007ko bigarren seihilekoan plaza kopurua handitu da (orain 20 plaza dau-de). Profesionalen kopuruak ere gora egin du: lehen 5 ziren; orain, aldiz, 8.

2007ko urrian Uribarriko Eguneko Zentroa jarri da martxan, 4 plazarekin.

2.1.2.2. *Ingurune irekiko neurrien hezkuntza-eraginkortasuna eta berrerortzea*

Helburu hau aztertu ondoren laburpen bat aurkezten dizuegu, ingurune irekiko neurri bat amaitu zuten neska-mutilen profilaria buruz. Gainera, behin neurria amaitutakoan gazte horiek zer egoeratan geratu diren ere adierazi dugu laburpen horretan.

2003. urtean ingurune irekiko neurria amaitu duenak honako profil hau dauka:

- % 87,6 mutilak dira.
- % 78,4 Euskadin jaio dira.
- % 59,2k 2 anai-arreba edo gehiago ditu.
- % 40,6 egoera sozioekonomiko eskasean daude.
- % 22,4 familia desegituratu batetik datoz.
- % 51,1ek loturak hautsi ditu.
- % 18,8k senitarteko baten desagertze traumatikoa jasan du.
- % 15,8k abandonua jasan du.
- % 13,2k familia barneko tratu psikiko txarrak jasan ditu.
- % 5,7k familia barneko tratu fisiko txarrak jasan ditu.
- % 27,2k osasun fisikoko arazoak dituzten gurasoak/ zuzeneko senitartekoak ditu.

- % 19,7k osasun mentaleko arazoak dituzten gurasoak/ zuzeneko senitartekoak ditu.
- % 14,7k delituak egin dituzten zuzeneko senitartekoak ditu.
- % 15,7k toxikoak kontsumitzen dituzten zuzeneko senitartekoak ditu.

Lagina egiteko 230 pertsona hautatu dira.

Iraganean eginiko delituei buruz, egoera honako hau zen:

- % 59,4ri ez zaio alde zuzenetik beste neurririk aplikatu.
- % 17ri neurri bat aplikatu zaio alde zuzenetik.
- % 16ri 2 edo 3 neurri aplikatu zaizkio alde zuzenetik.
- % 7,6ri 4 neurri baino gehiago aplikatu zaizkio alde zuzenetik.

Alde zuzenetik neurri bat ezarri zitzaizkien gehiengo zabalari (% 86,6) ingurune irekiko neurria ezarri zitzaion.

Neurriak ezarri dira honako delitu hauengatik, bereziki:

- Lapurreta, indarkeria edo larderia erabiliz . . . % 21,8
- Indarrez lapurtzea. % 18,8
- Hutsegiteak % 12,2
- Lesioak. % 9,1
- Osasun publikoaren aurkakoak % 9,1
- Ebasketa. % 8,3

Betearazi ondoren neurriak eragin duen inpaktuari dagokionez, honako ondorio hauek ateratu dituzte:

- Autokontrola hobetzen du eta oldarkortasuna murrizten.
- Toxiko-kontsumoa murrizten du.

- Arrisku-harremanak murrizten ditu.
- Osasun mentala eta hiperaktibitatea hobetzen du.
- Eskola-egoera hobetzen du.
- Helduen kontrol-egoera hobetzen du.

Neurria amaitu denetik hiru urtetik lau urtera bitarte igaro direnean, berrerortze globalaren tasa % 21,7 da. 2003an neurri bat amaitu zuten adingabeen % 78,3k ez zuen delitu bat ere egin 2006ko abenduaren 31ra arte.

Berrerortzen direnak eta ez direnak alderatze aldera, berrerortzen direnek honako ezauzgarri hauek dituzte:

- Familiaren egoera sozioekonomiko okerragoa.
- Familia-desegituratze handiagoa.
- Lotura-haustura handiagoa (estatistikak eskura, aldagai hori bereziki esanguratsua da).
- Zuzeneko senitarteko baten desagertze traumatiko gehiago.
- Osasun-arazoak dituzten zuzeneko senitarteko gehiago.
- Delitu-aurrekariak eta/edo toxiko-kontsumoak dituzten zuzeneko senitarteko gehiago.

Berrerortzen diren neska-mutilen artean, alde estatistiko esanguratsuak ageri dira honako arlo hauetan:

- Toxiko-kontsumo handiagoa.
- Arrisku-harreman gehiago.
- Hiperaktibitate edo arreta-defizit handiagoa.

2.1.3. III. helburua: Hezkuntza-zentroen sarea garatzea

«Gazte Justiziaren sistema hezkuntza-zentroen sare batez hornitzea, barneratze-neurriak behar bezala betetzeko aukera bermatzeko moduan, hezkuntza- eta gizarteratze-ikuspegitik begiratuta».

2.1.3.1. *Jardunen ebaluazioa*

Honako jardun hauek aurreikusi dira:

- Justizia Ministerioarekin bidezko diren kudeaketak egitea, 7/2000 Legeak aldatu duen 5/2000 Legea aplikatuz terrorismo-delituengatik epaituak diren eta Euskadin bizi diren adingabeei loturik Auzitegi Nazionalaren Adingabeen Epaitegi Zentralak emandako barneratze-neurriak Euskal Autonomia Erkidegoko zentroetan bete daitezen ahalbidetzeko.

Adingabeen Erantzukizun Penalari buruzko Legeak Justizia Ministerioari aukera ematen dio Autonomia Erkidegoekin akordioak egin ditzan neurri horiek bete-arazteko. 2006ko martxoaren 15ean, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuak Justizia ministro López Aguilar jaunari 8/2006 Lege Organikoak aldaturiko 5/2000 Lege Organikoaren 10. artikulua aplikatzeko eskaintza egin zion (garai hartan indarrean zegoen 4. Xedapen Gehigarria), eta jarraian Hitzarmenaren zirriborroa igorri zion; proposamena, Justizia Ministerioak idazki bidez igorritako erantzunaren bitartez, azterketa-fasean dago une hartatik.

2008ko apirilaren 24an, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak erantzuna jaso zuen. Beharrezko negoziazioen ostean akordioa lortu da eta Justizia Ministerioa, Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirola Ministerioa eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailaren arteko hitzarmena sinatu da (2008ko irailaren 9ko Gobernu Kontseiluak eman zuen sinatzeko baimena). Hitzarmenak abenduaren 31 arteko balioa du eta alderdien akordioaren bidez luzate daiteke, horrela gertatu zen 2009an.

- Gazte Justiziaren hezkuntza-zentroen sare espezifikoaren zehaztea honako parametro hauei jarraiki:

Gazte Justiziaren Zentroen sare espezifikoaren zehaztea da, barneratzeko eta asteburuko egonaldiko neurriak betearazteko, eta hiru mailatan egituratu da. Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzak eratu du Gazte Justiziaren zentroen sistema, eta Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak, kuantifikazio ekonomikoari buruzko atalean zehaztu den bezala, azpiegiturak eraikitze, egokitzapen-obrak egiteko eta zentroetako ekipamenduak hornitzeko erantzukizuna hartu du bere gain, urriaren 18ko 315/200 Dekretua betez.

Plazak / Zentroa / Urtea		2004	2005	2006	2007
I. maila	Ibaiondo HZ	14-21	21-27	27-34	34
II. maila	Uribarri HZ	6 ⁽⁶⁾	—	—	14 ⁽²⁾
	Mendixola HZ	12	12	12	12 ⁽¹⁾
	CEMAR	7	7	7	7
	Andoiu	7	7	7	7
III. maila	Bilboko AE	4	4	4	6 ⁽³⁾
	Donostiako AE 1	4 ⁽⁵⁾	4	4	4
	Donostiako AE 2	—	—	—	6 ⁽⁴⁾
	Gasteizko AE	4	4	4	4
Guztira		47-59 plaza	58-65 plaza	65-72 plaza	72-82 plaza

(1) Ekainaren 30ra arte.

(2) Uztailaren 1etik aurrera.

(3) Uztailaren 1etik aurrera.

(4) Irailaren 1etik aurrera.

(5) Urriaren 10ean irekia.

(6) 2004ko urrian ixten da.

VIII Legegintzaldirako (2005-2009) Gobernuaren Koalizio Akordioak, «Justizia Administrazio eraginkor eta demokratiko baten» konpromisoan, honako hau aurreikusten du: «2008-2012 Gazte Justizia Plan berria egitea eta Adingabeen Zentrozen berritze- eta birgaitze-prozesuekin jarraitzea (Landa, Ortuella eta Aramaio)».

Gaur egun, Landako Adingabeen Zentroa Uribarri Hezkuntza Zentroa da eta Arabako Uribarri-Ganboa herrian aurkitzen da; Ortuellan (Bizkaia) kokatutako Zentroa Miguel Ángel Ramírez Hezkuntza Zentroa (CEMAR) da; eta Aramaion (Araba) kokatutako Adingabeen Zentroa Mendixola Hezkuntza Zentroa da.

Azken lau urte hauetan zenbait aldaketa adierazgarri gertatu dira Gazte Justiziaren hezkuntza-zentrozen sarean:

I. mailan (Ibaiondo hezkuntza-zentroa), 2004ko urtarrilan 7 plaza zeuden; 2007an, aldiz, 34 plaza daude.

— 2005eko ekainetik, zentro hori zuzeneko kudeaketa publikokoa da.

- 5 hezkuntza-talde ditu, honako plaza kopuru hauekin: 8-7-7-7 eta 5. Azken talde hori espezializatua dago barneratze terapeutikoak betearaztean.

II. mailan (Mendixola, Uribarri, Miguel Angel Remírez —CEMAR— eta Andoiu hezkuntza-zentroak) honako aldaketa hauek gertatu dira:

- Uribarri hezkuntza-zentroak 9 hilabetez jardun zuen 2004an, gehienez 6 neska-mutil bilduz. Urrian itxi egin zen, birmoldatze- eta egokitze-obrak haste-ko. Obrak 2007ko irailean amaitu dira, eta harrezkero Zentroak 14 plaza ditu barneratzeko, eta 4 eguneko zentrorra joateko.
- Mendixola hezkuntza-zentroak gehienez 12 neska-mutil hartu ditu aldi berean 2007ko irailera arte. Une horretan, itxi egin da, birmoldatze-ari ekiteko. Obrak hasi artean, zentroan asteburuko egonaldiak betetzen dira (6 plaza).
- Andoiu hezkuntza-zentroa adingabeen harrerarako zentro espezifiko izan da aldi osoan, 7 plazarekin.
- CEMAR hezkuntza-zentroa sakonetik birmoldatu da, eta harrezkero 7 plaza ditu.

III. mailan (Autonomia Egoitzak), 2004ko urtarrilean 8 plaza zeuden; 2007ko abendutik, aldiz, 20 plaza daude.

- Bilboko Autonomia Egoitza: 2007ko azken seihilekoan, 4 plaza edukitzetik 6 plaza edukitzera igaro da. Mistoa. III. maila Tokiz aldatu da.
- Donostiako Autonomia Egoitza 1: 4 mutil har ditzake aldi berean, erregimen irekian edo erdirekian. III. maila 2004. urtearen amaieran ireki zen.
- Donostiako Autonomia Egoitza 2: 6 neska-mutilentzako edukiera du. Mistoa. Erregimen irekian, erdirekian edo hezkuntza-talde batekiko bizikidetzan. Seme-alaben eta gurasoen arteko indarkerian espezializatua. 2007ko irailean irekia.

2004ko urtarrilean 47 plaza zeuden guztira; 2007ko abenduaren 31n, aldiz, 82 plaza, eta horrek esan nahi du plaza kopurua % 74,5 igo dela.

Ondorioz Neurriak Betearazteko 2004-2007 Planean aurreikusitakoaren arabera, aurreikusitako neurri handi batean bete dela esan dezakegu. Bizkaian ezinezkoa izan da beste hezkuntza-zentro bat irekitzea, ez delako toki egokirik aurkitu, Lurraldean azpiegitura egokirik ez dagoelako, higiezin merkatuak mugak dituelako

eta bestelako erakundeekiko lankidetzarik ez dagoelako. 2004an beste hezkuntza-zentro bat ireki nahi zen, Diman, eta salerosketa-kontratua egin zen, eta gainera Alkatetzak babesa eskaini zuen hasiera batean. Alabaina, auzokoak aurka azaldu ziren, eta udalak babesa atzera bota zuen; ondorioz, proiektua ezin izan zen aurrera eraman.

Mendixola hezkuntza-zentroari dagokionez, 2006tik aurrera 10 plaza edukitzea aurreikusten zen. Alabaina, hezkuntza-zentro osoa birmoldatzeko obrak atzeratu dira, eta, ondorioz, ezinezkoa gertatu da aurreikuspena betetzea. Hezkuntza-zentro baten xedeak behar bezala betetzeko, hezkuntza-zentroak birgaitze integrala eta egokitzapen orokorreko obrak behar ditu, baina, obrak hasi aurretik, Aramaioko Udalak beharrezko lege-tramiteak egin behar ditu. Une honetan, Uribarri hezkuntza-zentroa ireki ondoren, asteburuko egonaldietarako soilik erabiltzen ari da, birmoldatze-obrak hasi arte.

Bestetik, III. Mailako plaza kopurua handitu behar izan da, batetik, Donostian aurreikusi gabeko 2. Autonomia Egoitza sortuz, familia barneko indarkerian espezializataua, eta, bestetik, Bilboko Autonomia Egoitzaren kokapena aldatuz eta plaza kopurua gehituz (lehen 4 plaza zeuden; orain, aldiz, 6).

2.1.3.2. Zentroko neurrien hezkuntza-eraginkortasuna eta berrerortzea

2003. urtean, gure Erkidegoan guztira 58 pertsonak amaitu dute gutxienez neurri bat. Guztietan ez bada ere, kasu gehienetan neurria amaitzeari buruzko txosten psikosoziala egin da. Jarraian, lagin horri dagokion aldagai batzuen deskribapen orokorra egingo dugu:

- *Sexua* aldagaiari dagokionez, azpimarratzekoa da adingabe guztien ia % 90 gizonak direla. 6 neskek bakarrik amaitu dute neurri bat hezkuntza-zentro batean, 2003. urtean.
- *Jaioterriari* dagokionez, aipatzekoa da gehienak gure Erkidegoan jaio direla (% 57), eta adingabe bakarra jaio dela Estatuko gainerako erkidegoetako batean. Gainerakoak (% 41,4) atzerritarrak dira, eta horien artean Magrebetik datozenak osatzen dute talde handiena (% 34,5).
- *Anai-arreben kopuruari* dagokionez, % 31,6 seme edo alaba bakarrak dira edo anai edo arreba bakarra du, % 42,1ek 2-4 anai-arreba ditu, eta % 26,3k 5 anai-arreba edo gehiago ditu.

- *Familiaren egoera sozioekonomikoari* dagokionez, nabarmentzekoa da, 4. irudian ikus daitekeenez, % 65,6 eskasian bizi dela, honako hauek oinarritzat hartuta: gizarte-laguntzen mendeko familia-egiturak, etxebizitza baten jabe ez izatea, gutxienez gurasoetako batek lan egonkorrik ez edukitzea eta abar. Familiaren egoera ekonomikoa nahikotzat jotzeko, aipatu berri ditugun baldintzetatik gutxienez bat ez du bildu behar. Bi adingabek bakarrik dute egoera sozioekonomiko handia duen familia-egitura (bi gurasoek lan egonkorra dute lanpostu kualifikatuetan, etxebizitza baten jabe dira eta abar).

Laginerako hautatu ditugun eta hezkuntza-zentroan neurri bat bete duten adingabeetatik 35ek bakarrik bete dituzte alde zurretik aipaturiko betekizunak (neurria betetzea, alde zurreko txostena, eta ondoko txostena). Horietatik, lehenik eta behin honako hauek hautatu eta aztertu dira:

- **Toxikoak:** Toxiko-kontsumoa diogunean normalean alkohola, haxixa eta abar neurri handiagoan edo txikiagoan kontsumitzea esan nahi dugu. Adingabeak neurria ezarri aurretik kontsumitzen baditu toxikoak, «1» balioa ematen zaio; bestela, «0» balioa.
- **Arrisku-harremanak:** Arrisku-harremanen aldagaiari puntuazio positiboa eman zaio baldin eta aztertutako adingabeek araututako aisia-jarduerarik ez duten, eskolatu gabe dauden edo eskola-porrot handia duten lagunak badituzte, elkarrekin delituak egin badituzte eta abar.
- **Osasun Mentaleko arazoak:** Jarraian grafikoan ikusiko dugunez, oso txosten psikosozial gutxitan adierazi da adingabeek osasun mentaleko arazoak dituzten edo ez. Nolanahi ere, adingabeari buruzko datu hori ageri den kasuak bakarrik hartu ditugu positibotzat.
- **Hiperaktibitatea / Arreta Defizita:** Aurreko aldagaian azaldutakoak balio du kasu honetan.

Hezkuntza-zentroan betetzen diren neurriei dagokienez, berrerortze-tasa orokorra % 53,4 da. Hau da, hezkuntza-zentroan sartzen diren adingabeen % 46,6k ez du berriz ere beste delitu bat egiten ondorengo 3 edo 4 urteetan. Zentroan sartzen diren adingabe gehienek beste zenbait auzi zituzten alde zurretik, eta hortaz berrerortzeko aukera gehiago zituzten. Edozein kasutan ere, horrek adingabe kopurua txikiari eragiten dio (58), eta horrenbestez zaila da estatistika-ondorio fidagarriak ateratzea.

Nolanahi ere, neurriaren aurreko eta neurriaren ondoko txostena zuten 35 adingabeak aztertuz zera ikusten da, aldagai dinamiko guztietan hobekuntza nabaria izan dutela.

Hezkuntza-zentroetan betetzen diren neurrietan berrerortzen diren adingabeak, gutzira, 31 dira. Horietatik 15 adingabe Adingabeen eta Helduen Justizian berrerori dira (6 adingabek ez dira Helduen Justizian berrerori), eta 16 adingabe Helduen Justizian bakarrik.

Azterturiko aldagai guztietan (familia barneko tratu psikiko txarrean izan ezik), berrerortzen diren adingabeek berrerortzen ez direnek baino puntu gehiago atera dituzte. Taulan talde bakoitzak (berrerorleek eta ez-berrerorleek) lorturiko batez bestekoak bildu dira, baita gutxieneko eta gehienezko balioak ere. Zenbat eta puntu gehiago atera, adingabeak orduan eta iragarpen okerragoa izango du. Hortaz, adingabe berrerorleek honako ezugarri hauek dituzte, ez-berrerorleen aldean:

- Familiaren egoera sozioekonomiko okerragoa.
- Familia-desegituratze handiagoa.
- Lotura-haustura handiagoa.
- Zuzeneko senitartekoen desagertze traumatiko gehiago.
- Abandonu kopuru handiagoa.
- Osasun mentaleko eta/edo fisikoko arazoak dituzten zuzeneko senitarteko (gurasoak edo anai-arrebak) gehiago.
- Kriminalitatearekin eta/edo toxiko-kontsumoarekin zerikusia duten zuzenezko senitarteko (gurasoak edo anai-arrebak) gehiago.

Azterturiko bestelako aldagaietan bezala, hemen ere (arriku-egoeran dauden lagunekin eta guraso edo hezitzaileen kontrolarekin zerikusia duen aldagaian izan ezik) adingabe berrerorleek puntu gehiago atera dituzte adingabe ez-berrerorleek baino.

Aipatu berri ditugun bi aldagai horien inguruan sortu den desadostasunak honako hauekin izan dezake zerikusia, gure ustetan: azterturiko adingabeak babes-zentroetan daude, eta, horrenbestez, lagun gutxiago dituzte arriku-egoeran, hain zuzen ere kalean ez daudelako. Bestetik, kontrolari dagokionez, zera hartu dugu aintzat, zentro batean gaudenez, gutxieneko kontrola (edo kontrol-ahalegina, behintzat) dagoela hezkuntza-zentroko pro-

fesionalen aldetik. Edozein kasutan ere, adingabe berrerorleek honako ezaugarri hauek biltzen dituzte, ez-berrerorleen aldean:

- Toxiko-kontsumo handiagoa.
- Eskola-porrot handiagoa.
- Osasun mentaleko arazo gehiago.
- Hiperaktibitate edo arreta-defizit handiagoa.
- Autokontrolako edo oldarkortasuneko zailtasun handiagoak.
- Antsietate edo depresio handiagoa.
- Prozesuarekiko axolagabekeria handiagoa.

2.1.3.3. Gazte Justiziaren Zentroen hezkuntza proiektuen ebaluazioa

Jarraian aurkezten dugun txostena Kriminologiaren Euskal Institutuak egin du, gazte-justiziaren zentroetako hezkuntza-proiektuen ebaluazioa oinarritzat hartuta. Azterlana egin aurretik, proiektu guztiak banan-banan aztertu ziren, eta zentroetako arduradun guztiei sakoneko elkarrizketa erdiegituratu bana egin zitzaien.

Balioespen positiboa lortu duten elementuak:

- Proiektuetan helburuak, jarduerak, baliabideak, metodologia, eta, oro har, ebaluazio-sistemak bildu dira.
- Estrategiak zehatz-mehatz xehatu dira, eta aldaketa-prozesura eta adingabearen premietara egokitu dira.
- Helburuetan identifikaturiko aldagaiak neur daitezke, teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak uztartuz.
- Proiektuak adingabeen bereizgarrien aniztasunera egokitu dira, Hezkuntza Proiektu Indibidualaren bitartez: motibazioa, interesak, ahalmenak eta abar.
- Diagnostikoa egiteko tresna eta probak eskuragarri daude (galdesortak, elkarrizketak eta abar), premiak eta gabeziak detektatzeko.

- Jarraipen-bilerak programatzen dira, hezkuntza-programak ezartzeko prozesua ebaluatzeko .
- Barne-koherentzia dago hezkuntza-programetan bildutako elementuen eta lortu nahi diren helmugen artean.

Elementu problematikoak:

- Epigrafeak oso sakabanatuta daude. Proiektuen arteko aniztasuna. Planteamendu errepikakorak.
- Proiektuak ezartzeko, langileek konpromiso-maila handia hartu behar dute.
- Eraginkortasuna kolokan jartzen da, pertsonalismoari eta langileen jarrerari lehen-tasuna ematen zaielako profesionalismoaren aurretik.
- Zenbait helburu espezifiko ez dira behar bezala zehaztu, eta horrek ondorio txarrak ditu exijentzia-maila zehazterakoan eta hezkuntza-programak ebaluatzerakoan.
- Zentro batzuk hiriguneetatik urrun daude, eta, horregatik, zailtasunak ager daitezke erregimen irekiko edo erdirekiko neurriak edo gizarteratze-printzipioa ezartzeko.
- Ebaluazioaren diseinua —neurketak et adierazleak— zehazteko arazoak.

Azterketa egin eta gero, zenbait esku-hartze iradokizun egin dira, eta, horiek aztertu ondoren, etorkizuneko Planean bilduko dira.

2.1.4. *IV. helburua: Inoren kargura ez dauden atzerritar adingabeak*

Zigor-zehapena jaso duten eta inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrek babesgabezia-egoera berezian daude, hau da, kolektibo bereziki kaltebera osatzen dute. Hortaz, arreta berezia eskaini behar zaio kolektibo horri, zailtasun berezia agertzen duelako Gazte Justiziaren hezkuntza-eginkizunari eta bergizarteratzeari begira.

2004/2007 Planean aurreikusitako jardunak behar bezala bideratzeko ahalegin handiak egin badira ere, inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrei Gazte Justiziatik eskaintzen zaien laguntza baldintzatuta dago erabat kolektibo horrek beste instantzietatik jasotzen duen erantzunagatik.

Planetik eta Jaurlaritzaren ekintzatik kanpoko baldintzatzaileak honako hauek dira: bate-tik, atzerritarrei buruzko legeria, eta, bestetik, inoren kargura ez dauden adingabe atze-ritarren tutoretzaren ardura duten erakundeen —hots, Foru Aldundien— jarduna.

Zailtasun nagusiak honako hauek izan dira:

- Prozesu horiek ez arautzeak edo atzeratzeak edozein esku-hartzeren porrota eragin dezake askotan.
- Nerabeek 17 urte eta 3 hilabete bete badituzte eta oraindik arautze-prozesuan sartu ez badira, nerabe horientzat ia ezinezkoa da egoitza- eta lan-baimena eskuratzea.

Alde handia dago Gazte Justiziaren baliabideen eta Foru Aldundien mendeko babes-arloko egoitza-baliabideen artean, azpiegiturei, langile-ratioei dagokienez eta abar.

Gazte-justizian, honako datu hauek jaso dira atzerritar adingabeen inguruan:

Neurria \ Jaioterria	Euskadin jaiotakoen %	Estatuan jaiotakoen %	Atzerritarren %	
			Orokorra	Magreb
Gizartearentzat lan egitea	64,7	3,5	31,8	14,59
Zaintzapeko askatasuna	73,5	10,7	10,8	5,3
Barneratzea	59	10,9	30,1	23,1
Tratamendu ambulatorioa	100	0	0	0
Gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginak	68,5	6,85	24,65	12,32
Asteburuko egonaldiak	56	10,2	43,8	28
Kautelazko Zaintzapeko askatasuna	77,8	11,1	11,1	5,6
Kautelazko barneratzea	30	6,75	63,3	43,3
Batez bestekoa	66,19	8,51	26,94	16,53

Ikus daitekeenez, epai bidez edo kautelaz neurri bat ezarri zaien adingabe gehienak (% 66,19), hau da, hirutik bi, Euskadin jaio dira. Hala ere, esan beharra dago atzerritarrek gehiegizko ordezkartza dutela (% 26,94) nerabe guztien ehunekoaren aldean jartzen badiugu.

Neurria zenbat eta murriztaileagoa eta larriagoa izan, atzerritarren gehiegizko ordezkari-tza hori orduan eta nabariagoa da Hala, kautelazko barneratzeari dagokionez, atzerritarrak % 63,3 dira; Asteburuko egonaldietan % 43,8, eta, Barneratze irmoan, % 30,1. Nolanahi ere, esan beharra dago Gizarteari laguntzeko neurrian ere atzerritarren presentzia kontuan hartzekoa dela (% 31,8)

Atzerritar gehienak Magrebekoak dira, marokoarrak bereziki.

Gazte Justiziaren esku-hartzean, nabarmentzekoa da ingurune irekiko neurrien eta barneratze-neurrien arteko desoreka; izan ere, kolektibo horretan, neurri murriztaileagoak ezartzeko joera nagusitu da: kautelazko barneratzeak, barneratze irmoak eta asteburuko egonaldiak .

Hori logikoa da, gazte horietako gehienek baldintza subjektiboak aintzat hartuta: familia-egiturarik, sustraitzerik eta kontrolik eza, eta abar. Ezaugarri horiek, egotzitako edo egin-dako delituarekin batera, ezarri beharreko neurriaren nondik norakoa baldintzatzen dute normalean.

Etorkizunean eremu horretako jarduna planifikatzeko, kontuan hartzekoa da Sailak zu-zenean ekiteko dituen aukerak nabarmen gainditzen dituela, eta horrenbestez jardun hori erakunde arteko mailan eta politikaren eta legegintzaren mailan planteatu beharko dela.

2.1.5. *V. helburua: Beste erakundeekiko koordinazioa*

A. Foru Aldundiak

Funtsean, Foru Aldundiekiko Koordinazioa sustatu behar da, erakunde horiek baitira es-kumen nagusiak dituztenak haurrak babesteari dagokionez (Adingabearen Babes Juri-dikoaren 1/1996 Legea).

Azken aldian, Bizkaiko Foru Aldundiak sorturiko Nerabe eta Haur Kontseiluan parte hartu du Sailak. Kontseilu horretan hainbat erakunde eta elkarte biltzen dira, hala nola Aldundia bera, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila, Hezkuntza Saila, Osasun Saila, EUDEL, UNICEF eta Agintzari.

Gazte Justiziaren Zerbitzuko arduradunak Batzorde Teknikoaren bilkuretan parte har-tu du Kontseiluaren baitan, eta baterako jardunari buruzko dokumentua egiteko agindua eman zaio, gizarte-gatazka larrian dauden adingabeen inguruan.

Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko koordinazio-akordioak lortu dira Adingabe Atzeritarren arloan.

Erakunde arteko koordinazioak eta hainbat gizarte-sektoreren parte-hartzeak funtsezko ildo estrategikoa behar du hurrengo aldian, eta ekintza zehatzak eraman behar dira aurrera, hala nola koordinazioko eta gizartean parte hartzeko foro espezifikoak eratzea.

B. *Udalak*

2007an garrantzizko lankidetzaz-ildo bat abiatu zen, EUDELein Gizarteari Laguntzeko Hitzarmena sinatu baitzen. Ikus ingurune irekiko neurriei buruzko atala⁸.

2.1.6. VI. helburua: *Gazte Justiziaren Zerbitzua*

«Gazte Justiziaren Zerbitzua dagozkion eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren giza baliabide, eta baliabide tekniko eta materialez hornitzea».

2005ean, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duen urriaren 18ko 315/2005 Dekretuaren bitartez, Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzak —Dekretu horren bitartez sortu zen— bere gain hartu zituen iraungita dagoen Giza Eskubideen eta Justiziariekiko Lankidetzaren Zuzendaritzaren eginkizunak, Gazte Justiziarri, Doako Justiziarri eta Zigor-arloko Justiziarri buruzkoak; hortaz, urte horretatik aurrera, Gazte Justiziaren Zerbitzua Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzarena da.

Plana indarrean zegoen aldian Gazte Justiziaren Planean aurreikusitako plaza-hornidura honako hau zen:

- Gazte Justiziaren Zerbitzuko arduradun 1.
- Zentroen arduradun 1 (sortu berria).
- Gazte Justiziako letratu 1
- Ingurune Irekiko Neurrien Arduradun Koordinatzaile 1:
 - Arabako lurralde-arduradun 1.

⁸ Ikus 2.1.2.1. atala.

- Bizkaiko 2 lurralde-arduradun.
- Gipuzkoako lurralde-arduradun 1 (lan-arlokoa).
- 3 administrari laguntzaile (2 sortu berriak).

2007. urtearen amaieran honako plaza hauek zeuden:

- Gazte Justiziaren Zerbitzuaren arduradun 1 (Gizarte Gaietako arduraduna).
- Gizarte Gaietako 3 teknikari⁹.
- Gazte Justiziako letratu 1.
- Bizkaiko 2 lurralde-arduradun (Gizarte Laguntzako teknikariak).
- Gipuzkoako lurralde-arduradun 1 (TPJko lan-kontratudun langileak).
- Administrari laguntzailea 1.

Egitura egonkor hori Justizia Administrazioaren poltsetatik eratorritako prozesu-kudeaketaren teknikariak indartu du eta neurriak grabatzeaz, oinarrizko estatistika ustiatzeaz eta Zerbitzuko teknikariei laguntza emateaz arduratu da.

Halaber, beste administrari laguntzaile bat dago, Justizia Administrazioaren poltsetako errefortzuetatik eratorria.

Funtzio-organigrama honako kasu hauetan dator bat Planean aurreikusitakoarekin:


- Gazte Justiziaren Zerbitzuko arduradun 1.
- Zentroetako arduradun 1.
- Gazte Justiziako letratu 1.
- Bizkaiko 2 lurralde-arduradun.
- Gipuzkoako lurralde-arduradun 1 (lan-arlokoa).

⁹ Gizarte Gaietako teknikariaren 3 plazak ingurune irekiko neurriak betearazteko definitu dira. Lehen Zentroetako arduradun-plaza zena, funtzio-azterketen ondoren, desagertu egin zen eta orain ingurune irekiko neurrietarako Gizarte Gaietako teknikari gisa definitzen da.

- 2 administrari laguntzaile (1 errefortzu gisa, Justizia Administrazioaren poltsetatik eratorria).

Nolanahi ere, «Ingurune irekiko neurrien arduradun koordinatzailearen» eta «Arabako lurralde-arduradunaren» plazak izan ordez, Zerbitzuak «Ingurune irekiko Teknikariaren» bi plaza ditu. Plaza horietako batek Bizkaiko ardura du; besteak, aldiz, Arabako eta Gipuzkoako ardura du. Horretaz gain, ez dago Planean Bizkairako aurreikusten den hirugarren administrari laguntzailea.

Honako hau da egungo antolaketa-egitura:



Goiago adierazi den bezala, egitura egonkor hori Justizia Administrazioaren poltsetatik eratorritako prozesu-kudeaketaren teknikariak indartu du eta neurriak grabatzeaz, oinarriko estatistika ustiatzeaz eta Zerbitzuko teknikariei laguntza emateaz arduratu da.

2.1.7. VII. helburua: Araudia garatzea

Gai honetan aplikatu daitezkeen legeria, hots, 5/2000 Lege Organikoa, uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuak (abuztuaren 30eko BOE, 209. zenbakia) garatu zuen eta Dekretu horri EAEko gazte-justiziaren prozedurak egokitu zaizkio.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2005ean, Eusko Legebiltzarrak Haur eta Nerabeen Arreta eta Babeserako 2005eko otsailaren 18ko 3/2005 Legea promulgatu zuen. Lege horren helburua honako hau zen: haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteari dagokion erreferentzia-esparru orokorra ematea Euskal Autonomia Erkidegoari.

Lege horren 109. artikuluan legegileak Administrazioari agintzen dio beharrezkoak diren betekizunak arauz ezartzeko arau-hausle adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta eskaintzeko arloan diharduten erakundeek antolatzeko aukera izan dezaten Lege horretako 88. artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera, Adingabeen Epaileek hartutako neurriak ez ezik kalteak konpontzeko eta biktimarekin adiskidetzeko alde zuzeneko neurriak ere aplikatzen laguntzeko.

Legezko agindua betetzen duen Arautegia —adierazitako erakunde laguntzaileak baimentzeari, homologatzeari, ikuskatzeari eta erregistratzeari buruz adierazitako baldintzak ezarri— 163/2008 Dekretua da, irailaren 30ekoa.

Lege horretan bertan jardun-eremuak eta Adingabeen Epaitegiak emandako neurriak betearazteko modalitateak ezartzen dira, eta adingabe arau-hausleen eskubideekiko errespetuaren kalitatea eta haien eskaintzen zaien arreta bultzatzeko behar diren bermeak sartzen dira. Horretarako, 3/2005 Legearen 91.2 artikuluan eskatzen zaio «Justiziaren arloan eskumena duen Sailari» zehazteko «erregelamendu bidez askatasunez gabetzeko era bateko eta besteko neurriak betearazteko zentroek zer eskakizun bete behar dituzten baliabide material eta funtzionalei eta giza baliabideei dagokienez. Erregelamendu horretan, berariaz aipatu beharko dira adingabeen eta haien zerbitzu ematen dieten langile profesionalen eskubideak eta betebeharrak; halaber, berariaz aipatu behar da barne-araudi bat edukitzeko beharra, edukiaren aldetik barnetegiaren berezitasunei eta hezkuntza-egitasmoari begira egina».

Horixe da edozein erregimenetako barneratze-neurriak, edozein erregimenetako barneratze terapeutikoko neurriak eta zentro batean asteburuko egonaldiko neurriak —Adingabeen Erantzukizun Penal arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoan gaur egun aurreikusita dauden eta askatasuna kentzen duten neurriak dira— betetzeko zentroen betekizunak arautzen dituen Dekretuaren helburua. Dekretu hau 2009 urtearen hasieran onartuko da. Adierazitako Dekretuaren xedapenak urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoan, uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuan, Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan, 1989ko azaroaren 20ko

Haurren Eskubideen Konbentzioa eta otsailaren 18ko 3/2005 Legean ezarritako mugei barnean biltzen dira.

Bestalde, 1774/2004 Errege Dekretura egokitzeak ekarri zuen arauak ez diren baina EAEko adingabeen zentroetarako prozedura-eskuliburuak diren testuak egitea: Diziplina Araubideari buruzko Eskuliburua eta Segurtasunari eta Zaintzari buruzko Eskuliburua.

2.1.8. *Neurrien adierazleei buruzko Eranskina ebaluatzea eta berrikustea*

2.1.8.1. *Neurrien adierazleei buruzko ebaluazioa*

2004-2007 aldiko Neurriak Betearazteko Planaren eranskinean Gazte Justiziaren Zerbitzuak 5/2000 LOren 7.3 artikuluko lege-irizpideak zehazteko lege-irizpideak erabat errespetatuz egokienak bezala hartu dituen adierazleak azaltzen ziren, ezarri beharreko neurriari buruz informatzeko duen eskumena erabiliz. Neurri hori 5/2000 Lege Organikoaren 7.3, 27.6, 28.1 eta 2, 35.1 eta 51. artikuluetan ezarrita dago. Irizpide horiek, indarrean dagoen legerian eta gazte-neurriak betearazteko lanarekin eskuratutako esperientzian oinarritzen dira.

Neurriak aukeratzeko adierazleak etengabe erabili dira lau urte hauetan. Kautelazko neurriak, agerraldietako eta entzunaldietako parte-hartzea, neurria aldatzeko proposamenak eta abar zehazteko Gazte Justiziaren Zerbitzuari, erakunde publikoa den aldetik, esleitu zaizkion betebeharrak etengabe kontsultatuz eta eztabaidatuz bete dira.

Sor daitezkeen lege-aldaketek eta esperientziak berak eragin dute irizpide horiek berriz ere pentsatu behar izatea. Bilakaera eta aldaketa handienak honako neurri hauetan gertatu dira: pertsonekin, familiarekin edo hezkuntza-taldearekin izandako bizikidetzetan eta eguneko zentro batera joatea agintzen duen neurrian. Gainerakoetan aldaketak txikiagoak dira.

Bestalde, zentroz aldatzeko balio izan du eta oraindik ere balio du. Maila batetik bestera igarotzen da eta egoitza-ingurunetik ingurune irekira. Gazteekin nahiz epaileekin eta fiskalekin elkarrengaitan duten profesionalen (hala nola lantalde teknikoak, gazte-justiziaren zerbitzuko teknikariak, ingurune irekiko eta zentroetako teknikariak) arteko topaguneak eta eztabaidaguneak dira.

Ezarriko den neurria balioesteko tresna hori oso baliagarria denez gero, komenigarria izango litzateke hedatzea eta EAEko Talde Psikosozialekin adostea, eta, ahal balitz,

Adingabeen Fiskaltzekin balioestea ondoren. Adierazitako Talde Psikologikoak, antolamenduari dagokionez, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren mende daude, eta organikoki, Giza Baliabideen Zuzendaritzaren mende.

Are gehiago, eragileek neurriak eskatzea eta Epaitegiek neurriak ezartzea egiaz eragin duten irizpideen identifikazioa kriminologia-azterketa sakon baten helburu izan liteke.

2.1.8.2. *Adierazleak berrikustea*

1. *Barneratze-neurria*

Neurri hori delitu gisa tipifikatuta dauden egitateak gauzatzeagatik bakarrik ezar daitezke. Halaber, kautelarki jar daitezke. Neurriaren erregimen desberdinak aplikatzeko legegintza-arloko aldeak daude.

Honako kasu hauetan ez da barneratze-neurria gomendatzen:

- Gauzatutako egitateak larritasun gutxiagoko delitutzat hartzen direnean.
- Behar adinako kontrola eta hausnarketa-esparrua eskaintzen dituen eta aldaketa-faktore bat dakarren familia edo bizikidetzako gune bat dagoenean.
- Inguruneko irekiko neurriak —batez ere zaintzapeko askatasuna edo eguneko zentro batera joatea — behar bezala bete izandakoaren esperientzia dagoenean.
- Prestakuntzari edo lanari dagokienez integratuta dagoenean.
- Delitugilearen eguneroko bizitzaren gizarte-esparrua positiboa bada eta ondo integratuta badago.
- Bere gizarte- eta familia-ingurunetik beste profesional edo erakunde batzuen laguntzarekin erantzun bat eman daitekeenean.
- Lehen jokabide arau-hauslea denean, betiere oso larria ez bada.
- Adingabearen jarrera positiboa denean eta erantzukizuna bere gain hartzen duenean, autokontrol-maila egokia erakutsiz.
- Oinarrizko hezkuntza-premiak babesik ezaren esparruan agertzen direnean: tutoretzapekoak, administrazio-zaintza egoeran daudenak, inoren kargura ez daudenak, eta abar.

- Adingabeak barneratze-neurri asko bete gabe dituenan edo betetzeko geratzen zaionaren iraupena garrantzitsua denean eta bere hezkuntza-prozesuak ez duenean zentro bateko iraunaldia luzatzea gomendatzen.

Honako kasu hauetan gomendatzen da barneratze-neurria aplikatzea:

- Gauzatutako egitateak eta adingabearen ezaugarriak kontuan izanik, indarkeriaz edo larderiak edota pertsonen bizitza edo osasunerako arrisku larriekin delituak egiteko probabilitate handia dagoenean.
- Adingabearen problematika latza denean, bere jarduteko eredia jokabide arau-hausle larriak izatea delako.
- Adingabearen ezaugarri pertsonalek testuinguru murriztaile batetik kanpo edozein hezkuntza esku-hartze eragozten dutenean. Aurreikusten ez denean bere berezko ingurunean erantzuteko edo aldatzeko gaitasuna izango denik, epe ertainean behintzat.
- Bere gizarte- eta familia-ingurunearen ezaugarriek adingabearekin gutxieneko esku-hartze bat gauzatzeko aukerarik ematen ez dutenean, ingurunea bera adingabeak une horretan dituen gizarteratzeko oinarritzko premiei erantzuteko gai ez delako.
- Adingabearen jarrera erantzukizuna onartzekoa ez denean, eta autokontrol- eta euspen-mekanismo propiorik ez dagoenean.
- Ingurune irekian beste neurri batzuekin eten ezin izan diren jokabide arau-hausle berrerorleak dituen adingabea denean.
- Esku-hartzeak proposatu den hezkuntza-helburua garatzeko gutxieneko iraupen bat izan dezakeenean (3 hilabete).
- Kautelazko neurri gisa ezartzea gomendatuko da honako adierazletako batzuk daudenean: larritasun handiko egitateak direnean, berrerortze larria denean, biktimari edo biktimei kalte egiteko arriskua dagoenean, justiziaren ekintza saihesteko edo frogak desegiteko arrisku garbia dagoenean.

Honako kasu hauetan gomendatzen da barneratze terapeutikoko neurria aplikatzea:

- Jokabide arau-hauslea larria denean, eta osasun mentaleko arazo bati edo substantzia toxikoen gehiegizko kontsumoari edo mendetasunari zuzenean loturik dagoela egiaztatzen denean, eta problematika hori konpontzea lehentasunezkoa dela eta tratamendu ambulatorioa gomendagarria ez dela pentsatzen denean.

- Tratamendu terapeutiko bat egitea ezinbestekoa denean eta hori egiteko adingabeari eutsi beharra dagoenean, bere egoera pertsonalak, familiarrak, sozialak eta abar esku-hartzea eragozten duelako, eta esku-hartze hori adingabearen inguruetik urrun dagoen testuinguru eusle batean bakarrik egin daitekeelako.

2. Eguneko Zentro batera joatea

Neurri hori delitu gisa tipifikatuta dauden egitateak gauzatzeagatik bakarrik ezar daiteke.

Honako kasu hauetan ez da gomendatzen eguneko zentro batera joateko neurria aplikatzea:

- Eskola, prestakuntza edo lan-baliabide batean integratuta dagoenean.
- 16 urtetik beherako pertsonak direnean.
- Duela denbora gutxi mota horretako neurriak edo programak aplikatzerakoan porrot egin denean.
- Programa edo neurri mugatuagoen bitartez erantzuteko aukera dagoenean: gizarte- eta hezkuntza-arloko lanak egitea, zaintzapeko askatasuna.
- Bizileku egonkorrik ez duenean.

Honako kasu hauetan gomendatzen da eguneko zentro batera joateko neurria aplikatzea:

- Pertsonak 16 urtetik gorakoak direnean.
- Mota bereko zerbitzuren batera bertaratzen ari denean.
- Aldez aurretik mota horretako neurriak betearazteari dagokionez, esperientzia positiboak izan direnean.
- Zaintzapeko askatasuna jokabide-arauekin eta abarrekin egiteko aukerarik ez dagoenean.
- Behar bezain euslea den alternatiba bat denean, barneratze-neurri baten alternatiba gisa.
- Bizileku egonkor bat duenean, eta adingabea bada, erreferentziako heldu bat duenean.

3. *Tratamendu ambulatorioa*

Neurri hori delitu gisa tipifikatuta dauden egitateak gauzatzeagatik bakarrik ezar daiteke.

Honako kasu hauetan ez da gomendatzen tratamendu ambulatorioko neurria aplikatzea:

- Anomalia edo alterazio psikiko bat, edari alkoholduen, droga toxikoen edo substantzia psicotropikoen kontsumorako mendetasuna edo pertzepzioaren alterazioak daudela peritu kualifikatu batek egiaztatzen ez duenean.
- Neurria aurrez aurre eta erabat gaitzesten denean.
- Duela denbora gutxi mota horretako neurriak edo programak aplikatzerakoan porrot egin denean.
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko lanak egitea bezalako programa edo neurri mugatuagoen bitartez erantzuteko aukera dagoenean.

Honako kasu hauetan gomendatzen da tratamendu ambulatorioko neurria aplikatzea:

- Anomalia edo alterazio psikiko bat, edari alkoholduen, droga toxikoen edo substantzia psicotropikoen kontsumorako mendetasuna edo pertzepzioaren alterazioak daudela peritu kualifikatu batek egiaztatzen duenean.
- Erreferentziako leku edo helbide egonkor bat duenean.
- Neurria gutxieneko maila batean onartzen denean.
- Mota bereko zerbitzuren batera bertaratzen ari denean.
- Aldez aurretik mota horretako neurriak betearazteari dagokionez, esperientzia positiboak izan direnean.

4. *Asteburuko egonaldia*

Neurri hori delitu edo hutsegite gisa tipifikatuta dauden egitateak gauzatzeagatik ezar daiteke.

Honako kasu hauetan ez da gomendatzen asteburuko egonaldiko neurria aplikatzea:

- Bere etxean egiteko, kontrol eta ikuskapeneko gutxieneko baldintzak ez daudenean edo familiak beharrezkoa den ikuskapena egiteko konpromisorik hartzen ez duenean.

- Bere eguneroko bizitzako zenbait arlotan etengabeko esku-hartzearen premia dagoenean.

Honako kasu hauetan gomendatzen da asteburuko egonaldiko neurria aplikatzea:

- Neurria ezartzea dakarten egitateak asteburuan gertatzen direnean eta asteburuetan egiten diren jardueri loturik daudenean.
- Bere etxean giro ona dagoenean eta bere familia neurria etxean bertan betearazteko ados eta prest dagoenean.
- Prestakuntzako edo laneko esparruan, astialdiko esparruan eta abar integratuta dagoenean.
- Aldez aurretik mota horretako neurriari betearazteari dagokionez, esperientzia positiboak izan direnean.
- Ingurune irekian beste neurri batzuk betetzen ari denean eta horien osagarria izan daitekeenean.
- Beste barneratze-neurri bat edo batzuk betetzen ari denean eta horiek osatzea egokitzat jotzen denean.
- Gertakari larrien aurrean oso era puntualan erantzun nahi denean eta adingabearen edo gaztearen bizitzako gainerako esparruetan integrazio-maila ona dagoenean.

5. Zaintzapeko askatasuna

Neurri hori delitu edo hutsegite gisa tipifikatuta dauden egitateak gauzatzeagatik ezar daiteke, eta kasu horretan 6 hilabete arteko iraupena izango du. Kautelazko neurri gisa ezar daiteke.

Honako kasu honetan ez da gomendatzen zaintzapeko askatasunaren neurria aplikatzea:

- Erreferentziako helbide egonkor bat ez duenean.
- Adingabeen kasuan, beraian eragina duen eta neurria betearazteko euskarri izan daitekeen pertsona heldu bat ez dagoenean.
- Aurreko neurrietan edo zitazio judizialetan, Fiskaltzaren neurrietan eta abarretan adingabea zitazioetara, elkarrizketetara eta antzekoetara behin eta berriz azaldu ez izanaren esperientzia behin eta berriz errepikatu denean.

- Zaintzapeko askatasunaren beste zenbait neurri behin eta berriz bete ez izanaren esperientzia dagoenean.
- Egitateen izaera, zirkunstantziak eta abar kontuan izanik, neurriaren iraupena oso laburra izango denean.
- Bere ingurunean delitu-jokabideak izateko presio handia dagoenean edo giroa bere garapenerako oso negatiboa denean.
- Adingabearen premietara egokitutako baliabideak edo baliabide komunitarioak ez daudenean.

Honako kasu hauetan gomendatzen da zaintzapeko askatasunaren neurria aplikatzea:

- Helbide edo bizileku egonkor bat dagoenean.
- Adingabeak direnean, beraiengan eragina duen eta erreferentziakoa den pertsona heldu bat dagoenean.
- Hainbat jardueratan, hala nola hezkuntzari, lanari, aisiari, astialdiari eta abarri lotutakoetan parte hartzeko aukeraren bat dagoenean.
- Neurriak berez, edo beste batzuekin metatuz, hiru hilabeteko gutxieneko iraupena duenean.
- Pertsonak mota horretako beste neurri batzuetan parte hartu izan duenean eta esperientzia ona izan denean.
- Familian, lanean, prestakuntzan eta abar integrazio-maila ona egon denean.
- Bilakaera positiboa izan duen barneratze-neurri bat ordeztan duenean eta bere eguneroko bizitzako ingurunean lan egiteko aukerak daudenean.

6. Beste pertsona, familia edo hezkuntza-talde batekin bizitzea

Neurri hori delitu gisa tipifikatuta dauden egitateak gauzatzeagatik bakarrik ezar daiteke. Halaber, kautelarki jar daiteke.

Honako kasu hauetan ez da gomendatzen beste pertsona, familia edo hezkuntza-talde batekin bizitzeko neurria aplikatzea:

- Kautelazko gisa proposatzen denean, salbu eta harrera zuzeneko senitarteko batekin edo hezkuntza-talde batekin —lehen ere harekin bizi denarekin— egiten bada.

- Adingabeak neurria onartzen ez duenean edo neurria zalantzarik gabe onartzen duela erakusten ez duenean.
- Adingabea eguneroko bizimoduaren testuinguru erabat normalizatuan, kontrol-neurri berezien premiarik gabe, bizitzeko gai dela peritu eskudunak sinatutako dokumentuen bitartez egiaztatzen ez denean.
- Harrera egiteko prest dagoen pertsona, familia edo familia-talde jakin bat ez dagoenean.
- Adingabearen zirkunstantziek, bere egoera pertsonalak, emozionalak, jazarpen-jokabideek, bulkaden kontrol-gabeziak eta abarrek neurriak porrot egingo duela edo neurria ezartzeko eragozpen handiak izango direla aurreikustea ahalbidetzen dutenean.
- Barneratzeko neurri irmo batetik edo kautelazko neurri batetik eratorria denean eta bilakaera behar bezala balioetsi ez denean.

Honako kasu hauetan gomendatzen da beste pertsona, familia edo hezkuntza-talde batekin bizitzeko neurria, neurri irmo gisa, aplikatzea:

- Beste pertsona, familia edo hezkuntza-talde batekin bizi denean eta bere integrazioa eta bertan jarraitzea positibotzat jotzen direnean.
- Beste familia edo hezkuntza-unitate batean integartzeko proposamena dagoenean eta hori positibotzat jotzen denean.
- Norberaren familian harrera egiteko prest dauden pertsonak daudenean eta harrera bideragarria denean.
- Inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrak direnean eta zerbitzu espezifiko batean bizi direnean, beren integrazio-maila positiboa izanik.
- Adingabeak barneratze-neurri bat —irmoa edo kautelazkoa— behar bezala bete duenean aurretik, eta bilakaera egokia izan duela ebaluatu denean.
- Ikasten edo lanean ari denean eta astialdian ondo integratuta dagoenean.
- Seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeriaren arazo bat dagoenean, baina arazo horrekin lotutako arazorik ez dagoenean (gai toxikoen kontsumo problematikoa, osasun mentalaren arazoak eta abar).

- Dokumentu bidez honako hauek egiaztatzen direnean: adingabeak antsietatearen eta bulkaden kontrol egokia ez ezik pertsonen arteko gatazkak hitz eginez konpon- tzeko gaitasuna ere baduela, eta eusteko neurri fisikoak edo arkitektonikoak izateko premiarik gabe taldean bizitzeko gai dela.
- Instrukzio-prozesuak irauten duen bitartean, elkarrekin bizitzeko proposamen irmoa dagoenean eta bizikidetzaren egokia izan dela irizten denean.
- Autonomia Egoitza batean —III. mailako hezkuntza-zentroa— bizi bada eta han jarraitzea nahitaezkoa dela irizten denean.

7. Gizarte- eta hezkuntza-arloko lanak egitea

Neurri hau delitu edo hutsegite gisa tipifikatuta dauden egitateak gauzatzeagatik ezar dai- teke, eta kasu horretan 6 hilabete arteko iraupena izango du.

Honako kasu hauetan ez da gomendatzen gizarte- eta hezkuntza-arloko lanak egiteko neurria aplikatzea:

- Lanak egitearen aurkako jarrera adierazten duenean.
- Esparru desberdinetan esku hartzeko beharra egiaztatzen denean.
- Bere ingurunea oso negatiboa denean edo oztopoak jartzen dituenen.
- Bizileku egonkor bat ez duenean.
- Beste egiteko batzuekin bateraezina denean.
- Komunitatean baliabide egokirik ez dagoenean.

Honako kasu hauetan gomendatzen da gizarte- eta hezkuntza-arloko lanak egiteko neu- rria aplikatzea:

- Egitateak, batez ere delitu gisa kalifikatzen direnean.
- Alor jakin batean defizit nabarmena dagoela egiaztatzen denean, baina gainerakoan bere funtzionamendua egokia denean.
- Bere ingurunea positiboa denean eta erreferentziatzeko figura egokiak daudenean.
- Lanak egiteko jarrera positiboa erakusten duenean.
- Beste egiteko batzuekin batera daitekeenean.

8. *Gizartearentzat lan egitea*

Neurri hori delitu edo hutsegite gisa tipifikatuta dauden egitateak gauzatzeagatik ezar daiteke.

Honako kasu hauetan ez da gomendatzen gizartearentzat lan egiteko neurria aplikatzea:

- Neurria argi onartzen ez denean.
- Egitateak gertatu zirenetik denbora asko igaro denean.
- Behar adinako astialdirik ez duenean.
- Antzeko beste neurri batzuk betearazteari dagokionez, esperientzia negatiboa izan denean.
- Delitu-errepikatze anitzeko kasuak direnean.

Honako kasu hauetan gomendatzen da gizartearentzat lan egiteko neurria aplikatzea:

- Erantzukizuna zalantzarik gabe bere gain hartzen duenean eta ordaintzeko jarduera bat proposatzen denean.
- Neurria argi onartzen ez denean.
- Behar adinako astialdia duenean.
- Aurreko beste neurri batzuk betearazteari dagokionez, esperientzia positiboak izan direnean.
- Beste neurri murriztaileago batzuen osagarri gisa ematea bidezkoa denean.
- Talderen edo GK Eren batean parte-hartze altruista dagoenean.

2.2. Kuantifikazio ekonomikoaren ebaluazioa

Baliabide Ekonomikoak: Talde Psikosoziala

Kontuan hartu behar da ondorengo taulan Talde Psikosozialeko langileen kostu globalen datuak biltzen direla. Talde horien eginkizun guztiak Gazte Justiziaren Lantalde Teknikoen eginkizunetan oinarritzen direnez gero, guztizko kostua ezin zaio Gazte Justiziari

egotzi. Bestalde, ez dira sartzen prestakuntza-gastuak, joan-etorriek eragindako gastuak eta Justizia Sailburuordetzaren Giza Baliabideen Zuzendaritzak kudeatutako gainerako gastuak.

Era berean, bidezkoa da egiaztatzea ez direla sartzen Justizia Sailaren Giza Baliabideen Zuzendaritzak kudeatutako langileen gastuak eta prestakuntza-gastuak, ezta Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak hornitzen duen mota orotako baliabide materialak ere.

	Pertsona kopurua	Guztizko kostua
2004	33	1.688.099
2005	33	1.738.742
2006	32	2.105.391
2007	32	2.097.820
		7.630.052

Baliabide Ekonomikoak: Ingurune Irekia

Atal honetan Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak, kontratuen edo hitzarmenen bitartez, «Ingurune Irekiak» eta «Bizkaiko Eguneko Zentroa» kudeatzeko Berriztu Hezikuntza Elkartearen eta Arabako Birgizarteratze Institutuaren eskura jarri dituen baliabide ekonomikoak aztertzen dira, baita Adingabeen Epaitegiek ezarritako neurriak betetzeko kontratatu behar izan diren tratamendu terapeutikoei eragindako gastua ere.

Ingurune Irekiko Zerbitzuak hezitzaileek osatzen dituzte: Hezitzaile horiek honako helburu hauek dituzte: zaintzapeko askatasuneko neurriak betearaztea, gizarte- eta hezikuntza-arloko zereginak gauzatzea, gizartearentzat lan egitea, etxebizitzako asteburuko egonaldiak kontrolatzea eta tratamendu ambulatorioa ematea. Profesional horiek zeregin bikoitza dute: hezikuntza-laguntza eskaintzea eta betearazteari dagokionez ezarritako baldintzak kontrolatzea.

Eguneko zentroetan betetzen dira eguneko zentro batera joateko neurriak eta zaintzapeko askatasuna, baldin eta eguneko zentro batera joateko obligazioa badakar berekin.

	2004	2005	2006	2007	Guztira
Bizkaia	400.427,52	408.436,07	416.540,76	511.213,69	1.736.618,04
Gipuzkoa	143.820,00	146.696,40	172.987,32	250.700,61	714.204,33
Araba	114.235,92	116.520,63	120.365,76	151.312,81	502.435,12
Bizkaiko Eguneko Zentroa	0	314.561,08	284.066,64	322.793,90	921.421,62
Tratamendu terapeutikoak	18.560	35.841	88.004,31	89.208,72	231.614,03
Egindako guztizkoa	677.043,44	1.022.055,18	1.081.964,79	1.325.229,73	4.106.293,14
Aurreikusitako guztizkoa	780.000,00	870.000,00	894.000,00	921.000,00	3.465.000

Aurreikusitako gastuen eta egindako gastuen arteko aldea 641.293,14 € eurokoa da; horrek esan nahi du % 18,51ko goranzko aldea dagoela. Alde hori honako hauen ondorioz etorri da:

- Bizkaiko Eguneko Zentroaren kostuaren ondorioz, zeren Zentro horrek 20 plaza baititu, eta 15 aurreikusi ziren.
- Eskaera igo denez, eta 8/2006 Lege Organikoaren ondorioz hainbat aldaketa egin direnez, taldeak osatzen dituzten profesionalen kopurua handitu delako.
- Tratamendu ambulatorioetan eta esku-hartze psikoterapeutikoetan gastua ustekabeen igo delako.

2004-2007 aldiko igoera % 95,74 izan da; igoera hori honako parametro hauek kontuan hartuta azaltzen da:

- 87,7 puntutik 49 gertatu dira Bizkaian baliabide berri batez hornitu delako, Basauriko Eguneko Zentroa, hain zuzen ere. Zentro horrek 2005. urtean 15 plaza zituen, eta 2007. urtetik aurrera, aldiz, 20.
- Hezitzaileen taldeei dagokienez, talde bat gehiago dago 2006an (Gipuzkoa) eta 6 gehiago (2 Gipuzkoan, 3 Bizkaian eta 1 Araban) 2007ko bigarren seihilekoan.
- 2007ko bigarren seihilekoan baldintza ekonomikoak hitzarmen kolektibo berrietako eskakizunetara egokitu dira, baita hezitzaileek betetzen dituzten eginkizunen eta zereginen berezko eskakizunetara ere.

- Esku-hartze terapeutikoak askotan erabili dituzte Epaitegiek, eta horren ondorioz, gastua % 380 igo da.

Abenduaren 31n, taldeen dimentsioak ahalbidetzen zuen Adingabeen Epaitegiek beteazterako eskatutako neurri guztiak betetzea, betiere ezarritako batez besteko parametroen (hezitzaile bakoitzeko 15 kasu) barruan.

Baliabide Ekonomikoak: Ibaiondo Zentroa

	2004	2005	2006	2007	Guztira
Funtzionarioak	7.190,22	179.509,30	185.589,17	202.681,95	574.970,64
Lan-arlokoak	0	972.171,40	2.620.102,54	3.072.829,39	6.665.103,33
Kotizazioak	1.816,03	278.732,04	719.858,51	817.554,87	1.817.961,45
Funtzionamendu-gastuak	1.145.521,87	931.668,72	323.404,38	361.410,14	2.762.005,11
Guztira	1.154.528,12	2.362.081,46	3.848.954,6	4.454.476,35	11.820.040,53
Aurreikusia	1.600.000	2.500.000	3.768.000	3.880.000	11.748.000

Ibaiondo Hezkuntza Zentroa partzialki hasi zen lanean 2003an, Bizkaiko Birgizarteratzeko Institutuarekin zeharkako kudeaketa-kontratuen bitartez, eta 5 hezkuntza-taldeetatik 2 ireki ziren.

2005eko uztailean zuzeneko kudeaketa egin zen Administrazio berezko langileekin, administrazio langileak 2004ko abenduan hasi ziren lanean, eta Zuzendaritzako langileak urtarrilean.

Horregatik, 2004an osorik eta 2005ean partzialki, zentroko kudeaketa funtzionamendugastuei egozten zaie (Zerbitzu-kontratua Enpresen Gizarte Erantzukizuneko Institutuarekin), 2004. urtetik aurrera, pixkanaka-pixkanaka, langile propioak sartu ziren, eta 2006ko maiatzean Zentroko 5 hezkuntza-taldeak ireki ziren.

Baliabide Ekonomikoak: Zentro Kontratatuak/Itunduak

Ikuspegi kuantitatiboari dagokionez, 2004-2007 aldiko alderdirik aipagarriena da eskuragarri dauden hezkuntza-zentroen kopuruari eta motari dagokionez, aldaketak izan direla:

a) Honako hauek ez dute aldaketarik izan aldi osoan:

- Andoio Hezkuntza Zentroa, 7 plaza neskontzat. Edozein erregimenetan. II. maila.
- Gasteizko Autonomia Egoitza, 4 plaza, batez ere neskontzat. III. maila.
- Miguel Ángel Remírez Hezkuntza Zentroa, 8/7 plaza mutilentzat, ahal dela erregimen irekia eta erdirekia. II. maila.

b) Honako hauek dira beren edukiera aldatu dutenak:

- Bilboko Autonomia Egoitza. Lehen 4 plaza zituen, 2007ko azken seihilekoan, ordea, 6. Mistoa. III. maila. Bere kokapena aldatu du.
- Mendixola Hezkuntza Zentroa. 2007ko udazkena bitarte edozein erregimenetako barneratze-neurria zuten mutilak hartzen zituen, eta 12 lagunentzako edukiera zuen. 2007ko urritik aurrera gehienez 6 lagun hartzen ditu asteburuko egonaldiak betetzeko.

c) Sortu berriak.

- Uribarri Hezkuntza Zentroa. 2004an behin-behineko gisa jardun zuen 9 hilabetez, eta 6 lagunentzako edukiera zuen mutilentzat, erregimen irekian eta erdirekian. Zentroa goitik behera birmoldatu ondoren, 2007ko udaz gerotik 14 barneratze-plaza ditu, edozein erregimen dutenentzat; nolana ere, erregimen irekikoek lehentasuna dute. II. maila. Halaber, eguneko zentroko 4 plaza ditu.
- Donostiako Autonomia Egoitza 1. 4 mutilentzako edukiera du, erregimen irekian edo erdirekian. III. maila. 2004. urtearen amaieran ireki zen.
- Donostiako Autonomia Egoitza 2. 6 mutil edo neskarentzako edukiera du. Erregimen irekian, erdirekian edo hezkuntza-taldean bizitzea. Seme-alaben eta gurasoen indarkeriaren inguruko problematiketan espezializatuta dago. 2007ko irailean ireki zen.

Zerbitzuen araberako urteko zenbatekoak honako taula honetan bildu dira:

	2004	2005	2006	2007	Guztira
Gasteizko Andoio AU. EG.	893.520	911.390,4	941.460	973.476	3.719.846,4
CEMAR	651.877,92	664.915,47	686.857,56	710.210,26	2.713.861,21
Uribarri	620.240	0	0	750.000	1.370.240
Mendixola	850.680,00	867.693,60	896.327,40	490.901,24	3.105.602,24
Bilboko AE 1	263.160,00	268.423,20	277.281,12	347.354,34	1.156.218,66
Donostiako AE 1	0	280.451,50	277.876,92	287.324,76	845.653,18
Donostiako AE 2	0	0	0	124.666,30	124.666,3
Guztira	3.279.477,92	2.992.874,17	3.079.803	3.683.932,9	13.036.087,99
Planean aurreikusitako guztizkoa	3.586.000,00	3.044.000,00	4.214.000,00	4.332.000,00	15.176.000

Ingurune irekian gertatzen den ez-bezala, zeharkako kudeaketa-zentroen gastua ez da iritsi zeharkako kudeaketa-zentroetarako Planean aurreikusitako zenbatekora, hau da, 2.139.913 eurora. % 14,10eko alde hori ulertzen da Uribarri Hezkuntza Zentroa ez zutelako ireki 2007ko bigarren sei hilekora arte —nahiz eta 2006an irekitzea aurreikusita zegoen—, eta Mendixola Hezkuntza urte horretako uztailean itxi zutelako.

Uribarri HZ aurreikusitako datan ireki izan balute, egiazko azken gastuaren zenbatekoa Planean aurreikusitako zenbatekoa baino milioi bat euro handiagoa izango zen. Zenbateko hori 2008ko aurrekontuetan esleitu beharko da zentro hori urte osoan mar-txan egoteak eta Donostiako Autonomia Egoitza 2 mantentzeak eragiten duten kostuari aurre egiteko.

Segurtasun-gastuak Gazte Justiziaren zentroetan

Urtea	Ibaiondo HZ	CEMAR	Araba	Betearaz. guztizkoa	Planean aurreikus.
2004	426.760,30	103.893,24	213.670,11	746.338,54	—
2005	494.198,97	104.451,60	145.017,84	745.673,41	760.000
2006	565.918,08	108.288,09	150.198,98	826.411,15	780.000
2007	511.901,14	105.446,11	198.906,65	818.260,9	810.000
Guztira	1.998.778,49	422.079,04	707.804,47	3.136.684	2.350.000

Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren konturako segurtasun-gastuak, 2004-2007 aldikoak, % 77,6 igo dira. Igoera hori honako arrazoi hauek azal-tzen dute:

- Hezkuntza-talde guztiak Ibaiondo Hezkuntza Zentroan ireki dira.
- Uribarri Hezkuntza Zentroa ireki da.

Gaur egun, Miguel Angel Remírez, Uribarri eta Ibaiondo hezkuntza-zentroek segurtasun-zerbitzua dute.

CEMAR	zaindari 1 egun bakoitzean 14 orduz eta 24 orduz asteburuan eta jaiegunetan
Uribarri	zaindari 1 24 orduz 7 egunetan eta 24 orduz asteburuetan
Ibaiondo	3 zaindari eta erdi 24 orduz eta kamera-laguntzaile 1

Aurreikusitakoa kontuan hartzen badugu, igoera handia izan da; igoera hori Ibaiondo HZko segurtasun-gastuek eragin dute batez ere (3 zaindari eta erdi, eta laguntzailea), bai-ta Uribarri Hezkuntza Zentrokoek (zaindari bat eta zaindari bat asteburu eta jaiegunetan) eta CEMARrekoek ere (zaindari 1, 15 orduz astelehenetik ostiralera eta 24 orduz aste-buru eta jaiegunetan).

Baliabide Ekonomikoak: Obrak Zentroetan

Gazte Justiziaren hezkuntza-zentroetako obrak, mantentzeak, hornidurek eta gar-biketak eragiten dituzten gastuak Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak ordainduko ditu.

	2004	2005	2006	2007	Guztira
Mendixola HZ	5.124	165	0	25.029	30.318
Andoio HZ	20.625	891	19.213	34.763	75.492
CEMAR	109.775	35.443	0	0	145.218
Ibaiondo HZ	160.625	385.845	297.809	325.691	1.169.970
Uribarri HZ	0	1.293.972	1.351.055	1.617.519	4.262.546
Guztira	296.149	1.716.316	1.668.077	2.003.002	5.683.544

Egindako gastuak ezin dira aurreikusitako gastuekin alderatu honako arrazoi hauengatik:

- Mendixola Hezkuntza Zentroa birmoldatzeko obrak ez dira egin.
- Hasiera batean aurreikusita ez zeuden beste obra batzuk egin dira Ibaiondo Hezkuntza Zentroan.

Uribarri HZ (Landa)

	2004	2005	2006	2007	Guztira
Gastua	0	1.293.972	1.351.055	1.617.519	4.262.546
Aurreikusia	300.000	1.950.000	722.519	0	2.972.519

Mendixola HZ

	2004	2005	2006	2007	Guztira
Gastua	5.124	165	0	25.029	30.318
Aurreikusia	0	700.000	600.000	0	1.300.000

2.3. Aurreikusitako giza baliabideei buruzko ebaluazioa

2004-2007 aldiko Planeko datuen arabera, ingurune irekiko hezitzaileen plantillan aurreikusitako bilakaera honako hau zen:

Zerbitzua/Urtea	2004	2005	2006	2007
Arabako ingurune irekia	3	3	3	3
Gipuzkoako ingurune irekia	4	4	4	4
Bizkaiko ingurune irekia	11	11	11	11
Bizkaiko eguneko zentroa	5	5	5	5
Arabako eguneko zentroa	—	—	—	—
Guztira (hezitzaileak)	23	23	23	23

Hasierako planteamendu hau funtsezko hiru arrazoi hauengatik gainditu da: neurri kopurua (2003an 716 ziren, 2007an, aldiz, 1.147) eta batez besteko iraupena igo dira; 8/2006 Lege Organikoa indarrean jartzearen ondorioz 5/2000 Lege Organikoak zenbait aldaketa izan ditu, batez ere 9.1 artikuluan azaltzen den aldaketa; eta, azkenik, Gipuzkoan kasu berezi bat, «Hondarribiko kasua», azaldu zen, eta, horren ondorioz, hezitzaile berri bat kontratatu behar izan zen presaka.

2004-2007 aldiko errealitatea

Zerbitzua/Urtea	2004	2005	2006	2007
Araba	3	3	3	4
Gipuzkoa	4	4	5	7
Bizkaia	11	11	11	14
Bizkaiko eguneko zentroa	5	5	5	8
Arabako eguneko zentroa	—	—	—	2
Guztira (hezitzaileak)	23	23	24	35

Honako hauek dira ingurune irekiko neurriak betearazteko profesional kopurua igoarazi duten gertaerak:

- Neurrien batez besteko iraupenaren igoera.
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginak gauzatzeko neurrien kopuruaren igoera.
- Barneratze-neurrien kopurua igotzea; horrek zaintzapeko askatasunaren bigarren fase bat dakar berekin.
- Hondarribiko kasua (2004).
- 8/2006 Lege Organikoa aldatu izana:
 - Hutsegiteak egiteagatiko zaintzapeko askatasuna hobetzeko aukera (6 hilabete arte).
 - Hutsegiteak egiteagatik gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginak ezartzeko aukera (6 hilabete arte).
- Langile kopurua igo izanaren erdia (5) gertatu da Bizkaiko eguneko zentroa 15 plaza-tatik 20 plazara hazi delako eta Arabako eguneko zentroa sortu delako Uribarrin.

2.4. Eusko Legebiltzarraren Erakunde eta Herrizaingo Batzordearen Ebazpenak

Erakunde eta Herrizaingo Batzordeak, 2005eko otsailaren 9an izandako bilkuran, Jaurlaritzak Planari buruz egindako Jakinarazpenarekin zerikusia duten bost Ebazpen eman zituen (2005eko martxoaren 4ko Aldizkari Ofiziala, 191. zenbakia).

2.4.1. *Balioetan oinarritutako hezkuntza*

«Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio sail bakoitzaren eskumenen eremuan, baina elkarrekin koordinatuta eta modu integralean, balioetan oinarritutako hezkuntza-programak eta bizikidetzaren eta errespetu sozialaren aldeko programak sustatzen jarrai dezala».

Sail honek, bere eskumenen eremuan, hots, Adingabeen Epaitegiek ezarritako neurriak betearazteari dagokionez, hezkuntza-arloan esku hartzeko bere jarduna adingabeetan oinarritzen du, adingabe horiei arreta osoa eskainiz.

Jardun horretan honako hauek biltzen dira: Balioetan oinarritutako Hezkuntza Programak, Pentsamendu Morala, Gatazkak konpontzea, Gizarte Trebetasunak, Hezkuntza Afektibo/Sexuala eta abar. Horiek guztiek zentroetako jarduera osatzen dute batik bat.

Sail honek badaki Hezkuntza Sailak (bere eskumenen esparruan) beste jardun batzuen artean, Bizikidetzan eta Bakean oinarritutako Hezkuntza Plana gauzatu duela.

Sentsibilizazioa

«Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio sail bakoitzaren eskumenen eremuan, baina guztiak elkarrekin koordinatuta, arrisku-alderdiak prebenitzeko beharrezkotzat hartzen diren sentsibilizazio-kanpainak sustatzen jarrai dezala».

Justizia Sailak, 2006. eta 2007. urteetan, ikus-entzunezko material batzuk egin ditu EAEko Gazte Justizia eta adingabeen erantzukizun penala zer diren azaltzeko, hedatzeko eta haiei buruzko informazioa ematearren.

Material didaktiko horren laguntzarekin, Sail honetako Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzaren eta Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren eta Hezkun-

tza Sailaren Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren arteko Akordio bat egin da EAeko adingabe eta 18 urtetik gorako gutxiei buruzko informazio- eta prebentzio-lanari ekiteko.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sai-lak eutsi dioten lankidetzari jarraiki, 2007-2008 ikasturtean EAeko Bigarren Hez-kuntzako ikastetxeetako irakasle eta ikasleentzako hainbat prestakuntza-jarduera egingo dira. Saioen edukia Adingabeen Erantzukizun Penalaren arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren azterketari eta interpretazioari buruzkoa izango da.

Jarduera horien helburua honako hau da: Bigarren Hezkuntzako irakasleek eta ikasleek adierazitako 5/2000 Legea aplikatzearen ondoriozko adingabeen erantzukizun penalaren arauak ezagutu ditzaten sustatzea.

Horrekin honako hauek lortu nahi dira:

- Irakasleak adierazitako Legearen jakintza-esparruan sartzea, 14 urtetik 18 urtera bi-tarteko gazteek dituzten eskubideen eta betebeharren berariazko eskakizunak gutxi gorabehera zein diren jakin dezaten.
- Legean azaltzen diren neurriak aztertzea eta neurri horiek oinarritzen diren hezkun-tza-irizpideak transmititzea, baita zer egitate eta zirkunstantzia direla medio jartzen diren, nola betetzen diren eta abar ere.
- Adingabeen erantzukizun-sistemari buruzko ikuspegi globala eskaintzea, neurri hezitzaileak eta gizarteratzeko neurriak azpimarratuz bereziki, baita erantzukizuna aldarrikatzeko prozesua, adingabeen eskubideak eta betebeharrak eta abar ere.

Adierazitako jarduerak Zigor Beteazpenaren Zuzendaritzako langileek emango dituz-te Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzarekin lankidetzan. Bi zuzendaritza horiek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailekoak dira.

Halaber, ibilbide didaktikoetan, justizia-jauregietan adingabeei buruzko azalpen bat sartu da (informazio gehiago www.justizia.net webgunean).

Bestalde, Ebazpen honen balioespina osatzeko nahitaezkoa izango litzateke «preben-tzioa» kontzeptuari buruzko zehaztapenen bat egitea.

Prebentziorik hoberena adingabeek jaiotzen direnetik 18 urte bete arte dituzten eskubi-deak, nazioarteko, estatuko, autonomiako eta tokiko araudiaren arabera, gizarteraren

aurkako jokabideen prebentzio-ikuspegitik etorkizunera ez ezik batik bat oraina ere kontuan hartuta betetzea da, zeren eskubideak betetzea helburu bat baita, nahiz eta jokabide irregularrak prebenitzea bigarren mailako ondorio izan. Horrela, bada, ekintza adingabe guztientzat izango da, inolaz ere ez pertsona batzuk hartuz delitu-jokabideak prebenitzeko jarduera berezien hartzaile gisa, zeren egiaztatuta baitago seinalatze hutsak lortu nahi diren kontrakoak diren ondorioak eragiten dituela.

Bestalde, dokumentu honetan aipatu diren hezkuntza-arloko esku-hartzearen eta berrerortzearen inguruko eraginkortasuneko azterlanen helburuak, besteak beste, honako hauek dira: berrerortzen lagun dezaketen alderdiak eta ez berrerortzen lagun dezaketenak identifikatzea, gazte-justiziaren eremuan prebentzio-orientazio horrekin esku hartu ahal izateko, baina bigarren eta hirugarren mailako prebentzioaren eremuan betiere.

2.4.2. *Betearazteko epeak eta ikuskatze-zerbitzua*

«Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio Adingabeen erantzukizunari buruzko Legea garatzeko araudiak gai jakin batzuei buruz —hala nola neurriak betearaztea abian jartzeko epeak eta barneratze-zentroak ikuskatzeko eta kontrolatzeko zerbitzua— ezartzen dituen preskripzioak aintzat hartzeko. Adierazitako Legea matxoaren leian [2005] jarriko da indarrean».

Halaxe da, Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza honek kontuan hartu zuen Araudia onartu zenetik aurrera (2004ko abuztuaren 30eko BOE, 209. zenbakia), neurriak betearazteko prozedurak egokitu zituen, eta araudi berrira egokitutako Diziplina Araubideari eta Segurtasunari buruzko Eskuliburuak onartu zituen.

Araudi hori indarrean jarri zenez geroztik, neurriak betearazteko epeak errespetatu dira, batez ere neurri bakoitzaren Betearazte Plan Indibiduala Adingabeen Epaitegi eskudunera bidaltzeko 20 egun baliiodunen epea.

Halaber, Gazte Justiziaren Zerbitzuak, Zentroen ardura duen funtzionarioak, zehazki, Barneratze Zentroak ikuskatzeko eta kontrolatzeko eginkizunak bete ditu.

Beste maila batean, Arartekoaren erakundeak ikuskapen-bisitak egin ditu urteko Barneratze Zentroetara, eta bere Urteko Txostenean Legebiltzarrari jakinarazi dio gogobetetze-maila oso handia izan dela. Lau urteko aldi honetan, Zentroei buruzko kexa bat bakarrik azaldu du Arartekoak.

2.4.3. *Betearazpena EAEn*

«Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio adingabeen Epaileek agindutako eta EAEn bizi diren adingabeei ezarritako neurri guztiak, egindako delitua dela medio salbuespenik gabe, lurralde honetan betearazteko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren bitartez, eta Euskal Administrazioak dituen bitarteko propioen bitartez».

Plan honen indarraldiko 4 urte hauetan, adingabe bat ere ez da EAeko lurraldetik atera Administrazioak ez zuelako neurria betearazteko baliabiderik. EAetik kanpoko Epaitegi batek emandako neurria betearazi den kasu bakanetan honako arrazoi hauengatik izan da: adingabea EAetik kanpo bizitzea edo Epaitegiak berak egokitzen hartzea adingabea bere inguruetik aldentu beharra.

Dokumentu honetako beste atal batean jasota dagoenaren arabera, tamalez badago salbuespen bat, 7/2000 Lege Organikoak sortzen duena; izan ere, Lege horrek salbuespeneko jurisdikzio bat sortu zuen Zigor Kodearen 571. artikuluetan eta hurrengoetan azaltzen den delituren bat egiten duten adingabeentzat, hots, Audientzia Nazionalaren Adingabeen Epaitegi Zentrala [harrigarria bada ere, Espetxeratuen Zaintzako Epaitegi Zentralaren Epaitegi bera da], baita betearazteko salbuespeneko eremu bat ere, hots, Justizia Ministerioak Audientzia Nazionalaren esku jartzen dituen baliabideak, hau da, EAetik urrunekoak. Adingabeen Epaitegi Zentralak, Legearen indarraldiko lehenengo 5 urteetan, adingabeei buruzko 13 gai ezagutu zituen.

Ebaluazio honetako dagokion atalean adierazten da Justizia Sailak baliabide guztiak jarri dituela bere eskura salbuespen hau ez izateko; honela 2.1.3 atalean aipatutako Hitzarmena sinatu da.

2.4.4. *Plantilla premietara egokitzea*

«Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio plantilla une bakoitzean atzematen diren premietara egokitzeko».

Horrela egin da, giza baliabideei dagokien atalean jasota geratu den bezala¹⁰.

¹⁰ Ikus 2.1.2.1 atala, 2.1.3.1 atala, 2.1.6 atala eta 2.3 atala.

2.4.5. Adingabeek egindako ebaluazioa

«Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio, ebaluazio-prozesuen barruan, bere gain hartzeko adingabeen iritzia, beren legezko ordezkariena eta gainerako sektore eta erakundeena, eta ez bakarrik gazte-justiziaren sistemarekin harremanetan daudenena edo sistema hori osatzen dutenena».

Alde batetik, arestian aipatutako dibulgaziozko ikus-entzunezkoen materiala 4 tailer eginda gauzatu zen neurriak betearazteko sistemaren hainbat baliabidetan. Tailer horietan 16 neska-mutilek hartu zuten parte neurriak betetz. Material horretan, neska-mutilek egoerari eta neurriak betetzeari buruzko balorazioak egin ahal izan dituzte, eta iritzi horiek hedatzeko, informatzeko eta prebenitzeko erabiliko den materialaren oinarri dira.

Beste alde batetik, Hezkuntza-arloko Proiektu Indibidualak duen hezkuntza-arloko esku-hartze indibidualerako tresna indartsuena (lehenengo 20 egunetan egin behar da eta neurri osoan betearazi eta berrikusi) neska-mutilen parte-hartzearekin egin da, eta tresna horren bilakaera hezkuntza-arloko arduradunek eta adingabeek ebaluatu dute.

Azkenik, Ibaiondo HZn barneko adingabe taldeak eratu dira; era horretan, modu antolatuan ekarpenak egin ahal izango dizkiote zentroaren eguneroko martxari.

Horrela biltzen da Arartekoaren 2007ko Urteko Txostenean; txosten horrek ere beste tresna bat ematen baitu adingabeek Zentroetara egiten dituzten bisitetan egindako ebaluazioari buruzko informazioa jasotzeko. Urteko Txostenaren 370. orrian eta hurrengoetan azaltzen da adingabeek nola bizi izaten, atzematen eta balioesten dituzten poliziaren eta epailearen esku-hartzeak eta gazte-justiziaren hezkuntza-zentroko bizitza.

3. Ondorioak

1. 2000-2003 aldian izandako esperientziaren eta 2000tik 2004ra bitarteko denboraldiko neurrien gorakadaren ondorioz, batez ere baliabideen igoeran oinarritu zen 2004-2007 Plan baten ondoren, 2008-2012 denboraldian kalitate-helburuak ezarri dira, ez kantitatezkoak, baita prozedurak sakontzeko eta esku-hartzeari nahiz ebaluatzeari buruzko kalitate zientifikoa egiteko aukera ere.

2. Aplikatu daitezkeen legeriaren egungo egoera, aldaketa garrantzitsuak egin diren aldia igarotakoan, honako hau da: esku-hartzea igo egin da, batez ere zigorrak ezartzeari eta defentsari buruzko printzipioak oinarri hartuta. Nolanahi ere, praxi egokiak ahalbidetzen du gazte-justizia politiko-kriminalki bideratzea aplikazioaren eta betearazpenaren eremutik.
3. Aldi honetan lege-arloan gertatu diren etengabeko aldaketek eragotzi egiten dute ebaluazio uniforme bat egitea.
4. Gazteen zigor-arloko legeria aldatzen duen ekintzari dagokionez, Autonomia Erkidegoak arinki hartu dira kontuan. Autonomia Erkidegoek 5/2000 Lege Organikoaren aplikazioari buruzko ebaluazioa egiteko lehenengo arduradunak izan beharko lukete; horregatik, oso garrantzizkoa da sektore-arloan eskaintzen duten laguntza eta Justizia Ministerioarekin zuzenean hitz egiteko duten aukera. Oraingoz, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak koordinatzen ditu Autonomia Erkidegoak, bai adingabeak babesteari dagokionez, bai gazte-justiziari dagokionez.
5. Oraindik ere Audientzia Nazionalak eusten dio EAeko adingabeei buruzko eskumenari terrorismo-delituei dagokienez, hori nazioarteko zuzenbidearen printzipioen eta epaile naturalaren eskubidearen aurka doa.
6. Ez dirudi zigor-arloan gazteen gatazkak nabarmen hazi direnik, baina atzematen da fiskaltzen esku-hartzea handiagoa dela. EAEn hasiera ematen zaien erreforma-espedituek jaitsi egin dira, baina betearazteko neurri kopurua hazi egin da.
7. Estatistika judizialean eta fiskaltza-arloko estatistiken heterogeneotasunak zaildu egiten du gazte-justiziaren administrazioa ebaluatzea, baita neurriak bete-arazteko berezko estatistikak aldatzea ere.
8. Gure datuek, baita Arartekoaren balioespenak ere, EAeko epaitegietan heterogeneotasun kezagarria dagoela egiaztatzen dute, neurriak aplikatzeari dagokionez. Lantalde Teknikoek eta Fiskaltzek Lurralde Historiko bakoitzean duten funtzionamenduari dagokionez, heterogeneotasuna nabarmena dela atzeman da.
9. Arartekoak honako ondorio hau ateratzen du: «adingabeen erantzukizun penala arautzen duen legea aplikatzerakoan oraindik ere gabeziak daude, ez bakarrik erakunde publiko eskudunak baliabide mugatuak dituelako edo antolakuntzako arazoak dituelako —alderdi honetan hobekuntza nabarmenak izan dira—, baizik eta baita sistema judizialak mugak edo jardunbide jakinak dituelako ere».

10. Gertakariak gauzatzen direnetik neurria betearazten den arte, batez beste, 10 hilabete inguru igaro dira, eta berehalakotasunak nerabeekiko hezkuntza-lanetan eta esku-hartze sozialetan garrantzi handia duenez gero, denbora hori murriztea ahalbidetuko duten sistemak ezarri behar dira.
11. Urte batzuetan neurriak asko hazi dira (2000. urtean 235 ziren, 2004. urtean, al-diz, 1.017, hots, % 333 hazi dira), baina 2004-2007 Planaren indarraldiak irauten duen bitartean, betearazteko neurri kopurua egonkortu egin da, urteko hazkundera % 5etik behera baitago (1.017 neurritatik 1.147 neurritara igaro da).
12. Ingurune irekiko neurriak gehiengoa dira orain ere (% 75), nahiz eta barneratzeei eta, batez ere, asteburuko egonaldiei buruzko hazkundera askoz handiagoa den. Ingurune irekiko neurrien eta barneratze-neurrien arteko proportzio orekatuari eusten zaio.
13. Fiskaltzan bideratzen diren arau-hauste gehienak jabegoari buruzko eta indarkeriarik gabeko arau-haustea dira; kautelazko neurriak indarkeriaz edo larderiaren egindako lapurreta-delituen eta familia barneko indarkeriaren kasuetan aplikatzen dira batez ere.
14. Hainbat kolektibori —Inoren Kargura ez dauden Adingabe Atzerritarrak, esaterako— dagokienez, erakunde arteko ekintzak goreneko maila politikoan lantzeko premia dago gizarteratzea lortzeko neurriak betearazteari dagokienez, Administrazio Publikoak egiten duen ahalegin neketsuak aurreikusitako legezko helburuak lor ditzan.
15. Heltzeko modu berriak eskatzen dituzten delituen tipologia eta adingabeen profil berriak azaldu dira, hala nola seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeria-kasuak. Seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeriagatiko neurriak nabarmen hazi dira 2003tik 2006ra bitarte, baina 2007an zertxobait jaitsi dira; hortaz, badirudi egonkortzen ari direla.
16. Neurrien batez besteko iraupena igo egin da.
17. Azken aldian jaitsi egin da Hezkuntza Zentroetako okupazio-tasa, % 70etik behera; eta horri esker, neurri guztiak presiorik gabe betearaz daitezke.
18. Gazte-justizian sartzen diren adingabeen buru-nahasteak eta jokabide-nahasteak askoz nabarmenagoak dira.
19. Delitu-jarduera handia duten adingabeen ehunekoa txikia da (% 5-7 inguru) baina inbertsio eta esfortzu handia eta ikuspegi espezifikoa behar dute. Bere

bizi-egoerak (egoera pertsonala, eskola-, familia-, osasun-egoera...) desegituraketa handia erakusten du eta horregatik esku-hartzea konplexua da.

20. 5/2000 Lege Organikoaren 27. artikuluan eta ondorengo artikuluetan aurreikusitako konponbideen arabera egindako espediente kopuru handi bat mantentzen da (1.215; batez beste, 304 espediente urtean), eta guztira 1.698 laguni eragiten diete (batez beste 425 laguni urtean).
21. Bitartekotzei buruzko datuak biltzeko tresnak ez dira nahikoak eta heterogeneoak dira. Aurreikuspenen ehunekoarekin alderatzen badugu, bitartekotzen ehunekoak nabarmen jaitsi dira. Bitartekotza gehienetan arau-hausleak eta biktimak ez dute harremanik. 5/2000 Lege Organikoaren 19. eta 27. artikuluetan aurreikusitako prozesuetan ikusten da ez dagoela irizpideen eta metodologiaren unitaterik.
22. Ingurune irekiko neurria ezartzen zaien adingabeen % 78,3 ez da berrerortzen (3 urtetik gorako jarraipenarekin).
23. Gazte-justiziaren zentroen sarea garatu da ia osorik, eta gaur egun ondo samar betetzen dira barneratze-eskaerak eta asteburuko egonaldiak.
24. Zentroetako Hezkuntza Proiektuak eta barne-funtzionamenduko prozesuak berrikusi eta homogeneizatzeko premia atzeman da.
25. Aldi osoan ez da gauzatu gazte-neurriak betearazteko sisteman lan egiten duten langileentzako Prestakuntza Planik. Bakarrik ekintza puntualak egin dira, adibidez: beste erakundeek antolatutako ekitaldietara bertaratzea, kolektibo jakinentzako ikastaroak...
26. Oso interesgarria eta erabilgarria izan da KREIrekiko (Kriminologiaren Euskal Institutua) lankidetzaren 2004-2007 aldiko Plana ebaluatzeko ikerketak eta ekintzak garatzeko.
27. Neurri judizialei lotuta dauden adingabeen % 26,94 atzeritarrak dira. Biztanleria orokorrarekin alderatzen badugu, gehiegi ordezkatuta daude. Egoera sozioekonomiko defizitarioa eta baztertzeko-arazo garrantzitsuak dituzte. Lege- eta gizarte-arloko egiturak inoren kargura ez dauden adingabe atzeritarrak gizareratzeko prozesuak eragozten ditu. Eragozpen hori handiagoa da egoitza-baimena ez duten pertsonetan.
28. Adingabeen bizitzari dagokionez, esku hartzen duten erakundeek eta eragileen arteko koordinazioa funtsezko elementua da; nolahi ere, oro har, ez dago koordinazio- eta komunikazio-esparru egonkorrik eta eraginkorrik.

29. Aurrera egin bada ere, Gazte Justiziaren Zerbitzuan oraindik ez da antolamendu-egitura egokirik lortu, lan-karga asko hazi delako eta funtzio-azterketak direla medio zentroetako arduradunaren plaza desagertu delako.
30. Neurriak aplikatzeko Adierazleak ezarriko den neurria balioesteko tresna oso baliagarriak direnez gero, komenigarria izango litzateke hedatzea eta EAEko Talde Psikosozialekin adostea, eta, ahal balitz, Adingabeen Fiskaltzekin balioes-
tea ondoren.
31. Neurriak betearazteko eskaeraren igoerak, horien iraupenak, profesionalen sol-
data hitzarmen kolektibo berrien eskaeretara egokitzeak eta neurriak betearaz-
teko baliabidea igo izanak eragin dute urteko kostua % 100 igotzea 4 urtean.
Eskaeraren egonkortasun-egoera dela medio, beharrezko baliabideak eta gastua
egonkortzea aurreikusten da.
32. Ingurune irekiko neurriei dagokienez, gastuaren inguruko aurreikuspenak gain-
ditu dira, eta aurreikuspen horiek ez dira lortu zeharkako kudeaketa-zentroi da-
gokienez.
33. Hasiera batean, Ibaiondo Zentroko gastua planifikatutakoa baino txikiagoa zen,
baina azken bi urte hauetan aurreikusitakoa gainditu du; era horretan, planean
aurreikusitakoa eta gauzatutakoa ia guztiz bat datoz.

4. Iturriak

- Gazte Justiziaren Zerbitzuaren memoriak.
- Arartekoaren Urteko txostenak, 2004tik 2007ra bitartekoak.
- Hezkuntza-arloko eraginkortasunari eta berrerortzeari buruz Gazte Justizian egin-
dako azterlana (IVAC-KREI).
- Seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeriari buruz UPV-EHUK egindako azterlana.
- Ingurune Irekiko neurriei buruzko ebaluazioa (KREI).
- Hezkuntza Zentroi buruzko ebaluazioa. Arduradunei egindako elkarrizketei buruz-
ko txostena (KREI).

- Zentroko Hezkuntza-arloko Proiektuei buruzko ebaluazioa (KREI).
- Hezkuntza-arloko Proiektuak estandarizatzeko eredia (KREI).
- Adingabeen Jurisdikzioari buruzko Lehen Txostena. Espainiako gazteek dituzten gizartearen aurkako jokabide eta delitu-jokabideei buruzko azterketa (KIZ Kriminologiaren Ikerketa Zentroa. Gaztela-Mantxako Unibertsitatea).
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren memoriak.
- Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiaren memoriak.
- Estatuko Fiskaltza Nagusiaren memoriak.
- Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontua Gauzatzeari buruzko datuak.
- Gazte Justiziaren 28 zenbakiko datu-basea.
- Gazte Justiziaren Zerbitzuko langileen ebaluazio-biltzarrak.
- Erakunde Laguntzaileen, Hezkuntza Zentroyen eta Zerbitzuen ebaluazio-biltzarrak.
- Ebaluazio-biltzarrak Adingabeen Epaileekin, Adingabeen Fiskaltzekin eta Talde Psikosozialekin.

